Bukatzeko, biktimak delitu-tipologiaren arabera banatuz gero, hurrengo grafikoak erakusten du mehatxuak (n=89, %22,36) eta lesioak (n=153, %38,44) jasan dituzten biktimak erdiak baino gehiago direla (%60,8). Hirugarrenik, laugarrenik eta bosgarrenik, hertsapenak (n=44, %11,06), tratu apalesgarria (n=24, %6,03) eta gorroto-diskurtsoa daude (n=21, %5,28).

## 46. IRD BIKTIMAK DELITU-TIPOLOGIAREN ARABERA (2021, N = 398)



# 1.5

## ARAU-HAUSTE ADMINISTRATIBOEN BANAKETA

Hasieran azaldu den bezala, 2021ean 2 arau-hauste administratibo erregistratu ziren, bata jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legearekin lotuta, zehazki, onartzeko eskubidearekin lotuta, eta bestea uztailaren 11ko 19/2007 Legearen esparruan, kiroleko indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren aurkakoa.

Lehen arau-hauste administratiboari dagokionez, adinaren eremuan kokatzen da, eta Internet bidez egin zen (baina jatetxe-arloko lokal bati dagokionez, egilea pertsona juridikoa zela esan daitekeelarik) 2021eko irailaren 29an (asteazkena), Bilbon.

Bigarren arau-hauste administratiboari dagokionez, ideologiaren esparruan kokatzen da, eta abuztuaren 14an (igandea) gertatu zen, Donostiako bide publikoan. Egileak 24 eta 25 urteko 2 gizon izan ziren, biak Gipuzkoakoak, Donostiakoa eta Lezokoa, hurrenez hurren.

# 1.6

## ONDORIOAK

### 1.6.1.

#### **GORROTO GERTAKARIEN GUZTIZKO KOPURUA**

---

2021ean, delituak izan daitezkeen 279 gorroto-gertakari erregistratu dira Euskadin; horietatik 277 (%99,28) gorroto-delituak dira, eta 2 (%0,72) arau-hauste administratiboak. Hasieran aipatu den bezala, garrantzitsua da azken zifra hori tentuz kontuan hartzea, pandemiak sortutako egoerak bi eremuri eragin baitie, hain zuzen ere kirol-ikuskizunak eta ostalaritzari eta gaueko aisialdiari lotutako onarpen-eskubidea, herritarren erabilera eta gozamina eremu horien gainean mugatu egin delarik, SARS-Cov-2 delakoak eragindako pandemiaren ondorioak arintzeko ezarritako murrizketen ondorioz.

Kontuan hartzen badugu 2016an 124 delitu-gertakari erregistratu zirela, 2017an 129 erregistratu zirela, 2018an 130 identifikatu zirela, 2019an 105 jaso zirela, eta 2020an 241 erregistratu egin zirela gertakariei dagokienez gorakada nabarmena hauteman da azken bi urtetan. Azken urtetako ohiz kanpoko igoera gertatu da gorabehera mota horiek erregistratzeko eta sailkatzeko sistema aldatu eta hobetu delako, bai ikasketa-mailan, bai estatistika-informazioaren xurgapen zentratean.

Hobekuntza hori, aldi berean, fenomenoari buruzko prestakuntza eta ezagutza hobearen emaitza da, eta horri esker, tokian bertan detekzio eraginkorra egin daiteke, kuantitatiboki eta kualitatiboki. Intzidenteen gorakada, beraz, egiaztapen positiboa eta itxaropentsua da; izan ere, argazki erreala goa ateratzea ahalbidetzen du bestela ezkutuan geratuko litzatekeena, azken honek xede-kolektiboen babesgabetasuna eta biktimizazioa ekarriko zituelarik. Gaur egun, Euskadin, poliziaren detekzio-antenak hobetu egin dira eta, korrelatiboki, zigorgabetasuna murriztu egin da.

Nolanahi ere, badirudi iazko gorakadak erregistro orokorreko lurzoru berri batean kokatzen gaituela, eta horrek goranzko joera markatzen jarraitzen duela.

### 1.6.2.

#### **GERTAKARIEN JOMUGAN DAUDEN KOLEKTIBOEN MAPA**

---

Gertakari arrazista edo xenofoboek erregistratutako delituen %58,48 biltzen dute (162 kasu), eta igoera nabarmena izan dute aurreko urteare-

kin alderatuta (+45 intzidente: %38,46). Sexu-orientazioaren eta -identitatearen eremuan delituen % 26,35 dira (73 kasu, aurreko urtean baino nabarmen gehiago; zehazki, +%46); sexuan oinarritutako delituetan, berriz, delituen % 6,14 sartzen dira (17 kasu). Laugarrenik eta bosgarrenik, ideologian eta orientazio politikoan oinarritutako gorroto-delituak ditugu, bai eta biktimaren aniztasun funtzionalean oinarritutakoak ere, zeinek gorroto-delituen %3,61 biltzen baititu (10 kasu). Bestalde, aporofobiaren eremuak (2 kasu) eta sinesmen eta praktika erlijiosoek (3 kasu) erregistratutako delituen %1,81 osatzen dute.

Xede-kolektibo bakoitzaren hazkunde kuantitatiboek, ordea, ez dute nabarmen aldatu kolektiboen mapa, bakoitzak gainerakoen aldean duen pisu erlatiboaren ikuspegitik. Hala, kolektibo etnikoak (arrazakeria, xenofobia, ideologia, orientazio politikoa, sinesmen eta praktika erlijiosoak eta antisemitismoa) era zabalean ulertuta %63,18 ordezkaten du, 2020koa baino pixka bat handiagoa. Aitzitik, kolektibo sexualaren portzentaia ere hazi da, hau ere era zabalean kontuan hartuta (sexu-orientazio eta -identitateagatik eta genero-identitateagatik egindako delituak barne hartuta)<sup>24</sup>, kasuen %32,49 izatera igaro da, hau da, kasuen ia heren bat.

Horrela, kolektiboen mapa aurreko urteetan markatutako koordenatuetan oinarritzen da, berrikuntza bat izanik ideologiak jaitsiera esanguratsua islatzen duena, etorkizuneko bilakaerari itxaron beharko zaiolarik, joera gisa sendotzen dela egiaztatzen iritsi arte. Zentzu horretako balizko joera batek legezko tresnaren doikuntza zorrotz eta desiragarria islatuko luke, kolektibo kalteberen jatorrizko tutoretza-parametroen arabera. Halaber, erregistroko indize baxuagoetara itzuli da desgaitasuna duten pertsonen taldea, eta talde horrek hautemate-maila txikiagoak dituzten kolektiboen taldera itzuli du.

### 1.6.3. DELITU-TIPOLOGIAK

#### I. TALDE NAGUSIAK.

Seigarren txosten honetan lesioak (98 kasu: %35,38), mehatxuak (60 kasu: %21,66) delitu gertakarien bi talde kopurutsuenak bezala mantendu egin dira, hurrengo delitu-taldeengandik nahiko urrun. Biek batera delitu-gertakarien %57,04 hartzen dute, hots, gorroto-maparen erdia baino gehiago. Bestalde, ikus daiteke gorroto diskurtsoak (20 kasu: %7,22) pixka bat egin duela gora, aurreko urtean nabarmen behera egin ondoren.

24. GIZA ESKUBIDEEN ETA BOTERE PUBLIKOEN UNESCO KATEDRA, "Euskadiko gorroto-gertakari

buruzko 2017ko txostena", Eusko Jaurlaritzako-Gobierno Vasco, 2018, 26 eta ss. orr.

## II. INDARKERIAZKO GERTAKARIAK.

Lesioak, talde osoaren heren bat baino gehiago direnak (98 kasu: %35,38), aurreko txostenetan aipatutako moduan, erantzukizun kriminala aldatzen duen Zigor Kodearen 22.4 artikuluko inguruabarrarengatik astunduak izango liratekeen jokoaren erreferentziazko muina izango lirateke. Aurten, indarkeriazko gertakarien erregistroa bildutako kotarik handiena izan da.

Nolanahi ere, ohartarazi behar da larritasun handieneko gorroto-indarkeria (erahilketak, hilketak, lesio larriak, sexu-abusuak, etc.) gure erkidegoan presentzia handiagoa duten zantzuak ematen hasi dela, oraindik ere hasitakoak (gertakari gehienak arinak baitira egun). Gai honen garrantziarengatik, komeni da horrelako gertakariak bereziki begipean edukitzea etorkizuneko txostenetan.

Era zabalean ulertuta, “ekintzen bidezko” delituen burutze dinamikaren antzekoak diren beste delitu batzuekin batera, (gizahilketa n=1; sexu-erasoa n=2; jarkitze eta atentatu delituak: n=4; kalteak n=11; eta ebasketa n=2 gehitu ondoren) delitu itxura duten gertakarien ia %40 (n=92; %37,76) osatzen dute.

Era zabalean ulertuta, “ekintzen bidezko” delituen burutze dinamikaren antzekoak diren beste delitu batzuekin batera (hilketa n=1, sexu-abusua n=4, erresistentzia eta atentatua n=3; kalteak n=12; ebasketa n=4, lapurreta n=4 eta iruzurra n=3) delitu izan daitezkeen gertakarien ia %45,49 (n=129) ematen du.

## III. “HITZEN BIDEZKO” GORROTO DELITUAK ”

(«*hate speech*» zentzu zabalean).

Zentzu hertsian hartutako gorroto delituen kategoriarekin konparatuz (ekintzen bidezkoak), gorrotoaren propaganda gertakariak gehiengoa izaten jarraitzen dute. Mehatxuak (60), gorroto-diskurtsoa zentzu hertsian (20), irainak (10), kalumniak (6) gehituz gero, %34,66 osatzen dute (96), %49,82ra (138) igoz kategoría orokor baino gertukoak gehitzen badizkiogu, adibidez, derrigortzeak (28) eta tratu apalesgarriak (18). Edonola ere, adierazi behar da gertakari horien gehiengoa ez dela aurreko urteetan bezain sendoa, 2020an lortutako ehunekoa baino txikiagoa den ehunekoa lortuz aurten, orain arte lortutako kopururik txikiena.

**Aurreko urteaz geroztik jakinarazi den bezala tratu apalesgarrien kasuen multzoa xehetasunez aztertuz gero, jokabide mehatxagarri, iraingarrien eta umiliagarri/ mespretxuzkoen testuinguruan ematen diren gorroto-gertakariak tokian bertako tipifikazioari buruzko zalantzak islatzen egon daitekeela ondorioztatu daiteke.**

Delitu-mapak, beraz, aurreko urteetan lortutakotik oso urrun dagoen le-  
rro bat marrazten du, aurreko urteetan baino adierazpen-jokabide gutxiago  
baititu, ia 5 5en kontra, lesio portaera edo haien indarkeria periferikoa bai-  
no potentzialki larriagoa den indarkeriekin konparatuz.

Azken horrek adieraz lezake erregistro-sistema doitzuz, orekatuz eta finduz doala, gorroto-diskurtsoa eta zigor-arloko garrantzia izan dezakeen zatia bereizteko gaitasun handiagoarekin. Sistemak delituen erregistroa finkatzen du lesioen egitateekin eta horien “ingurunearekin”, batez ere, gertakariak “hitzez” atzemateko orduan gehiegizko sentikortasunaren aurrean. Hala ere, goiz da joera bat ikusteko, datu horrek txostenen historian duen aldakortasuna kontuan hartuta.

#### 1.6.4.

#### **DENBORA- ETA ESPAZIO-BANAKETA, ESKUALDE MAILAKO BANAKETA, EGOTZIAK, ATXILOTUAK ETA BIKTIMAK**

Seigarren urtez jarraian, Bizkaian biltzen dira gorroto-delitu gehienak (%52,71). Udalerriri dagokionez, delituak batez ere Bilbon (%16,61) eta Gasteizen (%12,64) erregistratu dira. Ildo horretan, lurralde historikoko gainerako hiriburua ere nabarmentzen da, Donostia (%5,78) eta baita Irun, Gipuzkoako udalerrria (%11,55). Nolanahi ere, deigarria da Gipuzkoako hiriburuan erregistroen kopuru txikia izatea. Komisio-lekuari erreparatuz, hiri-bide publikoan (%39,71) egiten dira gorroto-delitu gehien, eta, ondoren, etxebizitzan (%16,61).

Denbora-banaketari dagokionez, gertakari gehienak larunbatean (%18,77), asteartean (%18,05) eta igandean (%16,25) gertatzen dira, eta arratsalde-gauean kontzentratzen dira (%63,18).

Egotzitako pertsona gehienak, 156, espainiarrak dira (%65,82), eta horietatik %81,41 EAEkoak dira, batez ere Bizkaikoak (%42,95). Atzerritar jatorriko egotzien artean (%34,18) Afrikatik (%35,8) eta Latinoamerikatik (%48,14) etorritakoak nabarmentzen dira. Udalerrri mailan, egotzitako pertsona gehienak lurralde historikoetako hiriburuetatik datoz: Bilbo (n=23), Donostia (n=30) eta Gasteiz (n=11).

Bestalde, 2021ean 21 atxilotu izan ziren, aurreko urtearen erdia baino gutxiago. Gehienak nazionalitate espainiarreko gizonak ziren (%52,38), eta gehienak Euskaditik zetozen (% 81,81, 3 lurralde historiko bakoitzeko).

Biktimen %50.25 espainiarrak dira, eta %78.5 Euskadikoak. Atzerritar jatorriko biktimei dagokienez (%49,74), Latinoamerikatik eta Afrikatik etorritako biktimak dira ugariak (biktima guztien %22,86 eta %16,83, hurrenez hurren). Euskaditik datozen biktima gehienak Bizkaikoak dira, batez ere Bilbokoak (%10,55) eta Gasteizkoak (%5,23).

### 1.6.5.

#### **EUSKADIKO GORROTO MAPA ESTATU MAILAKO TESTUINGURUAN**

---

##### **I. DATU OROKORRAK ETA HELBURU DIREN KOLEKTIBOAK.**

2021. urtean zehar 277 gorroto delitu erregistratu ziren Euskadin. Estatu osoko datuei erreferentzia eginez, Gorroto Delituekin lotutako Gertakarien Bilakaeraren gaineko 2020ko Txostena<sup>25</sup> abiapuntutzat hartuta Estatu osoko polizia-instantzietara iritsi ziren gorroto delitu guztien %15,8 Euskadin burutuak izan ziren (221 gertakari, 2019an erregistratu zirenen bikoitza). Ildo honetatik, datu hauek testuinguruan kokatzeko, 2021. urtearen bukarean, Euskadik 2.213.993 biztanle zituen – Bizkaia (1,15M biztanle, Gipuzkoa (0,73M biztanle) y Araba (0,33M biztanle) – Espainiako 47. 326.687 (INE, 2022) biztanletatik.

Ondorioz, Euskadin erregistratutako datuek, orain arte nahiko egonkorrak izan direnek, agerian uzten dute fenomenoaren detekzioari dagokionez gorakada nabarmena izan dela; joera hori Barne Ministerioak azken urtean bildutako Estatuko datuek islatzen hasi direlarik.

Bestalde, azpimarratu behar da Barne Ministerioaren txostenak Estatuan burututako arau-hauste administratiboak ere jasotzen dituen bigarren urtea dela: 2020an 67 izan zirenak.

Espainiaren kasuan, 2020an, kategoria nagusiek, ideologiak eta arrazakeriak/xenofobiak, erregistratutako 1.334 gertakarien ia bi heren biltzen dituzte (%60,8), eta joera hori Euskadin duten baliokide orokorraren parekotzat jo daiteke. Hala ere, gertakarien kolektiboen arabera banaketa-mapari dagokionez, harrigarria da eragin gehien jasan duten xede-taldeak ez etortzea bat bi kasuetan: Euskadin arrazismoa eta xenofobia dira nagusi, argi eta garbi, gertakarien %58,48 kontzentratuz, eta, ondoren, sexu-orientazioa eta -identitatea daude, delituen %26,35 osatzen dutenak; Espainian, aldiz, arrazakeria eta xenofobia dira gehien erasandako kategoriak (%34,6), ideologiak sexu-orientazioa eta -identitatea gairatzen duen bitartean, delituen %23,3 biltzen baitu, baina kolektibo horrek gertutik jarraitzen dio, kasuen %19,8 biltzen baitu. Euskadin, ideologiak kasuen %3,61 baino ez ditu hartzen, eta hori joera bereizgarri argia da estatuko eremuarekiko.

Aurreko urtearekin erkatuz, Estatu mailako Barne Ministerioaren txostenean kategorien erdiak baino gutxiago beherako gutxi gora-beherako joera izan dute aurreko urtearekin konparatuz, sexu/generoagatik diskriminazioa, antisgitanismoa, gaixotasunagatik diskriminazioa eta belaunaldi arteko diskriminazioa izan ezik, zeinak hazi egin diren, bai eta sexu-orientazioa eta

---

25. MINISTERIO DEL INTERIOR, "Informe sobre la evolución de los incidentes relacionados con los deli-

tos de odio en España 2021", Ministerio del Interior - Gobierno de España, 2020, 54 orr.



-identitatea, egonkor mantentzen dena. Euskadi mailan, ordea, hazkunde handiena izan duten kategoriak sexu-orientazio eta identitatea (50 gertakaritik 73 gertakaritara igaroz), arrazismoa-xeofobia (117 gertakaritik 162 gertakaritara igaroz), sinesmen eta praktika erlijiosoak (2 gertakaritik 3 gertakaritara igaroz), eta sexua (16 gertakarietatik 17 gertakaritara igaroz). Bestalde, aporofobia egonkor mantendu da, eta dibertsitate funtzionalaren eta ideologia eta politika-orientazioaren kategoriek beherakada nabarmena izan dute (19 gertakaritik 10 gertakaritara eta 14 gertakaritik 10 gertakaritara igaroz, hurrenez hurren).

Ondorioz, esan daiteke bi txostenetan biktimizatuena izan ziren kolektiboak arrazismoa/xenofobia, ideologia eta sexu-orientazio eta -identitatea direla, nahiz eta oso kopuru desberdinekin; aldiz, biktimizazio eskasa erregistratu da aporofobia, eta sinesmen eta praktika erlijiosoekin lotuta.

## II. DELITU-TIPOLOGIAK.

Delitu-tipologiei dagokienez, bi txostenetan, lesioak (%18,8 Espainian eta %35,38 Euskadin) eta mehatxuak (%23,3 Espainian eta %21,66 Euskadin) gailentzen diren tipologia dira. Estatu mailan, neurri txikiagoan bada ere, kalteak (%8,1) eta irainak (%5,5) gailentzen dira, Euskadi mailan derrigortzeak (%10,11), tratu apalesgarria (%6,5) eta gorroto-diskurtsoa (%7,22) gailentzen diren bitartean.

## III. BESTE BATZUK: BIKTIMAK, ERASOTZAILEAK, BANAKETA ESPAZIO-TENPORALA ETA AGERTOKIA.

Biktimaren profil demografikoari erreparatuz, bi txostenetan gehienak gizonak izan ziren (%59 Espainian eta %57,79 Euskadin), 18 eta 50 urte artekoak (kasuen bi herenak baino gehiago, %72,7 Espainian eta %68,09 Euskadin). Jatorrizko lekuari erreferentzia eginez, harrigarria da Espainia mailan biktimen %65,9 espainiarrak izatea, Euskadi mailan kopuru hau %50,25ra modu nabarian murrizten den bitartean, zeinetatik %78,5 Euskaditik zetozen. Bestalde, atzerritarak diren biktimei dagokienez, bi kasuetan biktimizazio gehien jasan duten kolektiboak Afrikatik datozen pertsonak (%14,5 Espainian eta %16,83 Euskadin) eta Amerikatik datozen pertsonak (%11,1 Espainian eta %22,86 Euskadin) izan ziren.

Erasotzaileen profil demografikoa aztertuz gero, bai Espainia mailan bai Euskadi mailan, gorroto gertakarien erasotzaileak batez ere gizonak (%81,5 Espainian eta %77,13 Euskadi), gazte helduak (Espainian %52,8a eta Euskadin %45,34a 40 urtetik beherakoak ziren) eta espainiar nazionalitatekoak (%77,4 Espainian eta %64,73 Euskadin) izan ziren.

Gertakari hauen banaketa espazio-tenporalari erreparatuz, Barne Ministerioaren Txostenak islatzen du ekainan eta uztailan burutu zirela mota honetako gertakari gehienak, 158 y 148 gertakariekin, hurrenez-hurren. Euskadin, ordea, iraila eta abendua izan ziren gertakari gehien erregistratu zituzten

hilabeteak, lehena 46 gertakariekin, eta bigarrena 34 gertakariekin.

Bestalde, bai Espainian bai Euskadin, gertakari gehienak bide publikoan kokatzen dira (%26,5 Espainian eta %39,71 Euskadin). Eremu pribatuan, berriz, neurri txikiagoan bada ere, etxebizitzak nabarmentzen dira (%22,5 Espainian eta %16,61 Euskadin) gertakari horien agertoki moduan. Nabarmentzekoa da ez Espainian ez Euskadin Internet ez izatea agertokia kopuru handiago batean.

Azken gogoeta bat. Estatua v. Euskadiren arteko urtero egin izan den konparaketa Barne Ministerioaren txosteneko erabilgarri zituen datuekin egin izan da. Txosten hori aurreko urtekoa denez, jauzi “estrukturala” eragiten du beti, urte desberdinak direlako. Aurten gerta daitekeen distortsio hori, aurrekoa bezain nabarmena ez bada ere, oso nabarmena da kontuan hartzen badugu pandemiaren hasiera eta 2021eko egoera pandemikoa aldi oso desberdinak direla. Hala eta guztiz ere, gure ustez, emandako informazioa oraindik ere baliagarria da, txosten honen historiaren hasieratik alde-  
ratzeko metodologia berdin mantentzen baita.

# 02



**Datu ofizial  
eguneratuen  
esparru konparatua**

Nazioarteko joeren eta joera konparatuen azterketak<sup>26</sup> aukera ematen du gaiaren egoera eta etxeko ahaleginen balizko aurrerapena testuinguruan jartzeko eta modu egokiagoan neurtzeko. Jarraian, beraz, eskura dauden datu guztiak biltzen dira, gure kultura juridikoaren arloko herrialde garrantzitsu batzuek polizia-erregistroaren jarduera ez ezik haren trazabilitatea identifikatzeko egindako ahaleginak erakusteko. Aurreratu daiteke trazabilitate osoko agertoki ideal bat oraindik ezin dela eskaini aztertzen ari diren herrialdeetako bati dagokionez. Baina, aldi berean, agerikoa da norabide horretan egindako bide bat dutela, deskribatzea komeni dena, etorkizuneko eredia markatzen baitu.

## 2.1

# ERRESUMA BATUA

### 2.1.1. ERREALITATE ENPIRIKOA, OSCETIK ATERATAKO DATUEN ARABERA

Europako Segurtasun eta Lankidetzarako Erakundeak (OSCE/ODIHR) Erresuma Batuko gorroto-delituei buruz darabilen estatistika-informazio berriena 2020koa da<sup>27</sup>, herrialde horretako agintari nazionalak erakundeari berari emandako datuen iraulketaren arabera. Guztira, **125.848 gorroto-delitu** erregistratu dituzte polizia-erakundeek. 125.848 gorroto-delituetatik 124.091 Ingalaterra eta Galesekoak dira (% 98,60) eta 1.757 Ipar Irlandakoak (% 1,40), Eskozia alde batera utzita. Adierazten den bezala, poliziak jasotako gorroto-delituen erdiak baino gehiago ordena publikoko delituak dira (public order offences). Hala ere, aurreko ñabardura hori alde batera utzita, delitu-kategoria zehatzak ez daude zehaztuta, eta, beraz, ez da horri buruzko daturik ematen.

26. Ikus, GIZA ESKUBIDEEN ETA BOTERE PUBLIKOEN UNESCO KATEDRA, "Euskadiko gorroto-gertakariei buruzko 2020ko txostena", Eusko Jaurlaritzako-Gobierno Vasco, 2018, op. Cit., 79-82. orr.

27. On line bidezko sarbidea: <https://hatecrime.osce.org/united-kingdom>

Egilearen motibazioei dagokienez, Ingalaterra-Gales eta Ipar Irlandari buruzko datu bereziak daude. Zehazki, 131.466 motibazio daude kontabilizatutako gorroto-delituetan nahastuta. Aurreko urtearekin alderatuta, % 20,17ko igoera izan da, baina lehen aldia da OSCE/ODIHRrek mota horretako datuak ematen dituen, Ipar Irlanda barne, zenbaketa orokorrean. Jarraian datorren sailkapenak polizia ingelesak, galestarrak eta ipar irlandarrak erregistratutako gorroto-delituetan dauden motibazioen kopurua ordenatzen du, agerpenaren prebalentzia handienetik txikienera:

**ARRAZAKERIA ETA XENOFOBIA (92.771; % 70,57).**

Aurreko urtearekin alderatuta, %21,95eko igoera izan da. Erregistratutako motibazioen kopuru horretatik, 92.052 Ingalaterran eta Galesen erregistratu ziren (% 99,22) eta 719 Ipar Irlandan (% 0,77).

**LGTBIren AURKAKOA (21.675; % 16,49).**

Aurreko urtearekin alderatuta, % 17,96ko igoera izan da. Erregistratutako motibazioen kopuru horretatik, 21.395 Ingalaterran eta Galesen erregistratu ziren (% 98,71) eta 280 Ipar Irlandan (% 1,29). Ingalaterran eta Galesen erregistratutako artean, 18.596 sexu-orientazioan oinarritutako aurreiritziengatik izan ziren (%86,92), eta 2.799 transfobiarengatik (% 13,08). Ipar Irlandan erregistratutako artean, berriz, 246 sexu-orientazioan oinarritutako aurreiritziengatik izan ziren (% 87,86), eta 34 transfobiarengatik (% 12,14).

**DESGAITASUNA (9.943; % 7,56).**

Aurreko urtearekin alderatuta, % 17,40ko igoera izan da. Erregistratutako motibazioen kopuru horretatik, 9.885<sup>28</sup> Ingalaterran eta Galesen erregistratu ziren (% 99,42) eta 58 Ipar Irlandan (% 0,58).

**MUSULMANEN AURKAKOA (2.703; % 2,06).**

% 12,50eko jaitsiera izan da aurreko urtearekin alderatuta. Oro har, OSCE/ODIHR erakundeak jaso ahal izan duenez, Erresuma Batuan erlijioaren aurkako motibazioen kopura 6.377koa da, kontuan hartuta musulmanen aurkakoak (2.703; % 42,39), antisemitak (1.288; % 20,20), kristauen aurkakoak (521; % 8,17) eta beste erlijio edo sinesmen batzuei buruzkoak (2.565; % 40,22). Musulmanen aurkako aurreiritziaren kasuan, zifra hori Ingalaterrako eta Galesko polizia-indarretatik lortu da oso-osorik, eta, beraz, ez dago Ipar Irlandari buruzko daturik.

**BESTE ERLIJIO EDO SINESMENAK (2.565; % 1,95).**

Aurreko urtearekin alderatuta, % 54,33ko igoera izan da. Erregistratutako

28. OSCE/ODIHRrek emandako informazioan egon daitekeen akats bat zuzendu da; izan ere, Ingalaterra eta Galesi emandako kopurua erregistratutako motibazioen zenbaketa orokorraren berdina da (9.943).

motibazioen kopuru horretatik, 1.865 Ingalaterran eta Galesen erregistratu ziren (% 72,71) eta 700 Ipar Irlandan (% 27,29). Ingalaterrari eta Galesi buruzko 1.865 motibazioek osatzen dituzte, besteak beste, honako hauek: 650 motibazio «beste erlijioen» aurka (*other religions*); 174 «ez-fededunen» aurka (*non-believers*); eta 926 motibaziotan «ez dago zehaztuta xede-erlijioa» (*nospecified targeted religion*). Ipar Irlandaren kasurako datuen banakapena ezezaguna da.

#### **ANTISEMITISMOA (1.288; % 0,98).**

Aurreko urtearekin alderatuta, % 6,89ko igoera izan da. Ingalaterrako eta Galesko polizia-indarrek 1.288 motibazio erregistratu dituzte eta, beraz, ez dago Ipar Irlandari buruzko daturik.

#### **KRISTAUEN AURKAKOA (521; % 0,40).**

% 1,88ko jaitsiera izan da aurreko urtearekin alderatuta. Ingalaterrako eta Galesko polizia-indarrek 521 motibazio erregistratu dituzte eta, beraz, ez dago Ipar Irlandari buruzko daturik.

Poliziak erregistratutako gorroto-delituak alde batera utzita, OSCE/ODIHR erakundeak **16.824 gorroto-delitu prozesatu** ditu, hau da, % 19,68ko igoera aurreko urtearekin alderatuta. Zehazki, 10.969 Ingalaterrari eta Galesi dagozkie (% 65,20), 5.525 Eskoziari (% 32,84) eta 330 Ipar Irlandari (% 1,96). Gorroto-delituengatik kondenei dagokienez, Ingalaterran eta Galesen 9.510 daude, aurreko urtean baino %1,82 gehiago. Hain zuzen ere, aurreko urtean bezala, ez dago Eskoziari eta Ipar Irlandari buruzko daturik.

### **2.1.2.**

#### **BESTE DATU BATZUEN EGUNERATZEA: ESKOZIA<sup>29</sup>**

Eskoziako poliziak **6.448 gorroto-delitu** erregistratu zituen 2019/20an<sup>30</sup>, aurreko urtean baino % 1,91 gehiago. Horietatik, 3.969 gorroto-delitu arrazagatiko astuntzea barne hartuta zuten (% 61,55), 1.314 sexu-orientazioagatiko astuntzea (% 20,38), 501 erlijioagatiko astuntzea (% 7,77), 301 astuntze anizkoitza (% 4,69), 267 desgaitasunagatiko astuntzea (% 4,14) eta 96 identitate transgeneroagatiko astuntzea (% 1,49).

Delitu-tipologiaren arabera, «jokabide mehatxagarri edo iraingarri» gisa

29. Ikusi, zentzu honetan, Ikus, GIZA ESKUBIDEEN ETA BOTERE PUBLIKOEN UNESCO KATEDRA, "Euskadiko gorroto-gertakariak buruzko 2020ko txostena", Eusko Jaurlaritzako Gobierno Vasco, 2018, op. Cit., 79-82. orr.

30. Xehetasunez, datu hau eta ondoren garatuko diren beste batzuk aztertzeko, ikus: SCOTTISH GOVERNMENT, "A study into the characteristics of police recorded hate crime in Scotland", Justice Analytical Services (Scottish Government), 2021.

erregistratutako gorroto-delituak nabarmentzen dira (*threatening or abusive behaviour*), gorroto-delitu guztien erdia baino gehixeago biltzen baitute (3.301; % 51,19). Jarraian, «arrazagatik astundutako jokabidea» (*racially aggravated conduct*)<sup>31</sup> nabarmentzen da, gainerakoen gainetik (1.054; % 16,35). Azkenik, eraso arruntaren delitua (*common assault*) nabarmendu behar da, gorroto-delitu gisa erregistratutako gainerako delituetatik kuantitatiboki urrun baitago (752; % 11,66). Aipatutako kategoriak delituen edo *offences*-en modalitateak dira<sup>32</sup>. Zehazki, 2020/21ean 240.174 *offences* erregistratu ziren Eskozian<sup>33</sup>. Arrazagatik astundutako jokabideari dagokionez, 2020/21 urteari buruzko datuen arabera, 1.706 polizia-erregistro daude, baina 76 baino ez arrazagatik astundutako jazarpen-erregistroak (*racially aggravated harassment*)<sup>34</sup>.

Eskoziako Fiskaltzari (*Crown Office and Procurator Fiscal Service* edo, siglengatik, COPFS)<sup>35</sup>, eskoziar polizia edo beste agentzia batzuek egindako inputazioen kopurua % 4 igo da aurreko urtearekin alderatuta. 2020/21ean **5.525 egozpen izan ziren gorroto-delituengatik**<sup>36</sup>, 2019/20an, aldiz, 5.219. Egozpen horietan<sup>37</sup> jasotako aurreiritzizko astungarrien kopuruagatik, honako hauek aurkitzen ditugu: arraza (3.285 egozpen astunduak); sexu-orientazioa (1.580 egozpen astunduak); erlijioa (573 egozpen astunduak); desgaitasuna (448 egozpen astunduak); eta genero-identitatea (46 egozpen astunduak).

Arrazagatik astundutako jazarpen eta jokabide (*racially aggravated harassment and behaviour*) delituak 1.245 egozpen hartzen ditu, arrazagatik astunduak (% 38). Arrazagatik astuntzea dakarten beste delitu batzuei lotutako gainerako 2.040 egozpenak, hala nola jokabide mehatxagarria edo iraingarria (*threatening or abusive behaviour*) edo eraso-delitua (*assault*), guztizkoaren % 62 dira.

31. Zehazki, modu batean jardutea zigortzen da, edozein adierazpen-modalitate barne hartzen duena, arraza-arazoengatik astundua datorrena eta pertsona bati alarma edo estres larria eragiten diona edo eragiteko asmoa duena.

32. Gogoratu crime erabiltzen dela horrelako txostenetan, larritzat jotzen diren zigor-zuzenbideko urraketek dagokienez (adibidez: homizidioa edo eraso larria); offence, berriz, larritasun txikiagoko beste batzuetan erabiltzen da (adibidez: ordena publikoaren nahas-mendua edo jazarpena). Larritasunaren irizpidea ezar daitekeen gehieneko kondenarekin lotuta egongo da.

33. Aldiz, delituak edo crimes guztira 246.511 izan ziren 2020/21ean. Xehetasunez, ikus: SCOTTISH GOVERNMENT, "Recorded crime in Scotland, 2020-21", Scottish Government, 2021, 10., 50., 79. eta 81. Orr.

34. SCOTTISH GOVERNMENT, "Recorded...op. cit., 54. eta 97. Orr.

35. Gogoratu ez direla inputatutako pertsonen kopurua edo egozpen horien oinarri diren gertakarien kopurua, baizik eta ematen diren gorroto-delituenga-

tiko egozpenen kopurua (hate crime charges). Beraz, pertsona bakar batek kargu bat edo gehiago ekarri ahal izango ditu berarekin. Era berean, kontuan hartu behar da egozpen bakoitzak alde aurreko astuntze bat baino gehiago ekar ditzakeela, eta, beraz, datuak kategorian babestuaren arabera banakatzeko orduan, egozpen bakarra konputatuko da, tartean dauden kategoriak adina aldiz (adibidez: biktima beltz eta homosexual bat arraza-egozpen gisa eta sexu-orientazioagatik egozpen gisa).

36. Jarraian garatuko diren datuentzat eta datu honentzat, ikus: CROWN OFFICE & PROCURATOR FISCAL SERVICE, "Hate crime in Scotland 2020-21", COPFS, 2021.

37. Hala ere, adierazten denez, gorroto-delituengatik 5.525 egozpenen artean, % 59k gutxienez arraza-astuntze bat zuen, % 29k sexu-orientazioari buruzko bat, % 10ek erlijioari buruzkoa, % 8k desgaitasunari buruzkoa eta % 1ek identitate transgeneroari buruzkoa.

Azkenik, komeni da ikustea zenbat egozpenek eragiten duten fiskalek jarduketa judizialak hasteko erabakia hartzea (Court proceedings). Kategoriararen arabera, honako hau esan dezakegu:

- Arrazari buruzko 3.285 inputazioetatik 2.664 (% 81,09) judizializatu egin ziren azkenean. Gainera, beste 254 inputaziotan (% 7,73) jatorrizko akusazioa bertan behera geratu zen, baina akusatu beraren aurkako beste inputazio bat egon zen, eta kasu berean, lehen inputazioan jasotako informazioa erabili ahal izan zuen. Nahi izanez gero, termino erlatiboa-goetan bada ere, 2.918 egozpenez (% 88,83) hitz egin daiteke, eta horiek, nolabait, jarduketa judizialetera bideratu dira. Era berean, beste 43 inputaziotan (% 1,31) oraindik ez dakigu zein izango den hartu beharreko azken erabakia, nola jokatu zehazteko ikerketa- eta/edo balorazio-fasean baitago.
- Sexu-orientazioari buruzko 1.486 inputazioetatik, 1.299 (% 82,21) judizializatu egin ziren azkenean. Gainera, beste 118 inputaziotan (% 7,47) jatorrizko akusazioa bertan behera geratu zen, lehen aipatutako balizko ondorioekin. Beraz, 1.417 inputazio (% 89,68) jarduketa judizialetera bideratu dira. Era berean, beste 13 inputaziotan (% 0,82) oraindik ez dakigu zein izango den hartu beharreko azken erabakia.
- Erljioari buruzko 573 inputazioetatik 463 (% 80,80) judizializatu egin ziren azkenean. Gainera, beste 49 inputaziotan (% 8,55) jatorrizko akusazioa bertan behera geratu zen, lehen aipatutako balizko ondorioekin. Beraz, 512 inputazio (% 89,35) jarduketa judizialetera bideratu direla esan daiteke. Era berean, beste 5 inputaziotan (% 1,12) oraindik ez dakigu zein izango den hartu beharreko azken erabakia.
- Desgaitasunari buruzko 448 inputazioetatik 368 (% 82,14) judizializatu egin ziren azkenean. Gainera, beste 28 inputaziotan (% 6,25) jatorrizko akusazioa bertan behera geratu zen, lehen aipatutako balizko ondorioekin. Beraz, 396 inputazio (% 88,39) jarduketa judizialetera bideratu direla esan daiteke. Era berean, beste 5 inputaziotan (% 1,12) oraindik ez dakigu zein izango den hartu beharreko azken erabakia.
- Azkenik, identitate transgeneroari buruzko 46 inputazioetatik 32 (% 69,56) judizializatu egin ziren. Gainera, beste 5 inputaziotan (% 10,87) jatorrizko akusazioa bertan behera geratu zen, lehen aipatutako balizko ondorioekin. Beraz, 37 inputazio (% 80,43) jarduketa judizialetera bideratu direla esan daiteke. Era berean, beste 2 inputaziotan (% 4,35) oraindik ez dakigu zein izango den hartu beharreko azken erabakia.

2019/20an, 85.726 pertsonaren aurkako karguak aurkeztu ziren Eskozian,



eta horrek 75.251 kondena ekarri zituen<sup>38</sup>. Horien guztien artean, **595 kondenak arrazagatiko astundua/adierazlea dute**<sup>39</sup> (% 5,41eko jaitsiera 2018/19arekin alderatuta), **420 sexu-orientaziokoa** (% 17,98ko igoera), **230 erlijiokoa** (% 12,75eko igoera), **87 desgaitasunekoa** (% 2,25eko jaitsiera) eta 14 transgenerokoa (% 100eko igoera).

471 kondenatan, arrazagatiko astundua/adierazlea hautematen zaion pertsona gizonezkoa da (% 79,16), eta 124 kondenatutan, berriz, emakumezkoa (% 20,84). Sexu-orientazioagatiko astundua/adierazleari dagokionez, 353 gizon (% 84,05) eta 67 emakume (% 15,95). Erlijioagatiko astundua/adierazleari dagokionez, 203 gizon (% 88,26) eta 27 emakume (% 11,74). Desgaitasunagatiko astundua/adierazleari dagokionez, 66 gizon (% 75,86) eta 21 emakume (% 24,14). Transgeneroagatiko astundua/adierazleari dagokionez, 12 gizon (% 85,71) eta 2 emakume (% 14,28).

Aurreko astuntze/adierazleren bat jasotzen duen delitu-tipologiaren arabeko banaketari dagokionez, kondena gehienak delitu multzo batean daude (*miscellaneous offences*). Horien artean, kategoria nagusiak –*breach of the peace*, etc. izenekoak– honako hauek barne hartzen ditu: ordena publikoa asaldatzea (*breach of the peace*), jokabide mehatxagarria edo iraingarria (*threatening or abusive behaviour*), jazarpena (*stalking*), futboleko jokabide iraingarria (*offensive behaviour at football*) eta komunikazio mehatxagarriak (*threatening communications*) izango lirake. Hemen islatutako delitu- multzo hori arrazaren astuntze/adierazlea duten kondena guztien 410 kondena dira (% 68,91), sexu-orientazioaren astuntze/adierazlea duten kondena guztien 363 kondena (% 86,43), erlijioaren astuntze/adierazlea duten kondena guztien 202 kondena (% 87,83), desgaitasunaren astuntze/adierazlea duten kondena guztien 72 kondena (% 82,76), eta transgeneroaren astuntze/adierazlea duten kondena guztien 9 kondena (% 64,28).

38. Zehaztasunez, jarraian garatuko diren datu hau eta beste batzuentzat, ikus: SCOTTISH GOVERNMENT, "Criminal proceedings in Scotland 2019-20", Justice Analytical Services (Scottish Government), 2021.

39. Kontuan izan behar da jasotzen diren datuek legez jasotako eta egoitza judizialean frogatu eta baloratu diren astuntzeak ez ezik, desgaitasunari, arrazari, erlijioari, sexu-orientazioari edo identitate transgeneroari buruzko beste adierazle batzuk ere jasotzen dituztela, inputazioaren baten testuingurua hobeto ulertzen laguntzen dutenak, eta delituaren izaera zehazteko

giltzarri izan daitekeen informazioa gehitzen dutela. Criminal History System (CHS) izeneko datu-basean, polizia eta fiskaltzak edozein unetan sar ditzakete adierazle horiek. Beraz, ondorengo datuek astuntze eta identifikatzaileen bolumen homogeneoa adierazten dute. Era berean, nabarmendu behar da delitu batengatik (crime/offence) ezarritako kondena bati astuntze/adierazle bat baino gehiago lotzen bazaio (adibidez, arraza eta erlijioa), bi astuntze/adierazle horiek zenbatuko direla.

### 2.1.3.

#### BESTE DATU BATZUEN EGUNERATZEA: IPAR IRLANDA<sup>40</sup>

Ipar Irlandako Polizia Zerbitzuak (*Police Service of Northern Ireland*, edo siglen arabera, PSNI) argitaratutako azken urteko txostenak, Ipar Irlandako poliziak berak 2020ko urriaren 1etik 2021eko irailaren 30era arte erregistratutako gorrotoak eragindako gertakari edo delitu guztiak jasotzen ditu<sup>41</sup>. Datu horiek aurrerago garatuko badira ere, aurreratu behar da 2020/21ean **2.982 gorroto-gertakari** zenbatu zirela (% 31,02ko igoera 2019/20arekin alderatuta), eta **gertakari horiekin lotuta 2.099 delitu** erregistratu zirela guztira (% 34,29ko igoera 2019/20arekin alderatuta).

*Motibazio arrazistari* dagokionez, 1.231 gorroto-gertakari zenbatu ziren, eta gertakari horiei lotuta 864 delitu erregistratu ziren. Xehetasun gehiagorekin aztertuz, 1.231 gorroto-gertakari arrazistetatik, poliziak 730 erregistratu zituen delitu baten edo gehiagoren burutzearekin lotuta (% 59,30), eta 501, berriz, inguruabarretatik inongo deliturik ondorioztatu gabe (% 40,70)<sup>42</sup>. 864 delitu arrazistei dagokienez, poliziak 2020/21ean erregistratu zituen delitu guztien %0,9 dira. Horietatik 514 delitu pertsonaren aurkako indarkeria-delituen kategorian sartzen dira (*violence against the person offences*), hau da, % 59,49; 336 lapurreta (bizilekua bortxatuz egindako lapurreta barne) eta kalteen delituen kategorian (*theft [including burglary] & criminal damage*), hau da, % 38,89; eta 14 delitu, berriz, gaineko delituen kategorian orokorrean sartzen dira (*all other offences*), hau da, % 1,62. Gertakari eta delitu horietatik asko (1.231 gertakarietatik 524, % 42,57; eta 864 delituetatik 361, % 41,78) Belfast hirian gertatu ziren. Gorroto delitu arrazistaren biktimaren jatorri etnikoaren arabera (*ethnicity*), guztira delitu arrazistetan parte hartu duten 801 pertsonetatik, 312tan biktima zuria zen (*White*; %38,95), 192tan ez zen etnia edo pertsona eza gutzen (*Ethnicity Missing/Unknown Person*; %23,97), 107tan asiarra (*Asian*; % 13,36), 99tan beltza (*Black*; % 12,36) eta 91tan mistoa edo beste bat zen (*Mixed/Other*; % 11,36). Biktimaren nazionalitatearen arabera (jakina denez, ez du zertan beti bat etorri bere jatorri etnikoarekin), Erresuma Batua eta Irlandakoa (173; % 21,60), Poloniakoa (81; % 10,11) eta Errumaniakoa (27; % 3,37) nabarmentzen dira.

*Motibazio sektarioari* dagokionez, 1.102 gorroto-gertakari zenbatu ziren, eta gertakari horiei lotuta 802 delitu erregistratu ziren. Xehetasun gehiagorekin aztertuz, 1.102 gorroto-gertakari sektarioetatik poliziak 714 erregistratu zituen delitu baten edo gehiagoren burutzearekin lotuta (% 64,79), eta 388, berriz, inguruabarretatik inongo deliturik ondorioztatu gabe (% 35,21)<sup>43</sup>. 802 delitu sektarioei dagokienez, poliziak 2020/21ean erregistratu zituen delitu guztien % 0,8 dira. Horietatik 433 pertsonaren aurkako indarkeriazko delituen kategorian sartzen dira, hau da, % 53,99; 343 lapurreta (bizilekua bortxatuz egindako lapurreta barne) eta kalteen kategorian, hau da,

40. Atal honetan jasotakoaz gain, ikus, halaber, Ipar Irlandako gorroto-gertakarien ibilbidearen datu eguneratuak dituen laburpen bat: ALLEN/ZAYED, "Hate crime... op. cit., 50-52. Orr.

41. Aurrerantzean, PSNI, "Incidents and crimes with a hate motivation recorded by the Police in Northern Ireland. Update to 30th September 2021", Police Service of Northern Ireland (PSNI) Statistics Branch, 2021 - ean jasotako datu estatistikoaren zerrenda emango da. Kontuan izan behar da txosten hau hiru hilean behin egiten dela, eta azaera bereko aurreko txostenak ordezten dituela. Era berean, urteko txosten bat ere egiten da - pixka bat zehatzagoa azterketan (adibidez, biktimaren adina eta sexua) -, 2021eko azaroan argitaratu dena, eta azken urte fiskalean (financial year) lortutako datuetan oinarritzen dena, hau da, 2020ko apirilaren 1etik 2021eko martxoaren 31ra. Azken txosten honi ere aipamen puntualak egingo zaizkio: PSNI, "Trends in hate motivated incidents and crimes recorded by the Police in Northern Ireland 2004/05 to 2019/20", Police Service of Northern Ireland (PSNI), 2021.

42. Urteko argitalpen-txostenaren arabera (2020ko apirila-2021eko martxoa), 993 gorroto-gertakari arrazista zenbatu ziren, eta gertakari horiekin lotuta 719 delitu erregistratu ziren. 993 gorroto-gertakari arrazistetatik, 616 erregistratu zituen delitu baten edo gehiagoren burutzearekin lotuta (% 62,03), eta 377, berriz, inguruabarretatik inongo deliturik ondorioztatu gabe (% 37,96).

43. Urteko argitalpen-txostenaren arabera (2020ko apirila-2021eko martxoa), 366 gorroto-gertakari sektario zenbatu ziren, eta gertakari horiei lotuta 246 delitu erregistratu ziren. 366 gorroto-gertakari sektarioetatik, poliziak 204 erregistratu zituen delitu baten edo gehiagoren burutzearekin lotuta (% 55,74), eta 162 berriz, inguruabarretatik inongo deliturik ondorioztatu gabe (% 44,26).

% 42,77; eta 26 gainerako delituen kategoria orokorrean sartzen dira, hau da, % 3,24. Gertakari eta delitu horietako asko (1.102 gertakarietatik 348, % 31,58; eta 802 delituetatik 262, % 32,67) Belfast hirian gertatu ziren.

*Motibazio homofoboari* dagokionez, 401 gorroto-gertakari zenbatu ziren, eta gertakari horiei lotuta 265 delitu erregistratu ziren. Xehetasun gehiagorekin aztertuz, 401 gorroto-gertakari homofoboetatik, poliziak 218 erregistratu zituen delitu baten edo gehiagoren burutzearekin lotuta (% 54,36) eta 183, berriz, inguruabarretatik inongo deliturik ondorioztatu gabe (% 45,63)<sup>44</sup>. 265 delitu homofoboari dagokionez, poliziak 2020/21ean erregistratu zituen delitu guztien %0,3 dira. Horietatik 211 pertsonaren aurkako indarkeriazko delituen kategorian sartzen dira, hau da, % 79,62; 47 lapurreta (bizilekua bortxatuz egindako lapurreta barne) eta kalteen kategorian, hau da, % 17,73; eta 7 gainerako delituen kategoria orokorrean sartzen dira, hau da, % 2,64. Gertakari eta delitu horietako asko (401 gertakarietatik 150; % 37,41; eta 265 delituetatik 96; % 36,23) Belfast hirian gertatu ziren.

*Desgaitasunagatiko, transfobiagatiko eta fedeagatiko/erlijioagatiko motibazioari* dagokionez, hiruhileko txosten honetan agertzen diren datuak apalagoak dira. *Desgaitasunari* dagokionez, 119 gorroto-gertakari zenbatu ziren; eta gertakari horiei lotuta 78 delitu erregistratu ziren<sup>45</sup>. *Fedeari/erlijioari* dagokionez, 66 gorroto-gertakari zenbatu ziren, eta gertakari horiei lotuta 53 delitu erregistratu ziren<sup>46</sup>. *Transfobiari* dagokionez, 63 gorroto-gertakari zenbatu ziren, eta gertakari horiekin lotuta 37 delitu erregistratu ziren<sup>47</sup>.

44. Urteko argitalpen-txostenaren arabera (2020ko apirila eta 2021eko martxoa), 366 gorroto- gertakari homofobo zenbatu ziren, eta gertaera horiei lotuta 246 delitu erregistratu ziren. 366 gorroto- gertakari homofoben artean, poliziak 204 erregistratu zituen delitu baten edo gehiagoren burutzearekin lotuta (% 55,74), eta 162 berriz, inguruabarretatik inongo deliturik ondorioztatu gabe (% 44,26).

45. Urteko argitalpen-txostenaren arabera (2020ko apirila-2021eko martxoa), 90 gorroto- gertakari zenbatu ziren desgaitasunarengatik, eta gertakari horiekin lotuta 58 delitu erregistratu ziren. Desgaitasunagatiko 90 gorroto-gertakarietatik, poliziak 49 erregistratu zituen delitu baten edo gehiagoren burutzearekin lotuta (% 54,44), eta 41 berriz, inguruabarretatik inongo deliturik ondorioztatu gabe (% 45,55).

46. Urteko argitalpen-txostenaren arabera (2020ko apirila-2021eko martxoa), 39 gorroto- gertakari zen-

batu ziren fedeagatik/erlijioagatik, eta gertakari horiei lotuta 26 delitu erregistratu ziren. Fedeagatik/erlijioagatik 39 gorroto- gertakari artean, poliziak 25 erregistratu zituen delitu baten edo gehiagoren burutzearekin lotuta (% 64,10), eta 14 berriz, inguruabarretatik inongo deliturik ondorioztatu gabe (% 35,90).

47. Urteko argitalpen-txostenaren arabera (2020ko apirila-2021eko martxoa), 71 gorroto- gertakari zenbatu ziren transfobiagatik, eta gertakari horiekin lotuta 34 delitu erregistratu ziren. Transfobiagatik 71 gorroto- gertakari artean, poliziak 31 erregistratu zituen delitu baten edo gehiagoren burutzearekin lotuta (% 43,66); 40 berriz, inguruabarretatik inongo deliturik ondorioztatu gabe (% 56,34).

Ipar Irlandako Fiskaltza Publikoaren Zerbitzuak (*Public Prosecution Service for Northern Ireland* edo, siglen arabera, PPS) eskuragarri duen azken txosten<sup>48</sup> kontuan hartuta, zeinak 2020ko apirilaren 1etik 2021eko martxoaren 31ra bitarteko aldia barne hartzen duen, bertan aurreikusten da PPSk **330 kasu<sup>49</sup> jaso zituela, poliziak gorroto-delitu gisa identifikatu zituenak** (% 4ko beherakada 2019/20arekin alderatuta). Kategoria babestuaren arabera, polizia-sailkapeneko irizpideei jarraiki, 106 kasu arrazarekin lotu ziren (% 32,12), 86 sektarismoarekin (% 26,06), 54 homofobiarekin (% 16,36), 39 fedearekin/erlijioarekin (% 11,82), 26 motibazioa anizkoitzarekin (% 7,88), 13 desgaitasunarekin (% 3,94) eta 6 transfobiarekin (% 1,82). Delitu-kategoria nagusiaren arabera<sup>50</sup>, 212 kasu (% 64,24) pertsonaren aurkako indarkeria gisa sailkatuta daude (*violence against the person*), 44 (% 13,33) ordena publikoko delitu gisa (*public order*), 40 (% 12,12) kalte-delitu gisa (*criminal damage*) eta 34 (% 10,30) zehaztu gabeko beste delitu-talde gisa (*all other offence groups*).

Gainerakoan, kasu bakoitzean pertsona batek baino gehiagok parte hartu ahal izan duten heinean, norbait formalki salatzeke erabakia pertsona horietako edozeinen aurka zuzendu daiteke. Beraz, jarraian datorren sailkapenak PPSk jasotako kasuren batean parte hartu duten pertsona guztien inguruan hartutako erabaki larrienari egiten dio erreferentzia<sup>51</sup>. Guztira, 360 erabaki hartu dira. Larritasun handienekotik txikienera, **13 erabaki (% 3,61) Koronako Auzitegian (Crown Court)<sup>52</sup> epaituak izan zitezten pertsonen aurkako karguak aurkezteko izan ziren (indictable prosecution); 170 (% 47,22) Magistratu-Auzitegiatan (Magistrates' Courts)<sup>53</sup> epaituak izan zitezten pertsonen aurkako karguak aurkezteko (summary prosecution), 32 (% 8,89) neurri alternatiboak hartzeko (adibidez: mota horretako beste delituen bat eginez gero, neurriak hartuko direla formalki ohartaraztea) auzitegiatar jo gabe (*diversion*), eta 145 (% 40,28) karguak ez aurkezteko (*decision for no prosecution*), dela behar adina froga-material ez dagoelako, dela karguak aurkezteak interes publikoaren aurka joatea ekarriko lukeelako. *Summary prosecution* delakoa ardatz hartuta, pertsona gehien barne hartzen dituen erabaki-mota izanik, **95 akusatu kondenatu zituzten**, gutxienez delitu batengatik<sup>54</sup> [arraza: 35; sektarismoa: 23; homofobia: 14; fedea/erlijioa: 9; motibazio anizkoitza: 7; desgaitasuna: 5; transfobia: 2], kondena tasa % 69,85 izanik. Bestalde, 12 akusatu (% 8,82) absolbitu zituzten, eta 29 akusaturen kasuan (% 21,32) beste egoera batzuk**

48. Aurrerantzean, estatistika-erreferentzia guztiak honako argitalpen honi egindakotzat jo behar dira: PPSNI, "Statistical bulletin: cases involving hate crime 2020/21", Policy and Information Unit. Public Prosecution Service for Northern Ireland (PPSNI), 2021.

49. Kontuan izan kasu horietan pertsona bat edo gehiago egon daitezkeela.

50. Delitu-kategoria nagusia (primary offence) delitu larrienarekin lotutakoa izango da normalean, legez ezar daitezkeen zehapen penalen arabera zehaztuko dena.

51. Hau da, gorrotoak eragindako gertakari guztiak,

Ipar Irlandako poliziak hala direla ulertzen badu, erreferentzia-puntu izango dira.

52. Batzuetan bigarren auzialdi gisa jardun badezake ere, auzitegi nagusi bat da (superior edo senior court), lehen auzialdian nolabaiteko larritasuneko zigor-prozedimenduak ezagutzen dituen.

53. Lehen auzialdian larritasun txikiagoko kasu penalak ezagutzen dituen beheagoko auzitegiak dira (inferior courts).

54. Gutxienez delitu batengatik kondenatuak izan direnak aipatzean (convicted of at least one offence),

kontuan hartu behar da akusatu batzuk delitu desberdinengatik kondenatuak izan daitezkeela, eta kategoria horren barruan sartzen direla – hala badagokio – gorrotoak eragindako delitutik (hate motivated offence) absolbituak baina beste delitu batengatik kondenatuak izan diren akusatuak ere.

gertatu ziren (adibidez: akusatuaren heriotza, akusazioak atzera egitea, etab.).

Azkenik, fiskal batek, lege-xedapen baten arabera, eta ez izaera polizialeko definizio baten arabera, etsaitasunagatik astundutako gorroto-delitutzat (*aggravated by hostility*) hartutako kasuei buruzko datuei dagokienez, 260 erabaki hartu dira. Berriz ere, larritasun handienetik txikienera, **15 erabaki (% 5,77) Koronako Auzitegian (Crown Court) epaituak izan zitezten pertsonen aurka karguak aurkezteko izan ziren (indictable prosecution), 150 (% 57,69) Magistratu-Auzitegietan (Magistrates' Courts) epaituak izan zitezten pertsonen aurka karguak aurkezteko (summary prosecution), 18 (% 6,92) neurri alternatiboak hartzeko auzitegietara jo gabe (diversion), eta 77 (% 29,61), karguak ez aurkezteko erabakiak (decision for no prosecution) izan ziren. Berriz ere *summary prosecution* delakoa ardatz hartuta, **90 akusatu kondenatu** zituzten gutxienez delitu batengatik [arrazak: 46; erlijioa: 24; sexu-orientazioa: 11; motibazio anizkoitza: 8; desgaitasuna: 1], kondena tasa % 77,59koa izanik. Bestalde, 9 akusatu (% 7,76) absolbitu zituzten, eta 17 akusatuaren kasuan (% 14,65) beste egoera batzuk gertatu ziren (adibidez: akusatuaren heriotza, akusazioak atzera egitea, etab.).**

#### 2.1.4.

#### BESTE DATU BATZUEN EGUNERATZEA: INGALATERRA ETA GALES<sup>55</sup>

Ingalaterran eta Galesen gorroto-delituei buruzko informazio estatistikoaren irudi osatuagoa lortzeko, bi iturri ofizial hartuko ditugu kontuan, oso desberdinak beraien artean, bakoitza bere mugekin.

Lehenik eta behin, *Crime Survey for England and Wales* (CSEW)<sup>56</sup>. Aurrez aurreko biktimizazio-inkesta bat da, Ingalaterran eta Galesen bizi diren horien esperientzia pertsonalei buruzko informazioa ematen duena. Helburu horrekin, azken hiru urteko inkesten datuak konbinatzen dira, lagin handiagoa lortzeko eta estimazio fidagarriagoak egiteko<sup>57</sup>. Eskuragarri dagoen azken datu-zerrenda 2017/18, 2018/19 eta 2019/20ko inkestei dagozkien datuen konbinazioari buruzkoa da<sup>58</sup>.

55. Atal honetan jasotakoaz gain, ikus, halaber, Ingalaterra eta Galeseko gorroto-gertakarien ibilbidearen datu eguneratuak dituen laburpen bat: ALLEN/ZAYED, "Hate crime... op. cit., 5-43. Orr.

56. CSEWren datuak Barne Ministerioaren (Home Office) gorroto-delituen inguruko txostenean jasotzen dira; beraz, aurrerantzean CSEWren datuak aipatzen direnean eskuragarri dagoen azken txosten horri erreferentzia egiten ari zaiola ulertu behar da: HOME OFFICE, "Hate crime, England and Wales, 2020 to 2021", Home Office, 2021.

57. Datu konbinatu hauen arazoa da, joera orokorrak eta epe luzekoak islatzeko potentziala baino ez dutela. Gainera, nahiz eta teorian poliziaren eskuetara iristen ez diren delituak jaso daitezkeen, CSEWak ez ditu barne hartzen enpresa edo erakundeen aurka egindako delituak, Ingalaterran eta Galesen bizi ez diren (adib.: turistak) edo 16 urtetik beherakoak diren pertsonen aurka egindako delituak, edo «biktimarik gabeko krimenak» (victimless crimes) gisa katalogatuta daudenak, hau da, gizabanako identifikagarriak ez duten arau-hauste penalei dagozkienak, ordena publikoko delituak (public

order offences) izan daitezkeen bezala

58. CSEWren zifren hurrengo argitalpena 2023rako aurreikusita dago, baina atzeratu egin daiteke, aurrez aurreko inkesta bertan behera geratu baitzen Covid-19aren pandemian osasun publikoaren murrizketak zirela eta. Hurrengo lerroetan, honako argitalpen honetan garatutakoa aipatuko dugu labur-labur: CÁTEDRA UNESCO DE DERECHOS HUMANOS Y PODERES PÚBLICOS/ERTZAINZTA, "Informe de incidentes de odio de Euskadi 2020", Eusko Jaurkitza-Gobierno Vasco, 2021, 53-54. Orr.

Estimazioak badira ere, CSEWk jasotzen dituen datu konbinatuek adierazten dute (2017/18tik 2019/20ra) 190.000 gorroto-delitu gertakari izan direla urtean (*hate crime incidents*). Hau da, CSEWak bere lana egiteko jasotzen dituen delituekin lotutako gertakari guztien (6,1 milioi) %3. Halaber, CSEWek erregistratutako gorroto-delitu gertakarien %47 polizia jakinarazten zaizkio. Kategorien arabera, 104.000 gertakari erasotzaileak biktimaren arrazarekiko zuen jarreragatik gertatu ziren, 50.000 gertakari biktimaren desgaitasunagatik, 42.000 biktimaren erlijioagatik, 23.000 biktimaren sexu-orientazioagatik eta 7.000 biktimaren genero-identitateagatik<sup>59</sup>. Delitu-tipologiari dagokionez, lehenik eta behin, nabarmentzekoa da gorroto-delitu gertakari baten biktimak pertsonen aurkako delitu bat jasateko arrisku handiagoa duela (*personal crime*), ondasun errealekin lotutako delitu bat baino (*household crime*)<sup>60</sup>. Horrela, pertsonen aurkako delituek guztizkoaren %59 (120.000 gertakari)<sup>61</sup> hartzen duten bitartean [lesiorik gabeko indarkeria (*violence without injury*), % 28; lesiodun indarkeria (*violence with injury*), %17; pertsonari egindako ebasketa (*theft from person*), %7; indarkeriaz edo larderiez egindako lapurreta (*robbery*), %5; jabetza pertsonalarekin lotutako beste ebasketa batzuk (*other theft of personal property*), %2], ondasun errealekin lotutako delituak guztizkoaren % 41 hartzen dute (70.000 gertakari)<sup>62</sup> [kalte-delitua (*criminal damage*), %20; indarra erabiliz egindako lapurreta eta egoitza edo bizilekuaren bortxatzea (*burglary*), % 10; ibilgailu-ebasketa (*vehicle-related theft*), %5; ondasun errealekin lotutako ebasketa bat (*other household theft*), %5; bizikleta-ebasketa (*bicycle theft*) %1]. Hala ere, ondasun errealekin lotutako delituen biktimen %27k gutxienez beste biktimizazio bat jasan du gorroto-delitu gertakari beragatik azken urtean, pertsonen aurkako delituen kasuan % 16a delarik.

Bigarrenik, CSEWren zenbait datu aztertu ondoren, gorroto-delituen polizia-erregistroei buruzko informazioa ere aipa dezakegu (*police recorded hate crimes data*). CSEWek emandako informaziotik bereizten da, besteak

59. Batuketak 190.000 gertakariaren kopurua gaitzen du, 190.000 gertakari hauen baitan biktimak delitua babestutako kategoria batek baino gehiagok eragin duela adierazi ahal izan duelako.

60. Delitu pertsonalak (*personal crimes*) pertsonari zuzentzen zaizkionak dira, norberaren esperientziarekin lotzen direnak, eta ez etxe bereko beste batzuen esperientziarekin. Ondasun errealekin lotutako delituek (*household crimes*) jabetza batean kalteak edo lapurretak eragiten dituztenak dira, eta momentuan toki horretan bizi den beste edozein pertsonari eragiten diote.

61. 120.000 gertakari hauetako bakoitza babestutako kategoria bat baino gehiagok eragin ahal izan duela kontuan hartuta, ikus honako datu banaketa hau babestutako kategoriaren arabera: arraza (66.000), erlijioa (30.000), desgaitasuna (27.000), sexu-orientazioa (19.000) eta genero-identitatea (4.000).

62. 70.000 gertakari hauetako bakoitza babestutako

kategoria bat baino gehiagok eragin ahal izan duela kontuan hartuta, ikus honako datu banaketa hau babestutako kategoriaren arabera: arraza (39.000), desgaitasuna (23.000), erlijioa (12.000), sexu-orientazioa (4.000) eta genero-identitatea (3.000).

beste, urtean behin argitaratzen den heinean, eta biktimizazio-inkestan kanpo geratzen diren supostu haiek barne hartzen dituen heinean<sup>63</sup>. Beraz, eskura dauden azken datuetan arreta jarrita (2020/21)<sup>64</sup>, Ingalaterra eta Galesko poliziak **124.091 gorroto-delitu** erregistratu zituen, %9ko igoe-ra egon delarik 2019/20 urtearekin alderatuta. Delitu horietako bakoitza eragin zuten arrazoiak bat baino gehiago izan daitezkeela kontuan hartuz, guztira 119.868 motibazio-faktore egon ziren aipatutako 124.091 delituetan. Prebalentzia-ordenaren arabera, kategoria hauek aurki ditzakegu: arraza (85.268 – % 71,13), sexu-orientazioa (17.135 – % 14,29), desgaitasuna (9.208 – % 7,68), erlijioa (5.627 – % 4,39)<sup>65</sup> eta transgeneroa (2.630 – % 2,19). Delitu-tipologiaren arabera, Ingalaterrako eta Galesko poliziak erregistratutako gorroto-delitu guztien erdia baino gehiago –*Greater Manchester Police* barne – ordena publikoaren aurkako delituengatik izan ziren (% 52). Ordena publikoaren aurkako delituak, hori bai, poliziari erregistratzeko jakinaraz dakizkiokeen delitu guztien % 10 baino ez dira, gorroto-delituen kategoria espezifikoz harago. Jarraian, pertsonen aurkako indarkeria-delituak (% 40) eta kalte- eta sute-delituak (% 5) daude. Polizia-ikerketa egin ondoren, poliziak berak hasiera batean gorroto-delitu gisa markatutako delituen %91k azken emaitza bat dute esleituta<sup>66</sup> (gainerrako %9a ikerketa amaitzeko zain dago emaitza bat esleitzeko). Bada, gorroto-delitu guztien % 11k akusazioak/zitazioak (*charges/summons*) eragin dituzte. Delitu-tipologiaren arabera, ordena publikoaren aurkako delituen % 12k akusazioak/zitazioak eragin dituzte, pertsonen aurkako indarkeria-delituen % 8k eta kalte- eta sute-delituen % 7k.

63. Polizia-erregistroei buruzko informazioak duen arriskua, ordea, bikoitza da. Lehenik eta behin, CSEWrekin gertatzen zenaren kontrara, datu hauek ez dute National Statistics-en estatusa, zeina, azken finean, Erresuma Batuko Estatistiken Kontseilu Nazionalak (UK Statistics Authority) ematen duen –bere ardurapeko organoen bitartez –, estatistika horiek Code for Practice for Statistics delakoarekin bat datozenean. Horrela bakarrik gaintzen da argitaratzen den informazio estatistikoaren fidagarritasun, kalitate eta balioaren estandarrik altuena. Bigarrenik, gogorarazi behar da gorroto- gertakari asko poliziaren ezagutzatik kanpo geratzen direla, hau muga handi bat delarik gorroto-kriminalitatearen benetako eragina ezagutu ahal izateko. Ikus OFFICE FOR STATISTICS REGULATION (OSR), “Code for Practice for Statistics. Ensuring official statistics serve the public”, UK Statistics Authority, 2018.

64. Datu hauek lurraldeko hainbat polizia-indarretatik

datoz, Greater Manchester Police-tik izan ezik, ezin izan baitzuen 2020/21 aldirako daturik eman. Hemendik aurrera, hurrengo argitalpenean jasotako datu estatistikoen zerrenda emango da: HOME OFFICE, “Hate crime, England and Wales...op. cit.

65. Zehazki, arrazoi erlijiosoen eragindako 6.377 gorroto-delituetatik (orain bai, Greater Manchester Police barne), 5.948ri (% 93) buruz informazio gehiago helarazi da. Arrazoi erlijiosoengatik 5.948 gorroto-delituetako bakoitzean, litekeena da delitu horren biktimarendandik hautemandako erlijio bat baino gehiago tartean egotea (perceived religion). Aurrekoa kontuan hartuta, nabarmentzekoa da arrazoi erlijiosoengatik gorroto-delituen % 45ean biktima musulmantzat hartu zela, eta % 22an, berriz, judutartzat.

66. Zehaztu behar da, kasu honetan, Ingalaterran eta Galesen 44tik 26 polizia-indarrek soilik eman dituztela datu egokiak.

Estatuko Fiskaltza Nagusia (*Crown Prosecution Service* edo, siglen arabera, CPS) Ingalaterra eta Galesen gorroto-delituengatik aurkezten diren akusazio formalen kopurua argitaratzeaz arduratzen da. Zehazki, 2020/21ean<sup>67</sup> **10.679 akusazio aurkeztu ziren gorroto-delituengatik**, % 2,5eko beherakada egon zelarik 2019/20arekin alderatuta. Aurkeztutako 10.679 akusazioen emaitza **kondena-epaia izan da 9.263 kasutan**, kondena tasa % 86,7koa izanik. Zehazki:

- Arrazari lotuta aurkeztutako 8.202 akusazioetatik (aurkeztutako akusazio guztien % 76,80) 7.115ek kondena epaia lortu zuten, % 86,7koa izanik kondena tasa.
- Homofobiarekin lotuta aurkeztutako 1.744 akusazioetatik (aurkeztutako akusazio guztien % 16,33) 1.555ek kondena epaia lortu zuten, % 89,2koa izanik kondena-tasa.
- Erljioaren inguruan aurkeztutako 362 akusazioetatik (aurkeztutako akusazio guztien % 3,39) 294k kondena epaia lortu zuten, % 81,2koa izanik kondena-tasa.
- Desgaitasunari lotuta aurkeztutako 292 akusazioetatik (aurkeztutako akusazio guztien % 2,73) 236k kondena epaia lortu zuten, % 80,8koa izanik kondena tasa.
- Transfobiaren inguruan aurkeztutako 79 akusazioetatik (aurkeztutako akusazio guztien % 0,08) 63k kondena epaia lortu zuten, % 79,7koa izanik kondena-tasa.

Azkenik, nabarmendu behar da oraindik ez direla argitaratu 2019/20 edo 2020/21 aldiko datuak biltzen dituzten txostenak, CPSk gorroto-delituen arloan aurkeztutako akusazio horien atzean dauden delitu-tipologia zehatzak ezagutzea ahalbidetzen dutenak<sup>68</sup>.

67. Aurrerantzean egiten den erreferentzia oro honakoari egiten zaiola ulertu beharko da: CPS, "CPS data summary Quarter 4 2020-2021", CPS, 2021. Esteka: <https://www.cps.gov.uk/publication/cps-data-summary-quarter-4-2020-2021>.

68. Ikus orain arte argitaratutako txosten guztiak biltzen dituen fitxategia esteka honetan: <https://www.cps.gov.uk/publication/hate-crime-reports>



## 2.2

# FRANTZIA

### 2.2.1.

#### ERREALITATE ENPIRIKOA, OSCETIK ATERATAKO DATUEN ARABERA

Frantziako gorroto-delituei buruz OSCE/ODIHR erakundeak darabilen estatistika-informazio berriena 2020koa da<sup>69</sup>, herrialde horretako agintari nazionalek erakundeari berari emandako datuen iraulketaren arabera. Guztira, **2.672 gorroto-delitu** erregistratu dituzte polizia-erakundeek, hau da, % 1,21eko igoera aurreko urtearekin alderatuta. Aurrekoaz gain, **gorrotoa edo indarkeria, difamazioa edo irain publikoak bultzatzeko beste 3.531 delitu** OSCE/ODIHR erakundeari iritsi zaizkio, baina «gehien-gehienetan» erakunde horrek gorroto-delitutzat hartzen duenari buruz ematen duen definiziotik kanpo geratzen dira. Kasu hoentan, igoera %3,58koa izan da, aurreko urtearekin alderatuta.

Egilearen motibazioei dagokienez, datuak bereizita daude, baina kategorien arteko bikoiztasunak egon daitezkeela adierazten da<sup>70</sup>. Aurrekoa kontuan hartuta, guztira 3.998 motibazio daude kontabilizatutako gorroto-delituetan. % 10,46ko jaitsiera izan da aurreko urtearekin alderatuta. Jarraian datorren sailkapenak Frantziako poliziak erregistratutako gorroto-delituetan dauden motibazioen kopurua ordenatzen du, agerpenaren prebalentzia handienetik txikienera:

#### **ARRAZAKERIA ETA XENOFOBIA (1.550; % 38,77).**

Aurreko urtearekin alderatuta, %16,02ko igoera izan da.

#### **LGTBIREN AURKAKOIA (1.063; % 26,59).**

% 12,94ko jaitsiera izan da aurreko urtearekin alderatuta<sup>71</sup>.

69. Online sarbidea: <https://hatecrime.osce.org/france>  
70. Urtez urte gertatzen den bezala, "Arrazakeria eta xenofobia" kategoriari buruzko datuek erlijio batekoa izateagatik – benetakoa edo ustezkoa – egindako delituen beste datu batzuk ere xurgatzen dituzte. Beraz, gertakari antisemitak, musulmanen aurkakoak eta kristauen aurkakoak, bakoitza bere aldetik agertzen badira ere, arrazakeria eta xenofobia kategoriara gehitu dira. Aitzitik, gertakari antisemitei, musulmanei eta antikristauei buruzko zifra osoak eskaintzen direnean, esaten da arrazakeria eta xenofobia kategoriarekin ere

jakinarazi direla eta, beraz, bi aldiz "ager daitezkeela". Ez da askoz gehiago argitzen.

71. Kontuan hartu behar da 2019an kategoria «generoan oinarritutako gorrotoa» zela, eta kategoria horretan sartzen zirela sexuan eta generoan oinarritutako aurreiritziak, bai eta sexu-orientazioan eta genero-identitatean oinarritutako aurreiritziak ere. 2020an, «LGBTI aurkako gorrotoa» kategoria berrian, orientazio sexualean eta genero-identitatean oinarritutako aurreiritziak barne geratzen dira.

**KRISTAUEN AURKAKOA (813; % 20,33).**

% 22,2ko jaitsiera izan da aurreko urtearekin alderatuta.

**ANTISEMITISMOA (337; % 8,43).**

% 51,16ko jaitsiera izan da aurreko urtearekin alderatuta.

**MUSULMANEN AURKAKOA (235; % 5,88).**

Aurreko urtearekin alderatuta, %51,16ko igoera izan da.

Delitu-tipologia zehatzei dagokienez, argitu behar da sartu direla OSCEk erabiltzen duen gorroto-delituen definiziotik kanpo geratzen diren delituei buruzko datuak, bai eta beste bikoiztasun batzuk ere. Horregatik, ez da harrizkoa polizia-erakundeek 2020an erregistratutako 2.672 gorroto-delituak nabarmen gainditzea. Aurrekoa kontuan hartuta, jarraian OSCE/ODIHRek darabiltzan delitu-tipologia desberdinen arabera lortutako delituen kopurua islatuko da. Jarraian datorren sailkapena delitu-tipologiaren intzidentzia handienetik txikienera ordenatuta dago:

**MEHATXUAK ETA JOKABIDE MEHATXAGARRIA (1.842; % 46,07).**

% 5,83ko jaitsiera izan da aurreko urtearekin alderatuta. Motibazioaren arabera, arrazakeria eta xenofobia kategoria nagusitzen da (% 964; % 52,33). Horren atzean, prebalentzia-ordenaren arabera, honako hauek daude: LGBTI-ren aurkakoa (426; % 23,13), antisemitismoa (245; % 13,30), musulmanen aurkakoa (163; % 8,85) eta kristauen aurkakoa (44; % 2,39).

**ZEHAZTU GABE (933; % 23,24).**

Aurreko urtearekin alderatuta, %256,11ko igoera izan da. Motibazioaren arabera, kristauen aurkako kategoria nagusitzen da (769; % 82,42). Horren atzean, prebalentzia-ordenaren arabera, honako hauek daude: antisemitismoa (92; % 9,86) eta musulmanen aurkakoa (72; % 7,72).

**ERASO FISIKOA (707; % 17,68).**

% 26,28ko jaitsiera izan da aurreko urtearekin alderatuta. Motibazioaren arabera, LGTBIn aurkakoaren kategoria (419; % 59,26) eta

72. Hori izango litzateke gorroto-diskurtsoko ekintzen kasua (acts of hate speech), mehatxuen eta jokabide mehatxagarriaren kategoriaren barruan sartzen baitira (threats/threatening behaviour).

73. Adibidez, ez da argitzen zer neurritan bereizten

den sexu-erasoaren kategoria (sexual assault) eta sexu-indarkeria (sexual violence), zeina eraso fisikoaren kategoriaren barruan sartzen baita (physical assault).

arrazakeria eta xenofobiarena (288; % 40,73) aurreikusten dira.

**INDARKERIA ERAGITEA (273; % 6,83).**

Aurreko urtearekin alderatuta, %114,96ko igoera izan da. Motibazioaren arabera, arrazakeria eta xenofobiaren kategoria (160; % 58,61) eta LGBTBIren kontrakoa (113; % 41,39) aurreikusten dira.

**ONDASUNEI ERAGINDAKO KALTEAK (204; 5,10%).**

% 81,87ko jaitsiera izan da aurreko urtearekin alderatuta. Motibazioaren arabera, arrazakeria eta xenofobiaren kategoria (138; % 67,65) eta LGBTBIren kontrakoa (66; % 32,35) aurreikusten dira.

**SEXU-ERASOA (39; 0,97%).**

2019an ez dago delitu-tipologia baliokiderik. Motibazioa hemen LGBTBIren aurkako kategoriaren parekoa da (39; % 100).

Azkenik, OSCE/ODIHR erakundeak jarraitzen du daturik eman gabe auzipetutako gorroto-delituen kopuruari buruz, ezta Frantzia emandako kondena-epaiei buruz ere.

**2.2.2.**

**ERREALITATE ENPIRIKORA HURBILKETA: BESTE DATU BATZUK**

Giza Eskubideen Aholku Batzorde Nazionalaren (CNCDH) txostenaren azken edizioak<sup>74</sup>, hogeita hamargarrenak, arrazakeriaren eta xenofobiaren arloko 2020ko urteko datuak jasotzen ditu. Horretarako, urtero, Hezkuntza Nazionalako Ministerioak, Barne Ministerioak eta Justizia Ministerioak arrazakeriaren aurkako borrokaren esparruan egindako jardueraren balantze estatistikoaren berri ematen diote Giza Eskubideen Batzorde Nazionalari. Era berean, txosten honek Giza Eskubideen Batzorde Nazionalak aurreko urteetan egindako gomendioen jarraipena ere egiten du, bai eta Giza Eskubideen Batzorde Nazionalak 2020ko abenduan arrazismoaren, antisemitismoaren eta LGBTB kolektiboaren aurkako gorrotoaren aurka borrokatzeko ministerioarteko ordezkariari jakinarazitako analisi eta proposamenak ere.

74. COMMISSION NATIONALE CONSULTATIVE DES DROITS DE L'HOMME (CNCDH), "La lutte contre le racisme, l'antisémitisme et la xénophobie", CNCDH, Paris, 2021.

Barne eta Justizia Ministerioen jarduera-balantzeek arau-haustea diren arrazakeria gertakarien proportzioa erakusteko balio dute. Halaber, aipagarria da Barne Ministerioak bi balantze osagarri aurkezten dituela: alde batetik, Barne Segurtasuneko Ministeriooko Estatistika Zerbitzuarena (SSMSI), polizia-zerbitzuen eta jendarmeria-zerbitzuen benetako jarduera islatzen duena; eta, bestetik, Lurralde Informazioko Zerbitzu Zentralarena (SCRT), tokiko homologoek informatzen dituzten gertakarien jarraipena egitea ahalbidetzen duena. Aurrekoari gehitu behar zaizkio informazioaren eta komunikazioaren teknologietan oinarritutako kriminalitatearen aurkako borrokaren bulego nagusiaren (OCLCTIC/SDLC) salaketak harmonizatu, aztertu, berreskuratu eta orientatzeko plataformak (PHAROS) bildutako datuak, Frantzia diskriminazio egoeraren irudi osoago batera hurbiltzen gaituztenak, online burututako gorroto-delituak eta jokabide diskriminatzaileak jasotzean.

2020ko SMSIren balantze estatistikoak poliziak eta jendarmeriak erregistratutako prozedurei buruzko datuak jasotzen ditu, Zigor Kodean «arraza, jatorri, etnia edo erlijio arrazoiengatik» egindako arau-hauste batzuk oinarri hartuta (4. eta 5. motako krimenak, delituak eta urraketak). Urte horretan, poliziak eta jendarmeriak **11.338 arau-hauste** inguru erregistratu zituzten Frantziako lurralde osoan, **arraza, jatorri, etnia eta erlijioarekin lotura esplizitua zutenak**. 11.338 arau-hauste horietatik, 5.511 krimen eta delitutzat jo ziren (% 48,6), eta 5.827 4. eta 5. mailako urraketatzat (% 51,4).

Bi urtez jarraian behera egin ondoren (%4 2017 eta 2018 artean eta %11 2016 eta 2017 artean), eta %11ko igoera izan ondoren 2018 eta 2019 artean, %2ko jaitsiera arina izan da aurreko urtekoarekin alderatuta. Beherakada hori egintza arrazistak garatzeko egozia edo ez hain egokia den testuinguru baten bilakaerarekin lotu behar da. 2015. eta 2016. urteetan, bi atentatu bereziki hilgarri izan ziren Frantzian, erasoaren ondorengo hilabeteetan, eta biktimaren jatorria, etnia, nazionalitatea, arraza eta erlijioa (benetakoa edo ustezkoa) oinarri zituzten arau-hausteak egin ziren, batez ere Charlie Hebdo eta Hiper Cacher atentatuen ondoren, 2015eko urtarrilean. 2017an, ordea, delitu-tipologia batzuek beherakada nabarmena izan zuten (kalteak, irainak, lesioak, etab.), eta horrek aurreko urteetan erregistratutako jaitsiera orokorra ekarri zuen, eta gauza bera esan daiteke, neurri txikiagoan bada ere, 2018. urtearekin alderatuta; izan ere, urte horretan erregistratutako

ekintzen beherakada txikia probokazio-, irain- eta difamazio-delitu- en jaitsieraren ondorio da.

2020. urtea, bestalde, osasun-krisiaren salbuespenezko testuinguruak gogoraraziko du, Covid-19ko pandemiak eraginda. Gainera, Frantziako biztanleriaren konfinamendu nazionaleko bialdi izan zituen (martxoaren 17tik maiatzaren 10era eta urriaren 30etik abenduaren 14ra). Horregatik, aldi horietan erregistratutako delinkuentzia-adierazle gehienak nahiko atipikoak dira. Izan ere, ezin da ahaztu konfinamenduak eragin handia izan duela salaketak jartzeko baldintzetan, eta, aldi berean, delinkuentzia-modu batzuk konfinamenduaren testuinguruan gertatzea eragotzi du, eta beste delitu mota batzuk egitea indartu du. Ondorioz, SSMSIren balantze estatistikoak berak gonbidatzen gaitu datuak kontuz interpretatzera, 2020ko testuinguru berezia kontuan hartuta.

Illo horretan, 2020an gorakada nabarmena gertatu da zenbait delitu-tipologiatan (% 24 mehatxuetan eta xantaietan), eta beste tipologia batzuek, berriz, beherakada handia izan dute (% 1 diskriminazio-delituetan, eta % 16 ondasunen aurkako atentatuetan). Etnia, nazionalitate eta arraza edo erlijioagatik (benetakoa edo ustezkoa) burututako delituen kasu zehatzean, % 3 murriztu dira 2019tik 2020ra bitartean. Delitu gehienak ezgaiketarik eragiten ez duten indarkeria-egintzak dira (% 68), ondoren, 8 egun arteko ezintasuna eragiten duten indarkeria-egintzak (% 27) eta, azkenik, 8 egun baino gehiagoko ezintasuna eragiten duten indarkeria-ekintzak (% 4).

Urraketek, bestalde, % 12ko igoera nabarmena izan dute 2020an, 2019an % 21 igo ondoren.

Auzi arrazisten egitura, aldiz, egonkor mantendu da: izaera kriminaleko edo delituzko arau-hauste gehienak, eta probokazio, irain edo difamazioei dagozkienak (% 64). Nabarmenezkoak dira, neurri txikiagoan bada ere, mehatxuak eta xantaiak (% 22) eta pertsonen aurkako atentatuak (% 6).

Profilari dagokionez, erasotzaileen %70 inguru eta biktimen %58 gizonak izan ziren. Hala ere, erasotzaileen artean, emakume erasotzaileen gehiegizko ordezkartza aipatu behar da (% 30, eta segurtasun-indarrek eta -kidegoek 2020an identifikatutako era-

sotzaileen % 17). Adinari dagokionez, biktimak, oro har, tarteko adinekoak izan ziren; izan ere, biktimen % 71 25 eta 54 urte bitartekoak ziren. 25 urtetik beherakoen (% 16 inguru, biztanleriaren %30 direnean) eta 55 urtetik gorakoen (%13 inguru, biztanleriaren %33 direnean) ageriko ordezkari txikia salatzen joera txikiaren ondorio izan daiteke, batez ere gazteen kasuan, eta ez hainbeste adierazpen arrazisten aurreko esposizio txikiagoaren ondorio. Erasotzaileen kasuan, berriz, gazteak ere gutxiegi ordezkariak zeuden arren (% 32 35 urtetik beherakoak izan ziren, bestelako delituetan inputatutako pertsonen % 63 direnean), 55 urtetik gorakoak gehiegi ordezkariak zeuden (erasotzaileen % 27 izan ziren, bestelako delituetan inputatutako pertsonen % 7 direnean).

Bestalde, atzerritarrek ordezkari handiegia dute biktimen zenbaketan. Izan ere, krimenen eta delituen biktimen %19 izan ziren. Nagusiki, Afrikako kontinentetik etorritako pertsonak dira kalte-tuenak (%14 talde horretako kide dira, nahiz eta biztanleriaren %3 baino gutxiago izan). Logikoa denez, ordezkari hori ez da erasotzaileen kasuan islatzen; izan ere, erasotzaileen %9 baino ez baitziren Frantziako lurraldetik kanpo jaiotakoak. Nabarmenezkoa da, ingurumenaren ikuspegitik, aurreko txostenetan aipatu den bezala, jendetza handiek izaera arrazistako adierazpenak faboratzen dituztela: lehen aipatutako delitu eta krimenen bi heren inguru Parisen (% 27) edo 200.000 biztanletik gorako hiriguneetan (% 42) biltzen dira. Aitzitik, landa-eremuetako udalerriak dira horrelako gertakari arrazistek gutxien eragituak direnak (biktimen % 6).

Fiskaltzan eta epailetzan arreta jarriz, 2019an (momentu ez da argitaratu 2020ri buruzko daturik) 7.283 auzi iritsi ziren Fiskaltzaren eskuetara (aurreko urtean baino %10 gehiago), eta **6.386 pertsona auzipetu zituzten**. Auzipetutako pertsona guztien artean, % 47,7 (3.043 kasu) irain, difamazio eta gorroto-probokazioengatik izan ziren; % 39,5 (2.523 kasu) pertsonen aurkako atentatuengatik; %10,1 (643 kasu) diskriminazioengatik; eta gainerako % 2,8 ondasunen aurkako atentatuengatik. Era berean, 2019. urtean **843 arau-hauste arrazista edo arrazakeriaren astungarria oinarri hartuta egindakoak zigortu ziren**.

75. Horri dagokionez, Giza Eskubideen Batzorde Nazionalaren txostenak berak adierazten du interesgarria litzatekeela bereiztea, Frantziako nazionalitatea duten biktimen artean, horietatik zenbat diren etorkinen ondorengoak edo bigarren belaunaldiko etorkinak. Izan

ere, infra apatuko den “Cadre de vie et sécurité” biktimizazio-inkestaren arabera, migratzaileek eta haien ondorengoek aukera gehiago dituzte horrelako delituetan jasateko nazionalak baino.

Aurretik azaldutako guztiaz gain, arrazakeria/xenofobiatik haratagoko datu batzuk ere aurki daitezke, konkretuki gutxiengo erlijio-soei dagokienez. Zifra horiek ez datoz bat SCRTk jakinarazitakoe-kin; izan ere, azken urtean beheranzko joera izan dute, 2019an gora egin ondoren. Zehazki, 2020. urtean, guztira, % 26ko beherakada erregistratu zen. Hala ere, beherakada hori ez da orokorra izan kolektibo guztietan; izan ere, **egintza antisemitak** % 52 jaitsi dira (**339** egintza 2020an, 2019ko 687 egintzekin alderatuta), baina **egintza islamofoboak** % 52 igo dira (**234** egintza 2020an, 2019ko 154 egintzekin alderatuta).

Bestalde, arrazismoaren, antisemitismoaren eta LGTBI aurkako gorrotoaren aurkako borrokari buruzko Ministerio arteko Ordezkaritzak (DILCRAH), Barne Ministerioko Barne Segurtasuneko Ministerioko Estatistika Zerbitzuaren (SSMI) laguntzarekin, datuak biltzen ditu, eta urtero inbentario bat egiten du segurtasun-indarrek erregistratutako krimenen eta delituen biktimei buruz (polizia eta gendarmeria), hau da, benetako edo ustezko sexu-orientazioan edo -identitatean burututako delituei buruz. Ildo horretan, polizia eta jendarmeriako indarrek **1.590 arau-hauste homofobo edo transfobo** erregistratu zituzten 2020an, aurreko urtean baino % 15 gutxiago. Arau-hauste horietatik guztietatik, irainak erregistratutako arau-hausteen %31 dira, eta, ondoren, abusu fisiko edo sexuala (ekintzen %26). Arau-hauste horien biktima gehienak gizonak (% 72) eta gazteak (biktimen %60 35 urtetik beherakoak ziren) izan ziren. Gertakarien %37 200.000 biztanletik gorako hiriguneetan gertatu ziren<sup>77</sup>.

PHAROS plataformaren eskutik **Internet bidez burututako gorroto-delituei** soilik erreparatzen badiegu, **23.525 salaketa jarri dira** 2020an mota horretako delituengatik (Internet bidez egindako delituengatik jasotako salaketa guztien, 289.590, % 8,1). Jasotako salaketa gehienak irain eta difamazio xenofobo edo diskriminatzaileak dira (% 49,4), eta horien atzetik datoz, neurri txikiagoan bada ere, gorrotoa eta arraza-, etnia- edo erlijio-bereizkeria publikoki

76. COMMISSION NATIONALE CONSULTATIVE DES DROITS DE L'HOMME (CNCDH), "La lutte contre... op. cit.

77. MINISTÈRE DE L'INTERIEUR, "Crimes et délits anti-LGBT enregistrés par les forces de police et de gen-

darmerie en 2019", Ministère de l'intérieur, Paris, 2020, Online sarbidea: <https://www.interieur.gouv.fr/Inters-tats/Actualites/Info-rapide-n-17-Baisse-du-nombre-de-victimes-de-crimes-ou-de-délits-anti-LGBT-en-registrees-par-les-forces-de-securite-en-2020>

eragitea (% 39,1) eta biktimaren sexu-orientazioan oinarritutako gorrotoa eta diskriminazioa publikoki eragitea (% 6,6). Urtez urte delitu horiek burutzeko biderik ohikoena sare sozialak dira, *Twitter* bereziki, 2020an mota horretako gertaerengatiko 10.144 salaketa biltzen baititu.

Azkenik, CNCDHk jakinda administrazio-estatistikek ez direla gai Frantzia gaiaren egoera zehatza marrazteko, bere adierazgarritasunari eragiten dion “zifra beltza” kontuan hartzearen alde egin du, ezagutzen diren gertakarien kopurua benetan egindakoena baino askoz txikiagoa delako. Hurbilketa hori osatzeko eta azpideklazioaren eragina mugatzeko asmoz, izaera soziologikoko beste iturri batzuk erabiltzen ditu, hala nola “Bizitza- eta segurtasun-taula” (*Cadre de vie et sécurité*) izeneko inkestak. Inkesta hauek INSEE erakundeak 2007an sortu zituen, Delinkuentziaren eta Erantzun Penalen Behatoki Nazionalarekin (ONDRP) lankidetzan, aurreko bi urteetan herritarrek jasan ahal izan dituzten delitu-egitateak ezagutzeko eta segurtasun-gabezia subjektiboaren pertzepzioa identifikatzeko asmoz. Inkesta hori urte bakoitzeko lehen hiru hilekoan egiten da, gutxi gorabehera Frantzia metropolitarreko 25.500 etxetan<sup>78</sup>.

Gorroto-delituei dagokienez, ez da datu askorik eman 2019an argitaratutako inkestaren azken edizioan. Alde batetik, ez dira eguneratu aurreko urteko txostenean aipatutako irain diskriminatzaileei buruzko datuak. Bestalde, etxeko 710.000 indarkeria-kasuetatik (lapurreta-kasuak) eta 1.805.000 mehatxu-kasuetatik (% 12 eta % 13, hurrenez hurren) diskriminatzaileak zirela aipatzen da (hau da, arrazista, xenofobia, homofobia edo sexista)<sup>79</sup>.

78. COMMISSION NATIONALE CONSULTATIVE DES DROITS DE L'HOMME (CNCDH), “La lutte contre... op. cit.

79. SERVICE STATISTIQUE MINISTÉRIEL DE LA SÉCURITÉ INTÉRIEURE, Résultats de l'enquête «Cadre de vie et sécurité», 2019: Victimation, délinquance et

sentiment d'insécurité, Ministère de l'intérieur, Paris, 2019. Online sarbidea: <https://www.interieur.gouv.fr/Interstats/L-enquete-Cadre-de-vie-et-securite-CVS/Rapport-d-enquete-Cadre-de-vie-et-securite-2019>



## 2.3

# ALEMANIA

### 2.3.1. ERREALITATE ENPIRIKOA, OSCETIK ATERATAKO DATUEN ARABERA

Alemaniano gorroto-delituei buruz OSCE/ODIHR erakundeak darabilen estatistika-informazio berriena 2020koa da<sup>80</sup>, herrialde horretako agintari nazionalek erakundeari emandako datuen arabera. Guztira, **10.240 gorroto-delitu** erregistratu dituzte polizia-erakundeek, hau da, % 19,28ko igoera aurreko urtearekin alderatuta. Zehazten denez, kalkulu horretan gorroto-diskurtsoaren delitu «batzuk» sartzen dira, baina ez dira zenbatuko kategorien arabera banakapenari begira, erakunde horrek gorroto-delitutzat jotzen duen definiziotik kanpo geratzen baitira.

Egilearen motibazioei dagokienez, datuak bereizita agertzen dira. Gainera, gorroto-delitu bakar bat motibazio-arrazoï batekin baino gehiagorekin erregistratu daitekeela argitu da. Beraz, motibazio anitzeko kasuak gertakari zehatzean konprometitutako kategoria guztietan zenbatzen dira. Aurreko kautela egin ondoren, guztira 13.950 motibazio daude kontabilizatutako gorroto-delituetan, hau da, % 465,01eko igoera aurreko urtearekin alderatuta. Jarraian datorren sailkapenak Alemaniako poliziak erregistratutako gorroto-delituetan dauden motibazioen kopurua ordenatzen du, agerpenaren prebalentzia handienetik txikienera:

#### **ARRAZAKERIA ETA XENOFOBIA (9.420; % 67,53).**

Aurreko urtearekin alderatuta, %470,56ko igoera izan da.

80. Online sarbidea: <https://hatecrime.osce.org/germany>

**ANTISEMITISMOA (2.351; % 16,85).**

Aurreko urtearekin alderatuta, %761,17ko igoera izan da.

**MUSULMANEN AURKAKOA (1.026; % 7,35).**

Aurreko urtearekin alderatuta, %395,65eko igoera izan da.

**LGTBIREN AURKAKOA (578; % 4,14).**

Aurreko urtearekin alderatuta, %133,06ko igoera izan da.

**GENEROA<sup>81</sup> (204; % 1,46).**

Ez dago kategoria baliokiderik 2019an.

**KRISTAUEN AURKAKOA (141; % 1,01).**

Aurreko urtearekin alderatuta, %147,37ko igoera izan da.

**ERROMANIEN AURKAKOA (128; % 0,92).**

Aurreko urtearekin alderatuta, %884,62ko igoera izan da.

**DESGAITASUNA (65; % 0,46).**

Aurreko urtearekin alderatuta, %983,33ko igoera izan da.

**BESTE ERLIJO EDO SINESMENAK (37; % 0,26).**

Aurreko urtearekin alderatuta, %164,29ko igoera izan da.

Jarraian OSCE/ODIHRek darabiltzan delitu-tipologia desberdinen arabera lortutako delituen kopurua islatuko da. Jarraian datorren sailkapena delitu-tipologiaren intzidentzia handienetik txikienera ordenatuta dago:

**ZEHAZTU GABE (11.150; % 79,93).**

2019an ez dago delitu-tipologia baliokiderik. Motibazioaren arabera, arrazakeria eta xenofobia kategoria nagusitzen da (7.520; % 67,44). Horren atzean, prebalentzia-ordenaren arabera, honako hauek daude: antisemitismoa (2.032; % 18,22), musulmanen aurkakoa (804; % 7,21), LGBTIren aurkakoa (387; % 3,47), generoa (147; 1,32%), erromanien aurkakoa (111; % 0,99), kristauen aurkakoa (69; % 0,62), desgaitasuna (59; % 0,53) eta beste erlijio edo sinesmenak (21; % 0,19).

**ERASO FISIKOA (1.100; % 7,88).**

Aurreko urtearekin alderatuta, %10,33ko igoera izan da. Motibazioaren arabera, arrazakeria eta xenofobia kategoria nagusitzen da (814; % 74). Horren atzean, prebalentzia-ordenaren arabera, honako hauek daude: LGBTIren

---

81. Jasota dagoenez, kategoria honetan sartzen dira genero-identitatearen oinarritutako motibazioek eragindako gorroto-delituak ere.

aurkakoa (109; % 9,91), musulmanen aurkakoa (66; % 6), antisemitismoa (51; % 4,64), generoa (35; % 3,18), erromanien aurkakoa (9; % 0,82), kristauen aurkakoa (7; % 0,64), desgaitasuna (6; % 0,54) eta beste erlijio edo sinesmenak (3; % 0,27).

#### **ONDASUNEI ERAGINDAKO KALTEAK (1.050; %7,53).**

Aurreko urtearekin alderatuta, %11,7ko igoera izan da. Motibazioaren arabera, arrazakeria eta xenofobia kategoria nagusitzen da (643; % 61,24). Horren atzean, prebalentzia-ordenaren arabera, honako hauek daude: antisemitismoa (209; % 19,90), musulmanen aurkakoa (111; % 10,57), kristauen aurkakoa (37; % 3,52), LGBTIren aurkakoa (35; % 3,33), generoa (9; % 0,86), erromanien aurkakoa (3; % 0,28) eta beste erlijio edo sinesmenak (3; % 0,28).

#### **MEHATXUAK ETA JOKABIDE MEHATXAGARRIA (561; % 4,02).**

Aurreko urtearekin alderatuta, % 41,31ko igoera izan da. Motibazioaren arabera, arrazakeria eta xenofobia kategoria nagusitzen da (388; % 69,16). Horren atzean, prebalentzia-ordenaren arabera, honako hauek daude: antisemitismoa (45; % 8,02), musulmanen aurkakoa (42; % 7,49), LGBTIren aurkakoa (41; % 7,31), kristauen aurkakoa (24; 4,28%), generoa (10; % 1,78), beste erlijio edo sinesmenak (6; % 1,07) eta erromanien aurkakoa (5; % 0,89).

#### **EBASKETA/LAPURRETA (45; % 0,32).**

% 45,78ko jaitsiera izan da aurreko urtearekin alderatuta. Motibazioaren arabera, arrazakeria eta xenofobia kategoria nagusitzen da (23; % 51,11). Horren atzean, prebalentzia-ordenaren arabera, honako hauek daude: antisemitismoa (9; % 20), LGBTIren aurkakoa (6; % 13,33), kristauen aurkakoa (3; % 6,67), generoa (3; % 6,67) eta musulmanen aurkakoa (1; % 2,22).

#### **HILOBI PROFANAZIOAK (22; % 0,16).**

Aurreko urtearekin alderatuta, % 15,79ko igoera izan da. Motibazioaren arabera, arrazakeria eta xenofobia kategoria nagusitzen da (11; % 50). Horren atzean, prebalentzia-ordenaren arabera, honako hauek daude: antisemitismoa (5; % 22,73), beste erlijio edo sinesmenak (4; % 18,18), musulmanen aurkakoa (1; % 4,54) eta kristauen aurkakoa (1; % 4,54).

#### **SUTEA (16; % 0,11).**

% 5,88ko jaitsiera izan da aurreko urtearekin alderatuta. Arrazakeria eta xenofobiaren kategoria (16; % 100) suteen delitu-tipologiaren barruan dauden gorroto-delitu guztien atzean dago.

#### **HOMIZIDIO/HILKETA (6; % 0,04).**

% 62,50eko jaitsiera izan da aurreko urtearekin alderatuta. Arrazakeria eta

xenofobiaren kategorian (5; % 83,33) eta musulmanen aurkakoa (1; % 16,67) daude homizidio/hilketa delitu tipologiaren barruan sartzen diren delitu guztien atzean

Azkenik, OSCE/ODIHR erakundeak jarraitzen du daturik eman gabe auzipetutako gorroto-delituen kopuruari buruz, ezta Alemanian emandako kondenatuen epaiei buruz ere.

### 2.3.2.

#### ERREALITATE ENPIRIKORA HURBILKETA: BESTE DATU BATZUK

Alemanian, datu estatistikoei dagokionez, erreferentzia ofizial zentrala Alemaniako Barne Ministeriotik datorrena da (*Bundesministerium des Innern, für Bau und Heimat*). Ministerio honek, Motibazio Politikoko Indarkeriaren kategorian orokorraren barruan (*Politisch Motivierte Kriminalität*, PMK) gorroto-kriminalitatea (*Hasskriminalität*) deitzen duen azpikategoria zehazten du.

Motibazio politikoko krimenen kategoriarik zabalenera dagokionez, eta *Verfassungsschutzbericht 2020*ren txostenean<sup>82</sup> jasotako definizioari jarraiki, halakotzat hartuko dira Estatuaren aurkako delituen bloke klasikoari dagozkion zigor-arloko delitu guztiak<sup>83</sup>, baita motibazio politikoa kasu indibidualetan zehazterik ez badago ere.

Kategoria orokor horrek ulergarria egiten du 2020ko zifra orokorra: 44.692 delitu-gertakari, motibazio politikoagatik, arlo horretan. Horien ar-

82. BUNDESMINISTERIUM DES INNERN, FÜR BAU UND HEIMAT, "Verfassungsschutzbericht 2020", Bundesminister des Innern, für Bau und Heimat, Berlin, 2021.

83. Gogoratu behar da Estatuaren babeserako delitu klasikotzat hartzen direla honako tipo penal hauek: StGB-ko ondorengo atalak: §§ 80-83, 84-91, 94-100a, 102-104a, 105-108e, 109-109h, 129a, 129b, 130, 234a edo 241a. Kriminalitate arruntaren arloan egiten diren delituak (esaterako, giza hilketa, lesio delituak, sutea, jarkitzea eta kalteak) "arrazoi politikoengatik burututako kriminalitatea" kategoriaren barruan sartzen dira honako kasuetan: egitatearen edo araua hausten duenaren ezaugarrien ebaluazio globala egin ostean, horiek motibazio-politikoaren arrazoi direla ondorioztatuta daitekeenean, bere xedea borondate demokratikoan eragina izatea edo helburu politikoak lortu edo eragozte delako; edo erabaki politikoak gauzatzea eragotzi nahi dutenean, ordena libre eta demokratikoa edo bere oinarritzko ezaugarriren baten aurka, edo Federazioa edo bere Estatuaren egonkortasun edo segurtasunaren aurka; legezkontrako kaltea eragiten dutenean

konstituzio edo estatu federalen organoetako kideen jardutean, indarkeriaren edo horren prestakuntza-ekintzen bitartez Alemaniako Errepublika Federala arriskuan jarritz; pertsona bati zuzenduak daudenean ideologia politikoa, nazionalitatea, etnia, arraza, azalaren kolorea, erlijioa, munduaren ikuspegia, jatorria edo kanpoko itxura, desgaitasuna, sexu-orientazioa edo estatus soziala dela eta (gorroto delituak deritzonak). Aldi berean, kategorian honetako pertsona baten aurka zuzenean bideratuta ez dauden egitateak barnean hartzen ditu; hau da, erakunde edo objektu baten aurkakoa aurreko kasuetan kokatzen diren neurrian. Ikus BUNDESMINISTERIUM DES INNERN, FÜR BAU UND HEIMAT, "Verfassungsschutzbericht 2020..." op. cit., 24-25. Or.

tean, 15.275 propaganda-delitu (% 34,2) eta 3.365 indarkeriazko delitu<sup>84</sup> (% 7,5) bereiz daitezke<sup>85</sup>. Horrela, Alemanian arrazoi politikoengatik burututako delituen kopurua % 8,54 inguru igo zen 2020an, aurreko urtearekin alderatuta.

23.604 delitu-gertakari bereizten dira, eskuineko motibazio politikoa duen kriminalitateari atxikitakoak (% 52,81; aurreko urtearekin alderatuta % 5,65eko igoera); horietatik 13.659 propaganda delituak direlarik. Gainerakoan, 10.971 gertakari ezkerreko motibazio politikoa duen kriminalitateari atxikitzen zaizkio (% 24,55; % 11,39ko igoera), 425 erlijio-ideologiari (%1,03; % 12,24ko igoera) eta 1.016 atzerriko ideologiari (% 2,27; % 46,44ko jaitsiera). Azkenik, 8.624 delitu-gertakari (%19,30; % 29,41eko igoera) ezin zaizkio egotzi aurreko kategorietako bati ere<sup>86</sup>.

Guztira, 32.924 delitu-egitate izan dira, estremismoa atzean dutenak. Hauek demokraziarako oinarrizko printzipio konstituzionalak urratzeko asmoz egin direla pentsatzeko zantzuak dituzten gertaerak dira; bizitza demokratikorako ezinbestekoak diren printzipioak urratzeko asmoz burutu direnak, alegia. Estremismoak bultzatutako 32.924 delitu horietatik, 22.357 eskuineko motibazio politikoko kriminalitateari dagozkio (% 67,90; aurreko urtearekin alderatuta %5,01eko igoera), 6.632 ezkerreko motibazio politikoko kriminalitateari (% 20,14; % 2,84ko igoera), 409 ideologia erlijiosoak eragindako kriminalitateari (% 1,24; % 12,98ko igoera), eta 661 atzerriko ideologiak politikoki eragindako kriminalitateari (% 2; % 51,18ko jaitsiera). Azkenik, estremismoa atzean duten 2.865 gertakari ezin izan dira aurreko kategorietako batean ere sartu<sup>87</sup>.

**84.** Indarkeriazko 3.365 delitu horietatik, 1.785 lesioei dagozkie, eta 16 bizitzaren aurkako delituei (horien artean, 13 saiakuntza-mailan eta 3 burututa). BUNDESMINISTERIUM DES INNERN, FÜR BAU UND HEIMAT, "Politisch motivierte Kriminalität im Jahr 2020. Bundesweite Fallzahlen", Bundesminister des Innern, für Bau und Heimat, Berlin, 2021, 5-6. Or.

**85.** Datu hauetarako eta jarraian azalduko diren beste batzuetarako, ikus laburpen bat hemen: BUNDESMINISTERIUM DES INNERN, FÜR BAU UND HEIMAT, "Verfassungsschutzbericht 2020..." op. cit., 25. Or.

**86.** Ikus: BUNDESMINISTERIUM DES INNERN, FÜR BAU UND HEIMAT, "Verfassungsschutzbericht 2020..." op. cit., 26. Or.; BUNDESMINISTERIUM DES INNERN, FÜR BAU UND HEIMAT, "Politisch motivierte Kriminalität im Jahr 2020..." op. cit., 2-3. Or.

**87.** Ikus BUNDESMINISTERIUM DES INNERN, FÜR BAU UND HEIMAT, "Verfassungsschutzbericht 2020..." op. cit., 25. Or.; BUNDESMINISTERIUM DES INNERN, FÜR BAU UND HEIMAT, "Politisch motivierte Kriminalität im Jahr 2020..." op. cit., 19. Or.

**Gorroto-delituen** (*Hasskriminalität*) ikuspegi mugatu eta zehatzagoa hartzen bada, zentzu hertsian, murriztu egiten dira aipatu diren zifrak, 2020an guztira **10.240 gertakari** izan zirelarik. Horrek esan nahi du % 19,28ko igotzea izan dela aurreko urtearekin alderatuta. Jomugan dauden kolektiboen arabera, baina motibazio anitz egon daitezkeela kontuan hartuta<sup>88</sup>, honako hauek aurreikusten dira prebalentzia-ordenari jarraiki: xenofobia (9.420), atzerritarren aurkakoa (5.298), arrazakeria (2.899), antisemitismoa (2.351), islamofobia (1.026), orientazio sexuala (578), alemanen aurkakoa (222), sexu- eta genero-identitatea (204), estatus soziala (164), kristauen aurkakoa (141), ijitoen aurkakoa (128), gorroto delitoak (98), beste etnia-kidetasun bat (71), desgaitasuna (65) eta beste erlijio bat (37)<sup>89</sup>.

Azkenik, nabarmendu behar da delitu-tipologia zehatzei buruzko datu bat: **5.840 eragite delitu** (*Volksverhetzung*) erregistratu ziren 2020an<sup>90</sup>.

---

88. Hori dela eta, gaikako eremu guztien baturak ez du islatuko aipatutako gorroto-gertakarien zifra globala (10.240).

89. BUNDESMINISTERIUM DES INNERN, FÜR BAU UND HEIMAT, "Politisch motivierte Kriminalität im Jahr 2020..." op. cit., 7. Or.

90. Ikus: <https://de.statista.com/statistik/daten/studie/157434/umfrage/polizeilich-erfasste-faelle-von-volksverhetzung-seit-1996/>

## 2.4

# LABURPENA ETA HAUSNARKETA KONPARATUAK

### GORROTO GERTAKARIAK (POLIZIA) ETA GORROTO DELITUAK (FISKALTA ETA EPAILEAK/AUZITEGIAK).

Jarraian, erreferentziazko esparru konparatuari (Erresuma Batua, Frantzia eta Alemania) dagozkion datu eguneratuen laburpen sintetikoa egingo da, OSCEk ematen dituen datuak barne.

#### 2.4.1. ERRESUMA BATUA

##### 2.4.1.1. OSCE

**POLIZIA.** 2020an **125.848 gorroto delitu erregistratu ziren**. Horietatik 124.091 Ingalaterra eta Galesekoak dira (% 98,60) eta 1.757 Ipar Irlandakoak (% 1,40). Ez da Eskoziari buruzko daturik ematen. Ingalaterra eta Galesi buruzko 124.091 gorroto delituetan, aurreiritzietan oinarritutako 131.466 arrazoi daude tartean, honela banakatzen direnak: arrazakeria eta xenofobia (92.771), LGTBren aurkakoa (21.675), desgaitasuna (9.943), musulmanen aurkakoa (2.703), bestelako erlijio edo sinesmenak (2.565), antisemitismoa (1.288) eta kristauen aurkakoa (521).

**FISKALTA.** 2020an, guztira, **16.824 gorroto delitu auzipetu ziren**. Horietatik 10.969 Ingalaterra eta Galesi dagozkie (% 65,20), 5.525 Eskoziari (% 32,84) eta 330 Ipar Irlandari (% 1,96).

**EPAILEAK/AUZITEGIAK.** 2020an **9.510 kondena jaso** ziren Ingalaterran eta Galesen **gorroto delituengatik**. Ez da Eskoziari eta Ipar Irlandari buruzko daturik eman.

### 2.4.1.2. BESTELAKO DATUAK

#### • ESKOZIA

**POLIZIA.** 2019/20an **6.448 gorroto gertakari** izan ziren. Horietatik, 6.147 (% 95,33) babestutako kategoria bakar baten ondorio dira, eta 301 (% 4,69), berriz, horien konbinazio baten ondorio. Gertakarien lehen taldearen barruan, baina kopuru osoari dagokionez, arrazaren kategoria gailentzen da (3.969 - % 61,55), eta, ondoren, sexu-orientazioa (1.314 - % 20,38), erlijioa (501 - % 7,77), desgaitasuna (267 - % 4,14) eta identitate transgeneroa (96 - % 1,49).

**FISKALTZA.** 2020/21ean, poliziak eta beste agentzia batzuek **guztira 5.525 egozpenen** berri eman zioten fiskaltzari (biktimizazio anizkoitzagatik bereizi gabe). Egozpen bakoitzean dagoen kategoria bakoitza zenbatuta (biktimizazio anizkoitzaren arabera banatuz), arraza gailentzen da, 3.285 egozpenekin; ondoren, sexu-orientazioa dago (1.580), bai eta erlijioa (573), desgaitasuna (448) eta identitate transgeneroa (46) ere.

Arrazari buruzko egozpenetatik, ziur dakigu gutxienez 2.664 (% 81,09) judizializatu egin zirela. Sexu-orientazioari buruzko egozpenetatik, 1.299 (% 82,21) judizializatu egin ziren. Erlijioari buruzko 573 egozpenetatik 463 (% 80,80) judizializatu egin ziren. Desgaitasunari buruzko egozpenetatik, 368 (% 82,14) judizializatu egin ziren. Identitate transgeneroari buruzko 46 egozpenetatik 32 (% 69,56) judizializatu egin ziren.

**EPAILEAK/AUZITEGIAK.** 2019/20 urtean, **595 kondena izan ziren, arraza-astungarri/-adierazle<sup>91</sup> bat zutenak, 420 sexu-orientazioari buruzkoak, 230 arrazoi erlijiosoei buruzkoak, 87 desgaitasunari buruzkoak eta 14 transgeneroari buruzkoak.**

#### • IPAR IRLANDA

**POLIZIA.** 2020/21ean **2.982 gorroto-gertakari** izan ziren. Horien artean, arraza kategoria gailentzen da (1.231), ondoren sektarismoa (1.102), homo-

91. Kontuan hartu behar da kondena ezarrita dagoen prozedura berean hainbat astungarri/adierazle agertzen badira, guztiak hartuko direla kontuan eta ondorengo datuetan jasoko direla. Gainera, adierazle bat edukitzeak ez du esan nahi kondena bat dagoenik lege-astuntze batengatik; aitzitik, gerta liteke prozeduran informazio gehigarria eta interesgarria emateko balio duten adierazleak kontuan hartu izana ere. Poliziak eta fiskaltzak irauli dezakete informazio hori.

Laburbilduz, delitu batengatik kondena bati astuntze/adierazle bat baino gehiago lotzen bazaizkio (adibidez, arraza eta erlijioa), bi astuntze/adierazle horiek zenbatuko dira. Informazio hori poliziak eta fiskaltzak eman dezakete. Laburbilduz, delitu batengatik kondena bati astuntze/adierazle bat baino gehiago gehitzen bazaizkio (adibidez, arraza eta erlijioa), bi astuntze/adierazle horiek zenbatuko dira.



fobia (401), desgaitasuna (119), fedea/erlijioa (66) eta transfobia (63). Bestalde, **gertakari horiei lotuta 2.099 delitu** erregistratu ziren (arraza: 864; sektarismoa: 802; homofobia: 265; desgaitasuna: 78; fedea/erlijioa: 53 eta transfobia: 37).

**FISKALTZA.** 2019/20 aldian, poliziarengandik **gorroto-delituekin lotutako 330 kasu** jaso zituen fiskaltzak, kasu bakoitzean pertsona bat edo gehiagok parte hartu ahal izan zutelarik. Kategoria babestuaren arabera, arraza gailentzen da (106 - % 32,12), eta ondoren sektarismoa (86 - % 26,06), homofobia (54 - % 16,36), fedea/erlijioa (39 - % 11,82), desgaitasuna (13 - % 2,94) eta transfobia (6 - % 1,82). Gainera, 26 kasu (% 7,88) motibazio anizkoitzarekin lotuta egongo lirarteke.

Fiskaltzak hartutako azken erabakiaren arabera, bi datu mota ditugu.

Lehenik eta behin, Ipar Irlandako Poliziak gorrotoak eragindako gertakarien bolumen osoa erreferentziazat hartuta, karguak aurkezteko erabakiari buruzko datuak. 360 erabakitatik<sup>92</sup>, **13** (% 3,61) **Koronako Auzitegian** (*Crown Court*) **epaituak izan zitezen pertsonen aurka karguak aurkezteko izan ziren** (*indictable prosecution*). **170 berriz** (% 47,22) **Magistratu-Auzitegietan** (*Magistrates' Courts*) **epaituak izan zitezen pertsonen aurka karguak aurkezteko** (*summary prosecution*).

Bigarrenik, fiskal batek, lege-xedapen baten arabera, eta ez izaera polizialeko definizio baten arabera, etsaitasunagatik astundutako gorroto-delituzat hartutako kasuei buruzko datuak. Guztira 260 erabaki hartu dira eta horietatik **15** (% 5,77) **Koroako Auzitegian** (*Crown Court*) **epaituak izan zitezen pertsonen aurka karguak aurkezteko izan ziren** (*indictable prosecution*). **150 berriz** (% 57,69) **Magistratu-Auzitegietan** (*Magistrates' Courts*) **epaituak izan zitezen pertsonen aurka karguak aurkezteko** (*summary prosecution*).

**EPAILEAK/AUZITEGIAK.** 2019/20an, *summary prosecution* delakoa ardatz hartua, pertsona gehien barne hartzen dituen erabaki-mota izanik, honako datu mota hauek jasotzen dira.

Ipar Irlandako poliziak gorrotoak eragindako gertakari bezala markatutako kasu kopurua erreferentziazat hartuta, karguak aurkezteko erabakiari buruzko datuei dagokienez, **95 akusatu kondenatu zituzten** [arraza: 35; sektarismoa: 23; homofobia: 14; fedea/erlijioa: 9; motibazio anizkoitza: 7; desgaitasuna: 5; transfobia: 2] gutxienez delitu batengatik.

92. Kontuan hartu behar da kasu beraren baitan erabaki bat baino gehiago egon daitezkeela, adibidez, norbanako ezberdinak daudelako.

Fiskal batek lege-xedapen baten arabera etsaitasunagatik astundutako gorroto-delituak hartutako kasuak erreferentziatzen hartuta, karguak aurkezteko erabakiari buruzko datuei dagokienez, **90 akusatu zigortu zituzten** [arraza: 46; erlijioa: 24; sexu-orientazioa: 11; motibazio anizkoitza: 8; desgaitasuna: 1] gutxienez delitu bat egiteagatik.

#### • INGALATERRA ETA GALES

**POLIZIA.** 2020/21 aldian **124.091 gorroto-delitu erregistratu** ziren. Era berean, guztira 119.868 motibazio-faktore presente egon dira aipatutako gorroto-delituetan. Kategoriaren eta prebalentzia-ordenaren arabera, honako hauek nabarmentzen dira: arraza (85.268 – % 71,13), sexu-orientazioa (17.135 – % 14,29), desgaitasuna (9.208 – % 7,68), erlijioa (5.627 – % 4,39) eta transgeneroa (2.630 – % 2,19).

**FISKALTA.** 2020/21 aldian **10.679 akusazio aurkeztu ziren gorroto-delituengatik**. Kategoriaren eta prebalentzia-ordenaren arabera, honako hauek nabarmentzen dira: arraza (8.202 – % 76,80), homofobia (1.744 – % 16,33), erlijioa (362 – % 3,39), desgaitasuna (292 – % 2,73) eta transfobia (79 – % 0,08).

**EPAILEAK/AUZITEGIAK.** 2020/21 aldian, aurkeztutako 10.679 akusazioetatik **9.263k kondena epaia lortu zuten**. Zehazki, 7.115 pertsona kondenatu zituzten arrazari dagokionez; 1.555, homofobiari dagokionez; 294, erlijioari dagokionez; 236, desgaitasunari dagokionez; eta 63, transfobiari dagokionez.

## 2.4.2. FRANTZIA

### 2.4.2.1. OSCE

**POLIZIA.** 2020an **2.672 gorroto-delitu erregistratu ziren**<sup>93</sup>. Horien artean, eta kategorien artean nolabaiteko bikoiztasuna egon daitekeela kontuan hartuta, honako hauek dira nagusi prebalentzia-ordenari jarraiki: arrazakeria eta xenofobia (1.550), LGBTIren aurkakoa (1.063), kristauen aurkakoa (813), antisemitismoa (337) eta musulmanen aurkakoa (235).

93. Delitu horiei gorrotoa edo indarkeria, difamazioa edo irain publikoak eragitearen ondoriozko 3.531 delitu gehitzen zaizkie. Baina horiek OSCE/ODIHR

erakundeari igorri bazitzaizkion ere, ez dira kontuan hartu behar ez baitator bat erakunde horrek gorroto-delituari buruz emandako definizioarekin.

**FISKALTZA:** Ez da daturik ematen.

**EPAILEAK/AUZITEGIAK:** Ez da daturik ematen.

#### 2.4.2.2. BESTE DATU BATZUK

**POLIZIA.** 2020an, **11.338 arau-hauste egin dira arraza, jatorri, etnia eta erlijioarekin lotura esplizitua dutenak** Frantziako lurralde osoan. Horietatik 5.511 krimenak eta delituak izan ziren (% 48,6) eta 5.827 4. eta 5. mailako urraketak (% 51,4). Bestalde, **234 ekintza islamofobo erregistratu ziren, 339 ekintza antisemita, eta 1.590 arau-hauste homofobo edo transfoboak izan ziren.**

**BESTE ENTITATE BATZUK.** PHAROS plataformaren eskutik **Internet bidez egindako gorroto-delituei** soilik erreparatzen badiegu, 23.525 salaketa erregistratu dira 2020an mota horretako delituengatik.

**FISKALTZA:** 2019an, arraza, etnia, jatorri eta erlijioarekin lotutako 7.283 kasu iritsi ziren Fiskaltzaren eskuetara. Horietatik, **6.386 pertsona auzipetu zituzten.** Ez dago gainerako kolektiboei buruzko daturik.

**EPAILEAK/AUZITEGIAK:** 2019an, **arrazakeriaren astungarria oinarri zuten 843 kondena zenbatu ziren.** Ez dago gainerako kolektiboei buruzko daturik.

### 2.4.3. ALEMANIA

#### 2.4.3.1. OSCE

**POLIZIA.** 2020an **10.240 gorroto-delitu erregistratu ziren.** Erregistratutako gorroto-delitu horien guztien zati batean<sup>94</sup>, 13.950 motibazio daude, honela banatuta: arrazakeria eta xenofobia (9.420), antisemitismoa (2.350), musulmanen aurkakoa (1.026), LGBTIren aurkakoa (578), generoa (204), kristauen aurkakoa (141), erromanien aurkakoa (128), desgaitasuna (65) eta beste erlijio edo sinesmenak (37).

**FISKALTZA.** Ez da daturik ematen.

94. Erregistratutako 10.240 gorroto-delituen artean gorroto-diskurtsoaren delitu batzuk daude, baina ez dira zenbatuko kategorien arabera banakapenerako.

Era berean, delitu bakar bat motibazio batekin baino gehiagorekin erregistratu ahal izango da.

**EPAILEAK/AUZITEGIAK.** Ez da daturik ematen.

#### 2.4.3.2. BESTE DATU BATZUK

2020an, 44.692 delitu-gertakari izan dira motibazio politikoagatik; horien artean, 15.275 propaganda-delitu (%34,2) eta 3.365 indarkeriazko delitu (% 7,5) bereiz daitezke. Gainerakoan, 23.604 delitu-gertakari eskuineko motibazio politikoaren duen kriminalitateari atxikitzen zaizkio (% 52,81), 10.971 ezkerreko motibazio politikoaren duen kriminalitateari (% 24,55), 477 erlijio-ideologiari (% 1,07) eta 1.016 atzerriko ideologiari (% 2,27). Aldiz, 8.624 delitu-gertakari (%19,30) ezin zaizkio egotzi aurreko kategorietako bati ere.

Gorroto-delituen (*Hasskriminalität*) ikuspegi mugatu eta zehatzenak, motibazio politikoko indarkeria azpikategoria den aldetik (*Politisch Motivierte Kriminalität* – PMK), lehenagoko zifrak murrizten ditu, 2020an **10.240 gertakari** erregistratu direlarik. Jomugan dagoen kolektiboaren arabera, baina motibazio anitz egon daitezkeela kontuan hartuta, honako hauek aurreikusten dira prebalentzia-ordenari jarraiki: xenofobia (9.420), atzerriarren aurkakoa (5.298), arrazakeria (2.899), antisemitismoa (2.351), islamofobia (1.026), orientazio sexuala (578), alemanen aurkakoa (222), sexu- eta genero-identitatea (204), estatus soziala (164), kristauen aurkakoa (141), ijitoen aurkakoa (128), gorroto delitoak (98), beste etnia-kidetasun bat (71), desgaitasuna (65) eta beste erlijio bat (37).

Alemaniko poliziak erregistratutako **eragite delituak** (*Volksverhetzung*) **5.840** izan ziren 2020an.

# 03



**Eraberean  
Sarearen Txostenak**

Atal honen helburua Eraberean Sareak argitaratutako txostenen diagnostiko analitikoa egitea da. Eta hori guztia, aurreko Txostenean azaldu zen moduan<sup>95</sup>, identifikatzeko ze punturaino txosten horietako gertakariak polizia-gertakariekin alderatu daitekeen informazio-ezagutza duten. Eta hori ez da poliziarena ez den logika bati erantzuten dioten datuen balorazioari dagokionez, baizik eta polizia-gertakariak eta bestelakoak atzemaiteko “antenak” egokitzen joateko, zifra beltzaren beharrezko argipenean lankidetzari handiagoko eszenatoki baterantz.

Aurreko Txostenean adierazi zen bezala, Eraberean Sarea 2015ean sortu zen, politika publikoetan eta euskal gizarte zibilean tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza lortzeko helburuarekin. Eusko Jaurlaritzako ordezkariak eta hiru begiradekin -migratzaileak, ijito herria eta LGTBI kolektiboan egiten duten elkarteak osatzen dute. Zehazki, hauek dira elkarteak: aldarte, CEAR Euskadi, Gurutze Gorria, Gao Lacho Drom, CITE-CC.OO Bizkaia, Errespetuz, Kale Dor Kayiko, Nevipen, Agifugi, Gehitu eta SOS Arrazakeria Gipuzkoa.

Erakunde horiek EAeko hiru probintziak hartzen dituzte, eta antena gisa jarduten dute diskriminazio-egoerak eta gorroto-delituak detektatzeko, lehen aipatutako hiru begiradetako kide izatea oinarri hartuta, bai eta egoera horiek jasan dituzten pertsonen eta taldeen artean ere.

Ondoren, lortutako datuak Eraberean Sarearen aplikazio informatikoan sartzen dira eta sareko jarduerari buruzko urteko txostenean sartzen dira. Txosten honi dagokionez<sup>96</sup>, 63 pertsonari eman zaie arreta 2020an, 2019an baino 2 gutxiago: 25 pertsona Bizkaian (-7, 2019rekin alderatuta), 25 pertsona Araban (+6, 2019rekin alderatuta) eta 13 pertsona Gipuzkoan (-1, 2019rekin alderatuta). Kasu gehienak diskriminazio-kasu posible gisa artatu dira, biktimaren etnialarri, nazionalitatean edo jatorrian oinarrituta (%70); zehazki, artatutako kasu guztien % 51 etorkinen kolektiboaren aurkako diskriminazio-kasuak dira, eta %19, berriz, ijitoen kolektiboaren aurkako diskriminazio-kasuak dira. Artatutako kasuen %30, aldiz, LGTBI kolektiboko kide izateagatik pertsona baten aurka egindako diskriminazio-kasuak dira, aurreko urtekoaren oso antzekoak (%47,7, %23,1 eta %29,2, hurrenez hurren). Nabarmendu behar da, halaber, kasuen %85ean diskriminazio-zantzuak zeudela egiaztatuta zela, 2019an baino zertxobait gutxiago (orduan zifra %92,5ekoa izan zen).

2020an erregistratutako diskriminazio gehienak zuzenak izan ziren (%85;

---

95. CÁTEDRA UNESCO DE DERECHOS HUMANOS Y PODERES PÚBLICOS/ERTZAINZA, “Informe de incidentes de odio de Euskadi 2020”, op. cit., 79-82. orr.

96. ERABEREAN, RED PARA LA IGUALDAD DE TRATO Y NO DISCRIMINACIÓN, “Informe 2020 de actividad de la red”, Gobierno Vasco, Departamento de Empleo y Políticas Sociales, Vitoria-Gasteiz, 2021.

%87 2019an), hau da, pertsona edo kolektibo jakin batzuekiko diskriminazio-tratua sustatzen duten egoerak, txostenak adierazten duen bezala; gainerako %15a, berriz, zeharkako diskriminazioak izango lirateke, hau da, itxuraz neutroa den arau edo praktika batek desabantaila-egoeran jartzen duenean subjektua. Ildo horretan, nabarmendu behar da diskriminazio gehienak eremu pribatuan gertatu direla (%56), baina 2019an baino neurri txikiagoan (%63,1). Eremu pribatuan, diskriminazio gehienak etxebizitzaren eremuan gertatu ziren (%23,3), 2019an baino gutxiago, orduan %39 izan baitziren. Eremu publikoari dagokionez, 2020an, diskriminazio gehienak Segurtasun Indar eta Kidegoen (%22,7) eta osasunaren (%18,2) esparruan kokatzen dira; 2019an, berriz, esparru nagusiak osasuna (%25) eta espazio publikoa (%20,8) izan ziren.

Bestalde, urratutako eskubideei dagokienez, osotasun fisikorako eta intimitaterako eskubidea nabarmentzen da (%24,5 bakoitzak). Eskubideen urraketan ehunekoek aldaketak izan dituzte aurreko urtearekin alderatuta; izan ere, intimitaterako eskubidearen urraketak kasuen %40 ziren, eta etxebizitzarako eskubidea bigarren tokian zegoen, %23,1ekin (%17 2020an) eta hirugarren lekuan osotasun fisikoa zegoen (%12,3).

Artatutako pertsonen profilari dagokionez, azken urte honetan datuen erregistroak hobera egin duela ikusten da. Adibidez, adinari dagokionez, gehienak 18 eta 40 urte bitarteko gazte helduak dira (%83,4); 2019an, berriz, %53,8 baino ez ziren. Horren arrazoia izan daiteke urte horretan artatutako pertsonen ia laurden baten adina ez zela erregistratu (%24,6). Bestalde, sexuari dagokionez, 2020an artatutako pertsonen %54 emakumeak izan ziren, %38 gizonak eta %8 binarioak ez ziren pertsonak. Horri dagokionez, nabarmentzeko modukoak dira ehunekoetan izandako aldaketak; izan ere, 2019an, artatutako emakumeen eta binarioak ez diren pertsonen kopurua askoz txikiagoa izan zen (%34 eta %2, hurrenez hurren), eta gizonena dezente handiagoa (%45), artatutako pertsonen %18ko sexua erregistratu ez zen bitartean.

Profila osatzeko, gehitu behar da artatutako pertsonen %55 Espainiako Estatutik etorri zirela 2020an (%62,3 2019an). Atzeritarren artean, Magrebetik eta Latinoamerikatik etorritakoak nabarmentzen dira (guztizkoaren %16 eta %18, hurrenez hurren; %14,8 eta %11,5, hurrenez hurren, 2019an). Hala ere, datu horiek kolektiboaren arabera banakatuz gero, ikus daiteke ijito kolektiboaren aurkako diskriminazioa jasan zuten pertsonen %100ek eta LGTBI kolektiboaren aurkako diskriminazioa pairatu zutenen %78,9ak nazionalitate espainiarra zuela, portzentaje hori %25era jaisten delarik beren etorkin jatorriagatik diskriminazioa pairatu duten pertsonen kasuan.

Edonola ere, sareak berak 2016. urteari buruzko txostenean aipatzen duen bezala, emandako datuak ezin dira hartu EAEn biktimaren naziona-

litateagatik, jatorriagatik, etniagatik, orientazioagatik eta sexu- eta genero-identitateagatik dagoen diskriminazio-errealitatearen adierazgarritzat<sup>97</sup>. Era berean, lurralde horretako gorroto-delituen errealitatera ere ez gaitu hurbiltzen, diskriminazio-kasu askok ez baitute gorroto-delitutzat hartzeko adinako garrantzirik. Hala eta guztiz ere, aurreko urtean nabarmendu zen bezala, datuen birtualtasuna ez da baztertzekoa, errealitate hori ikusarazten laguntzen baitu kolektibo horiekin estuki lan egiten duten elkarteen ikuspegitik, eta, beraz, ezin hobea izango litzateke hainbat arlotan emandako informazioa zabaltzea<sup>98</sup>.

Azken batean, gogorarazi behar da, aurreko txostenean azaldu zen bezala, gure testuinguruan gorroto-gertakariei buruz egin diren ikerketa gehienak datu ofizialetan oinarritu direla, eta datu horiek, jakina denez, oso mugatuak dira, mota horretako intzidenteen kopuru beltz handiaren ondorioz. Horregatik, funtsezkoa da txostenak beste ikuspegi batetik egitea, adibidez elkarre-ikuspegitik, polizia ezagutzen ez dituen gertakariei buruzko informazio-esparrua zabaltzeko.

Ez da ahaztu behar diskriminazioaren aurkako egoeraren ikuspegi osoago batek, elkarre-ikuspegi datorren informazioarekin, zeinak, aipatu bezala, talde minoritarioekin harreman zuzenagoa eta ohikoena dutenak baitira, politika publikoa horren inguruan orientatzen lagun dezakeela, Zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoaren oinarrian dagoen bizikidetzaren plurala zuzenean ahuldu besterik egiten ez duen fenomeno horri aurre egiteko eta aurrea hartzeko<sup>99</sup>.

---

97. ERABEREAN, RED PARA LA IGUALDAD DE TRATO Y NO DISCRIMINACIÓN, "Informe 2016 de actividad de la red", Gobierno Vasco, Departamento de Empleo y Políticas Sociales, Vitoria-Gasteiz, 2017, 45. orr.

98. Ikusi, zentzu honetan, CÁTEDRA UNESCO DE DERECHOS HUMANOS Y PODERES PÚBLICOS/ERTZAINZA, "Informe de incidentes de odio de Euskadi 2020", op. cit., 79-82. orr.

99. AGUILAR GARCÍA, M. Á. (dir.), "Manual práctico para la investigación y enjuiciamiento de delitos de odio y discriminación", Centre d'Estudis Jurídics i Formació Especialitzada, 2015, 17 eta 79. orr.



# 04



**EAE mailan bikotekide  
edo bikotekide ohien  
eremuan genero-  
indarkeriaren ondorioz  
eragindako giza hilketa  
eta/edo erailketa  
epaien azterketa**

Sarreran adierazi den bezala, txostenaren edizio honek 2002-2020 urteen artean EAeko lurralde-eremuan bikotekide edo bikotekide ohi ziren emakumeen aurka gizonetako aurrera eramandako 25 giza hilketak eta erailketak kasu buruturen inguruko azterlan juridiko kriminologiko bat jasotzen du.

Azterlan hau gorroto-gertakarietarako buruzko urteroko txostenaren baitan sartzearen egokitasuna hainbat arrazoik azaltzen dute. Lehenik eta behin, sexua eta generoa Z.K. 22.4. artikuluko inguruabar astungarrian berriaz jasotako elementuak izanik, hauek potentzian gorroto-delitu bat burutzea eragin dezakete, pertsona bat biktima gisa hautatzeko faktoreak badira. Honek, lehen begirada batean, gorroto-delituak (txosten honen xede nagusia) eta genero-indarkeriako delituak (emakumearen aurkako indarkeria delarik, hainbat adierazpenen artean, bere gauzatze nagusia) arteko elkargune posible bat azaleratzen du. Bata eta bestea, tradizioz, fenomeno bereizi gisa ulertu eta jorratu izan dira, hori neurri batean, «genero-indarkeria» eraikitako terminoaren kontzeptuzko mugaketa eztabaidagarriak baldintzatuta egon delarik. Genero indarkeria Espainiako ordenamendu juridiko penalean bikotekideak eragindako indarkeriara mugatuta zegoenez, ez zirudien ez erraza ez naturala hau gorroto-delituaren fenomenologiaren barruan kokatzea, gorroto delituak biktimaren trukagarritasunarekin lotu ohi den errealitate gisa hautematen diren heinean. Hala eta guztiz ere, azken urteotan Auzitegiak Genero-indarkeriako kasuetan ZK ko 22.4 artikuluko astungarria aplikatzen hasi direla kontuan hartuta, egokia da EAEn jasotako kasurik larrienak (giza hilketak eta erailketak) hautatzea eta horien trataera judizialaren inguruko azterlan pilotu bat aurrera eramatea, eskala txikian. Kasuen kopuru mugatuak eta haien larritasunak ematen dien inpaktuak, kasuen trazabilitatea erraztu du eta informazio baliotsua ateratzeko aukera ematen du. Horrela, azterlan honen beste birtualtasunetako bat da gainerako gorroto-gertakarietara zabalduko trazabilitate batek urteroko txosten honi ekar diezaiokkeenaren adibide gisa jarduten duela.

Azterlana egiteko, Ertzaintzak bildutako datuak eta lehen auzialdian emandako Epaien edukiak aztertu dira hautatutako 25 kasuen inguruan.

Txosten honetan, beraz, ez dira aztertzen etxeko indarkeriako kasuak, emakumearen bikotekide edo bikotekide ohi ez den pertsona batek eragindako erailketa edo giza hilketa kasuak, ezta biktimarentzat heriotza-emaitzarik egon ez den kasuak ere.

Lan hau aurrera eramaterako orduan, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Etxeko Indarkeriaren eta Genero Indarkeriaren aurkako Behatokiak egindako *“Análisis de las Sentencias dictadas en el año 2018 relativas a ho-*

*micidios o asesinatos por violencia de género y doméstica*” txostena erabili da erreferentzia gisa, Ertzaintzak bildutako polizia-datuen analisiarekin osatu delarik.

2002tik gaurdaino ofizialki EAEn genero-indarkeriaren ondorioz 38 hildako zenbatu diren arren, txosten honetan 25 kasu aztertzen dira, horien inguruko datuak polizia-ikerketaren fasetik Epaia ematen den fasera arte lortu ahal izan diren heinean.

Polizia-datuak Ertzaintzaren lankidetzari esker eskuratu ahal izan dira, ad hoc erraztu dituelarik datuak txosten hau egin ahal izateko. Ebazpen judicialak CENDOG datu-base publikoaren bidez lortu dira, eta horien trazar-bilitatea posible izan da kasuen kopuru murrizari esker.

# 4.1

## BIKTIMA ETA BIKTIMARIOAREN PROFILA


Azterlana 25 kasuren azterketatik abiatzen bada ere, egilea 24 kasutan bakarrik ezagutzen da, kasu batean prozedura penala akusatuaren absoluzio-epaiarekin amaitu baita.

### 4.1.1. JATORRIA

#### EGILEAK

Akusatua kondenatua izan den 24 kasuetatik 12tan egilea jatorri espainiarrekoa da, eta gainerako 12 kasuetan atzerrian jaio da.

#### 47. IRD AKUSATUEN JATORRIA (2021, N=24)




Atzerritar jatorriko akusatuei dagokienez, horietako 6 Ameriketan jaiotakoak dira (Hego Amerika eta Karibeko Uharteak), 4 Europan (Errumania, Portugal eta Belgika) eta 2 Afrikan (Maroko eta Nigeria).

la ez dago daturik egitateen unean atzerriko jatorria duten akusatuen administrazio-egoerari buruz. Bi Epaietan bakarrik zehazten da akusatu atzerritarrak legezko bizilekua zuela Espainian egitateen unean.

### BIKTIMAK

Hildako 25 biktimetatik 23ren jatorria baino ez da ezagutzen. Emakumeetatik 13 Espainian jaiotak ziren, eta gainerako 10ak atzerrian.

#### 48.IRD BIKTIMEN JATORRIA (2021, N=25)




Emakume atzerritarretatik 6 Ameriketan jaiotak ziren (Hego Amerika eta Karibeko Uharteak), 2 Europan (Errumania) eta 2 Afrikan (Sierra Leona eta Nigeria). Horietako emakume bat egoera administratibo irregularrean zegoen gertakarien unean, 4ek legezko bizilekua zuten Espainian, eta ez dakigu zein zen administrazio-egoera 5 biktimaren kasuan.

**4.1.2.  
ADINA**


24 akusatuen batez besteko adina 39 urtekoa zen gertakarien unean.

**49. IRD AKUSATUEN ADINA (2021, N=24)**



Datu hau 22 biktimaren kasuan bakarrik ezagutzen dela kontuan hartuta, 37 urtekoa da emakume horien batez besteko adina.

**50. IRD BIKTIMEN ADINA (2021, N=25)**




**4.1.3.****AFEKTIBITATE ETA BIZIKIDETZA HARREMANAK**

Kasuen % 66,7 batean (16 kasu), biktima eta biktimarioaren artean **afektibitate- edo bikote-harremana bizirik** zegoen. Harreman hori aldeztatik aurretik amaituta zegoen berriz kasuen % 33,3 batean.


Biktima eta biktimarioaren artean harreman afektiboa bizirik zegoen 16 kasuetatik 5etan, biktimak ekintza hilgarriaren aurretik banantzeko edo bizikidetzaren hausteko asmoa iragarri zuela adierazten da.

Bestalde, gertakarien unean biktima eta biktimarioaren arteko harreman afektiboa amaitua zegoen 8 kasuetatik 5etan, hura amaitzea biktimaren erabakia izan zela jasotzen da.

**Ezkontza eta bizikidetzadun harreman sentimentala** dira, hain zuzen, biktima eta biktimarioa gertakarien unean edo aurretik gehien lotzen zituen harremana, lotura mota hauek aztertutako 10 kasutan egiaztatuta direlarik, hurrenez hurren.

**51. IRD BIKTIMAREN ETA AKUSATUAREN ARTEKO LOTURA (2021, N=24)**

## 52. IRD BIKTIMAREN ETA AKUSATUAREN ARTEKO LOTURA (2021, N=24)



Biktima eta biktimarioa lotzen zituen harreman sentimentala kasu batean ezkontzaz kanpokoa zen akusatuaren aldetik<sup>100</sup>.

#### 4.1.4. UMEZURTZ-EGOERAN GERATU DIREN SEME-ALABAK ETA ADINGABEAK

Aztertutako 25 kasuen esparruan, gizonezko bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako giza hilketa edo eraiketaren ondorioz ama galdu duten 40 seme-alaba daudela agerian geratu da.

Hildakoen 40 seme-alabetatik 22 adingabeak ziren gertakarien unean, eta 10ek 10 urte baino gutxiago zituzten<sup>101</sup>. Adingabe horietako 14, gainera, erasotzaileen seme-alabak ziren. Ildo horretan, emakumeetatik 13k (biktimen % 52) seme-alaba adingabeak zituzten beren ardurapean gertakarien unean.

Adingabe horietako 9 gertaeren lekuko zuzenak izan ziren, eta horietako 3 etxean zeuden gertakariak jazo ziren unean.

100. Arabako Probintzia Entzutegiaren Epaia (2. Atala), 333/2017 zk., Zinpeko Epaimahaia, abenduak 21ekoa.

101. Epaietan ez dago jasota 4 adingaberen adin zehatza.



## 4.2


# EGITATEEN EZAUGARRIAK

### 4.2.1. ERABILITAKO METODOA

**Arma zuriaren erabilera** izan da emakumeen giza hilketa edo erailketen egi-leek gehien erabili duten metodoa.

Kasu batzuetan biktimaren heriotza eragiteko metodo bat baino gehiago erabili direla kontuan hartuta, honako grafiko honek metodo bakoitza zenbat kasutan erabili den adierazten da:


53. IRD ERASOTZAILEAK ERABILITAKO METODOA (2021, EPAIAK=25, N=29)



### 4.2.2. DELITUA NON BURUTU DEN

Delitua etxebizitza baten barruan burutu da kasuen % 88 batean. Zehazki, 13 kasutan **bizileku amankomunean** burutu da giza hilketa, eta 7 kasutan berriz **biktimaren etxebizitzan**.

## 54. IRD KASUEN BANAKETA DELITUA BURUTU DEN LEKUAREN ARABERA (2021, N=25)




Kasuetako batean, erasoak biktimaren etxebizitzan hasten da, eta errepide batean amaitzen da, biktima ibilgailu batekin harrapatzen delarik<sup>102</sup>.

### 4.2.3. LURRALDE-BANAKETA

**Bizkaia** izan da kasu gehien metatu dituen probintzia.


## 55. IRD KASUEN BANAKETA AUTONOMIA-ERKIDEGOKA (2021, N=25)



102. Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaia (1. Atala), 34/2018 zk., Zinpeko Epaimahaia, apirilak 26koa.

Taula honetan, kasu bat baino gehiago jazo den EAEko hiriak edo herriak agertzen dira:


#### 56. IRD HIRIAK EDO HERRIAK (2021, N=25)



#### 4.2.4. HILABETEEN ARABERAKO BANAKETA

**Uztaila eta abuztua** dira kasu gehien metatu dituzten hilabeteak.

#### 57. IRD KASUEN BANAKETA HILABETEEN ARABERA (2021, N=25)




#### 4.2.5.

#### ASTEKO EGUNEN ARABERAKO BANAKETA

Gehien errepikatu den asteko eguna **larunbata** izan da, zifra altuenak aste-buruan edo hurrengo egunetan jasotzen direlarik.

#### 58. IRD KASUEN BANAKETA ASTEKO EGUNEN ARABERA (2021, N=25)




#### 4.2.6.

#### LEKUKOAK

Aztertutako 25 epaietatik 11tan biktimaren giza hilketa edo erailketa lekukoaren aurrean burutu dela adierazten da

#### 59. IRD KASUEN BANAKETA LEKUKOEN PRESENTZIAREN ARABERA (2021, N=25)




11 Epaietatik 6tan, seme-alabak gertaeren lekuko izan dira. Biktimaren beste gertuko batzuk 3 epaitan izan dira lekuko, eta bizilagunak edo gertaeraren tokitik gertu zebilen jendea berriz 4 epaitan. Horrez gain, erasotzailearen gertukoak 2 epaitan gertaeren lekuko izan dira.

#### 4.2.7. AKUSATUEN ERANTZUNA

24 kondena-epaietatik 22tan jasotzen da zein izan zen akusatuaren erantzuna giza hilketa edo erailketa burutu ondoren, kasuetako batean grafiko honetan adierazitako bi erantzun atzeman direlarik

#### 60. AKUSATUEN ERANTZUNA DELITUA BURUTU ONDOREN (2021, EPAIAK=24, N=25)



5 Epaitan, akusatuaren erantzuna **borondatezko entrega** batean oinarritu zen, bai zuzenean polizia-agenteen aurrean aurkeztuz, bai konfiantzazko pertsona bati egindakoa aitortuz, zeinak gertatutakoa poliziarri jakinarazi zion, egilearen aurkakotasunik gabe. 5 kasu horietatik 3tan aitortenaren inguruabar aringarria aplikatzen da, aurrerago zehaztuko den bezala.

4 epaitan, akusatuak **simulaziora edo delitua estaltzera bideratutako jarduerak** aurrera eramane zituen. Horrela, gertaerari trafiko-istripu itxura eman zion 2 kasutan<sup>103</sup> (kasu batean simulazio ekintzak amaitu ez zituelarik aurrez atxilotua izan zen aldetik), eta biktimaren gaindosi baten itxura beste kasu batean<sup>104</sup>. Horrez gain, hiltzaileak sute bat eragin zuen beste kasuetako batean, bera beste delitu baten biktima izan zela irudikatu

103. Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaia (1. Atala), 34/2018 zk., Zinpeko Epaimahaia, apirilak 26koa; Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaia (1. Atala),

18/2010 zk., Zinpeko Epaimahaia, martxoak 19koa.

104. Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaia (6. Atala), 78/2011 zk., azaroak 9koa.

nahian<sup>105</sup>. Delitua estaltzeko ekintzak aurrera zituzten bi akusatuek, harra-patuko zituztela uste izan zutenean, aitortu egin zuten gertakariaren egiletza, horietako bat, aitortpena egin aurretik, bere buruaz beste egiten saiatu zelarik, lortu gabe. Kasuetako batean, erasotzailearen senideek delitua estaltzen lagundu zuten<sup>106</sup>.

5 Epaietan, giza hilketa edo erailketaren ondoren akusatua **ihes egin** zuela jasotzen da. 5 kasuetatik 2tan, ordea, akusatua handik gutxira poliziaren aurrera itzuli zen, haren bila ari zirela edo erraz aurkituko zutenaren jakitun.

Gertakariak zuhurtziagabekeriaren giza hilketatzat jotzen diren Epaietan<sup>107</sup>, giza hilketa burutu ondoren akusatua tabernetara joan zela adierazten da, ingurutik ihes egin gabe, biktimari ezer gertatu ez zitzaizola pentsatuz.

2 Epaietan, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren heriotza eragin ondoren akusatua bere **buruaz beste egiten saiatu** zen, eta beste 2tan, berriz, **bere burua zauritu** zuen, ospitaleratu egin behar izan zutelarik. Epaiak azken bi gertakariak ordea ez zituen suizidio-saiakeraren testuinguruan kokatu. Hauetako 2 kasuetan, akusatua aitortu egin zuen egindakoa, ospitalean sendatu ondoren.

3 Epaietan, egitateen unean lekukorik egon ez zela baliatuz, akusatuek **ukatu egin zuten egitateetan parte hartu izana**, eta hala mantendu zuten Ahozko Epaietan<sup>108</sup>, non kondenatuak suertatu ziren beste inkriminazio-froga batzuen bidez. Hala ere, haietako batek, poliziaren aurrean egindako lehen deklarazio informal batean, gertaeren egiletza aitortu zuen, nahiz eta Ahozko Epaietan aitormen hori egin izana ukatu. Beste kasu batean, akusatua hasieran ukatu egin zuen biktima hil izana, emakumeak bere buruari emandako labankadak izan zirenen bertsioari eutsiz, baina ez zuen errugabetzeko bertsio hori mantendu Ahozko Epaietan<sup>109</sup>.

105. Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaiak (2. Atala), 56/2016 zk., Zinpeko Epaimahaia, urriak 28koa.

106. Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaiak (6. Atala), 78/2011 zk., azaroak 9koa.

107. Gipuzkoako Probintzia Entzutegiaren Epaiak (1. Atala), 420/2011 zk., Zinpeko Epaimahaia, azaroak 3koa.

108. Arabako Probintzia Entzutegiaren Epaiak (2. Ata-

la), 333/2017 zk., Zinpeko Epaimahaia, abenduak 21ekoa; Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaiak (6. Atala), 28/2016 zk., Zinpeko Epaimahaia, apirilak 14koa; Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaiak (6. Atala), 47/2007 zk., maiatzak 10ekoa.

109. Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaiak (6. Atala), 34/2013 zk., ekainak 7koa.

#### 4.2.8. MOTIBAZIOAK

Aztertutako 24 kondena-epaietatik 22tan, burututako eraso, **gizonak emakumearen aurrean zuen menderatze-jarreraren adierazgarria izan da.**

10 Epaietan, biktimaren harremana mozteko asmoa edo erabakia izan da egitate kriminala eragin duena, zeina akusatuak onartu ez duen. 2 Epaietan, gainera, biktimak harreman berri bat hasteak erreakzio jeloskor bat sorrarazi zuen akusatuarengan, hori ere erabakigarria zelarik egitate kriminalean<sup>110</sup>.

3 Epaietan berriz, biktimak akusatuaren posizioarekin bat ez zetorren jarrera mantentzea izan da ekintza kriminala eragin duena, seme-alabei buruzko erabakiei<sup>111</sup>, banku-kredituen eskaerari<sup>112</sup> edo biktimak akusatuari erreklamatzeko zizkion diru-kopuru batzuei dagokionean<sup>113</sup>. Horrela, 2 Epaietan adierazten da gertakarien aurreko eztabaida bat egon zela gai hauen inguruan.

9 Epaitan, erailketa edo giza hilketa akusatuak bere izaera zelotipiko eta oldarkorragatik biktimari eragiten zion indarkeria sistematikoaren gailurra izan da. Kasu batzuetan, akusatuak funtsik gabeko susmoak garatu zituen biktimak izan zezakeen ezkutuko harreman sentimental baten inguruan, eta kasu batean zain zeuden umearen aitatasunaren inguruan<sup>114</sup>.

Bi kasutan baino ezin dira kokatu gertaerak **genero-diskriminazioan oinarritutako eraso baten testuingurutik kanpo**. Kasuetako batean, Epaietan jasotzen den bezala *“amaiera hilgarria eragin zuen kausa ez zen bi pertsonen iraganean izan zuten harreman sentimentalekin lotuta egon, camping gas baten edukitzarekin baizik”*<sup>115</sup>.

Beste Epai batean, frogatutzat jotzen denez, gertakariak akusatuak jasan zuen erreakzio deliroide baten ondorioz sortu ziren, bere neska-laguna bere aurka antolatutako konplot baten parte zela sinetsi zuelarik, giza hilketaren aurreko egunetan bere amari adieraziz *“infiltratu bat da, ez da NANean agertzen den berbera”*<sup>116</sup>.

110. Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaiak (1. Atala), 48/2012 zk., Zinpeko Epaimahaia, ekainak 11koa; Arabako Probintzia Entzutegiaren Epaiak (2. Atala), 333/2017 zk., Zinpeko Epaimahaia, abenduak 21ekoa.

111. Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaiak (6. Atala), 64/2011 zk., irailak 30ekoa.

112. Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaiak (2. Atala), 56/2016 zk., Zinpeko Epaimahaia, urriak 28koa.

113. Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaiak (1. Atala), 18/2010 zk., Zinpeko Epaimahaia, martxoak 19koa.

114. Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaiak (6. Atala), 68/2006 zk., ekainak 29koa.

115. Gipuzkoako Probintzia Entzutegiaren Epaiak (1. Atala), 420/2011 zk., Zinpeko Epaimahaia, azaroak 3koa.

116. Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaiak (1. Atala), 80/2016 zk., Zinpeko Epaimahaia, abenduak 9koa.

## 4.3

# TRATU TXARREN AURREKARIAK ETA INDARREAN DAUDEN BABES-NEURRIAK

7 Epaietan jasotzen da **biktimak gertaeraren aurretik akusatua salatu** zuela genero-indarkeriarekin lotutako gertakariengatik, eta horietatik bi emakumek bi salaketa jarri zituztela, hurrenez hurren.

Akusatuen aurka irekitako 9 prozedura judizialeetatik 5 kondena-epaian amaitu ziren, eta horietan kondenatuei, zigor erantsi gisa, biktimarekin komunikatzeko eta harengana hurbiltzeko debekua ezarri zitzaien. Debe-ku hori urratu egin zuen akusatuetako batek giza hilketaren aurretik, eta ondorioz, zigorra urratzearen delituagatik kondenatua izan zen<sup>117</sup>.

Salaketa horien ondorioz irekitako prozedura judizialeetatik 3 artxibatu egin ziren, biktimek uko egin baitzieten zegozkien akzio zibil eta penalei<sup>118</sup>. Prozeduretako bat berriz irekita zegoen giza hilketa gertatu zen unean, eta, horren baitan, biktima babesteko agindua indarrean zegoen<sup>119</sup>.

Aipatu beharra dago, inguruabar hauen ondorioz, giza hilketa- edo erailketa-delituaz gain, aztertutako 2 Epaietan akusatua ohiko tratu txarren delitu batengatik kondenatzen dela, eta, 4etan, berriz, zigorra edo kaute-la-neurria urratzearen beste delitu batengatik, heriotza eragiteko unean hauek indarrean zeudelarik.

Ertzaintzak helarazitako datuetan azaleratzen da Segurtasun Gorputz honek 7 emakume horien arrisku-egoeraren inguruko balorazioa egin zuela eta haiek babesteko polizia-neurriak hartuta zeudela.

117. Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaia (6. Atala), 107/2006 zk., azaroak 13koa.

118. Arabako Probintzia Entzutegiaren Epaia (2. Atala), 117/2009 zk., apirilak 20koa; Gipuzkoako Pro-

bintzia Entzutegiaren Epaia (1. Atala), 187/2014 zk., ekainak 12koa.

119. Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaia (1. Atala), 48/2012 zk., Zinpeko Epaimahaia, ekainak 11koa.




Arriskua «berezi» edo «altu» gisa balioetsi zen 3 biktimaren kasuan, eta «oinarrizko» gisa gainerako 4en kasuan. Ertzaintzak ezarritako babes-neurriak honako hauek ziren: emakumea bere burua babesteko neurrietan trebatzea, ausazko telefono deiekin egiaztapenak egitea eta GPS lokalizatzailea zuen bortxa telefonoa ematea<sup>120</sup>. Azken neurri hori ez zen arrisku-egoera «oinarrizko» gisa balioetsi zen bi emakumeren kasuan ezarri.

Bestalde, 5 Epaietan akusatuek biktimaren aurka aurretiaz genero-indarkeriako ekintzak aurrera eramanez zituela jasotzen da, biktimak gertakariengatik salaketarik jarri ez arren<sup>121</sup>.

Azkenik, Epaietako batean jasotzen da akusatuek aurretiazko kondena bat zuela beste bikote bati tratu txarrak eragiteagatik<sup>122</sup>. Ertzaintzaren datuetatik abiatuta, ordea, ikus daiteke 2 hiltzaile gehiagok genero-indarkeriako aurrekari polizialak zituztela, aurreko beste bikote batzuekin harremanetan<sup>123</sup>. Hauetako bi akusaturen kasuan, ordea, ez zegoen hil zuten emakumearekiko genero-indarkeriako aurretiazko zantzurik.

#### 61. IRD TRATU TXARREN AURREKARIAK DITUZTEN KASUAK (2021, N=24)



Ondorioz, aztertutako kasuen % 58<sup>124</sup> batean, emakume horiek genero-indarkeriako gertakarietatik babesteko beharra adierazten zuten aurretiazko arrisku-zantzuak zeuden.

120. Telefonoek, Ertzaintzarekin berehalako konexioa errazteaz gain, biktimaren kokapenari buruzko informazio gehigarria ematen dute, haren segurtasuna indartuz.

121. Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaiak (6. Atala), 28/2016 zk., Zinpeko Epaimahaia, apirilak 14koa; Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaiak (1. Atala), 18/2010 zk., Zinpeko Epaimahaia, martxoak 19koa; Arabako Probintzia Entzutegiaren Epaiak (2. Atala), 155/2010 zk., apirilak 22koa.

122. Gipuzkoako Probintzia Entzutegiaren Epaiak (1. Atala), 191/2014 zk., Zinpeko Epaimahaia, ekainak 26koa.

123. Ez dago polizia-informaziorik azterlan honetan aztertu diren Epaietako bi hildakoren kasuan.


124. Genero-indarkeriaren aurrekari polizialak beste bikote batzuekin harremanetan zituen akusatuetako bat, hil zuen biktimak ere salatu zuen aldetik, jada zenbatua zegoela kontuan izanda kalkulatu da ehunekoak.

## 4.4

# EPAIAREN ERABAKIA

EAE mailako emakumezko bikotekide edo bikotekide ohien hilketei eta erailketei buruzko aztertutako 25 Epaietatik 24 (Epaien % 96), **kondena-epaiak** dira.

### 62. IRD KASUEN BANAKETA EPAIAREN ERABAKIAREN ARABERA (2021, N=25)



Ondorioz, azterlana 25 Ebazpenen azterketatik abiatzen bada ere, erasotzaileari buruzko informazioa 24 kasutan dago soilik.

**Absoluzio-epaiaren** kasuan<sup>125</sup>, gertakariak giza hilketa delitutzat jo ziren (ZK 138 art.), biktima beste pertsona batek eragindako asfixia mekanikoaren ondorioz hil zela frogatutzat eman zen heinean, baina akusatuaren egiletza ez zen egiaztatutzat jo, bere parte-hartzearen inguruko froga objektiborik ez zegoelako (DNA arrastoak, aztarnak). Akusatua biktimaren bikotekidea zen eta etxebizitza barruan zegoen biktimarekin batera gertakaria jazo zen unean.

125. Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaiak (2. Atala), 28/2018 zk., Zinpeko Epaimahaia, maiatzak 31koa.


# 4.5

## ZIGOR- PROZEDURA


### 4.5.1. PROZEDURAKO ALDERDIAK

Herri-akusazioa prozeduran alderdi izan da aztertutako 25 kasuetatik 23tan, eta 21 kasutan, delituaren kaltetunak akusazio partikular gisa jardun dute, herri-akusazioarekin eta Fiskaltzarekin batera arituz.

#### 63. IRD KASUEN BANAKETA PARTE HARTZEN DUTEN ALDERDIEN ARABERA (2021, N=25)




#### 64. IRD HERRI-AKUSAZIO GISA JARDUN DUTEN ERAKUNDEAK (2021, EPAIAK=25, N=42)



#### 4.5.2. EPAIMAHAIA

15 kasutan, Zinpeko Epaimahaia izan da gertakariak epaitu dituen organoa; gainerako 10 kasuetan, berriz, Probintzia-Auzitegi eskuduna izan da epaitzeko arduratu dena.

#### 65. IRDKASUEN BANAKETA EPAITZEN DUEN AUZITEGIAREN ARABERA (2021, N=25)



Zinpeko Epaimahaia da, maiatzaren 22ko 5/1995 Lege Organikoaren 1. artikularen arabera, giza hilketa eta erailketa, egoitza bortxatzea edo mehatxu delituak epaitzeko auzitegi eskuduna. Hala ere, zinpeko epaimahaia ez du eskumenik aztertutako hiltzaileek aurrera eraman dituzten beste delitu batzuk epaitzeko, hala nola: ohiko tratu txarrak, zigorra edo neurria urratzea, lesioak edo sexu-delituak etab, zeinak prozedura berdinetan ikertu diren.

Zinpekoen Epaimahaiaren Lege Organikoaren 5.2 artikulua, pertsona berak delitu desberdinak burutu dituen kasuetarako, Zinpekoen Epaimahaiaren eskumena bere eskumenekoak ez diren delituak epaitzera hedatzea ahalbidetzen du, *“delituren bat beste delitu batzuk burutzeko, errazteko edo horien zigorgabetasuna lortzeko aurrera eraman denean”*.

Giza hilketaz edo erailketaz gain egileari Zinpeko Epaimahaiaren eskumenekoak ez diren beste delitu batzuk leporatu zaizkion kasuetan, eta

aipatutako baldintza bete ez denean, Probintzia Auzitegiek hartu dute epaitzearen ardura<sup>126</sup>.

Hala ere, 2017an Auzitegi Gorenak, Bigarren Salaren jurisdikziozkoa ez den Osoko Bilkuraren erabaki baten bidez, irizpide berriak ezarri ditu Zinpeko Epaimahaiaren eskumenari dagokionez, eta, besteak beste, honako hau ezarri du: *“Pertsona bakar bati momentu eta leku berean batera burututako egitate bat baino gehiago egozten bazaio eta horietako bat Zinpeko Epaimahaiaren eskumenekoa bada, lotutako delitutzat hartuko dira BJLOko 5.2.a) artikuluan xedatutakoarekin analogiaz, eta prozedura bakar batean epaitu behar badira, Zinpeko Epaimahaiak bere eskumenari eutsiko dio”*.

Bizkaiko Probintzia Auzitegiaren urriaren 15eko 108/2008 Epaian, giza hilketa-delituagatik soilik akusatu eta kondenatzen den arren, Probintzia Auzitegia izan da Auzitegi eskuduna.

126. Hala ere, beste kasu batzuetan, Zinpeko Epaimahaiaren eskumenekoak ez ziren delituak egon arren, organo horrek epaitu ditu: Gipuzkoako Probintzia Entzutegiaren Epaia (1. Atala), 65/2012 zk., Zinpeko Epaimahaia, otsailak 15ekoa; Gipuzkoako Probintzia Entzutegiaren Epaia (1. Atala), 234/2012 zk., Zinpeko Epaimahaia, maiatzak 22koa; Bizkaiko Probintzia

Entzutegiaren Epaia (1. Atala), 18/2010 zk., Zinpeko Epaimahaia, martxoak 19koa; Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaia (6. Atala), 28/2016 zk., Zinpeko Epaimahaia, apirilak 14koa; Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaia (1. Atala), 48/2012 zk., Zinpeko Epaimahaia, ekainak 11koa.


# 4.6

## KALIFIKAZIO PENALA

### 4.6.1. BIKOTEKIDEAREN EDO BIKOTEKIDE OHIAREN HERIOTZA


24 kondena-epaietatik 19tan egitateak larriagotzen dituzten eta Zigor Kodearen 139. artikulua araberako **erailketa** kalifikazioa eragiten duten inguruabarrak antzematen dira akusatua heriotza eragiteko moduan. 5 Epaietan, berriz, giza hilketatzat jo dira gertakariak, eta zuhurtziagabeke-riazko giza hilketa gisa kasu bakar batean.

#### 66. KASUEN BANAKETA KALIFIKAZIO JURIDIKOAREN ARABERA (2021, N=25)



Ertzaintzak hasieran egindako kalifikazioak kontuan hartuz gero, ikus daiteke bide judizialean erailketa kalifikazioa jaso duten kasuetatik 14, Segurtasun Gorpuz honek hasiera batean giza hilketa gisa kalifikatu zituela.

**67. IRD KASUEN BANAKETA POLIZIA-KALIFIKAZIOAREN ARABERA  
(2021, N=25)**



Gertakariak erailketa moduan kalifikatu diren 19 Epaietatik 18tan (erailketa kondena-epaien % 95), maltzurkeriaren erabilera egiaztatu da, hau da, egileak emaitza zuzenean ziurtatzeko joera duten bitartekoak, moduak edo formak erabili izana, biktimaren defentsatik etor litekeenaren arrisurik gabe.

Maltzurkeriaren elementua hautemateko kontuan hartu diren inguruabarrak honako hauek izan dira, besteak beste: “erasoa ustekabekoa izan zela, borroka-seinalerik gabe”<sup>127</sup>, “akusatuak biktimaren defentsarako eta laguntza eskatzeko aukera oro eragotzi zuela”<sup>128</sup>, egileak asfixiarekin eragindako zorabioaren bidez “biktimak erresistentziarik jar ezin zezakeela ziurtatu zuela”<sup>129</sup>, eta heriotza “bizkarrean emandako labankaden bidez eta buruari utsiz, bere burua defendatzeko aukerarik gabe”<sup>130</sup> sortu zela.

Bizkaiko Probintzia Auzitegiak, bere aldetik, baztertu egin zuen maltzurkeria 2016ko apirilaren 14ko 28/2016 Epaietan, “biktimaren azazkaletan akusatua DNA arrastoak agertu baitziren erasoaren aurrean biktimak erakutsitako erresistentziaren seinale”, eta baita bere 64/2011<sup>131</sup> eta 78/2011<sup>132</sup> Epaietan, gertakarietan maltzurkeriaren inguruabarra hautemateko beharrezkoa den elementu sorpresiboa ez zegoela argudiatuta.

Era berean, azken urteotan, gertakariak genero-ikuspegitik aztertzean, beste inguruabar gehigarri batzuk hartu dira kontuan biktimaren defendatzeko aukerak balioesterako orduan, hala nola: giza hilketa “familia-

127. Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaiak (2. Atala), 336/2016 zk., Zinpeko Epaimahaia, abenduak 27koa.

128. Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaiak (2. Atala), 336/2016 zk., Zinpeko Epaimahaia, abenduak 27koa.

129. Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaiak (2. Atala), 56/2016 zk., Zinpeko Epaimahaia, urriak 28koa.

130. Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaiak (1. Atala), 48/2012 zk., Zinpeko Epaimahaia, ekainak 11koa.

131. Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaiak (6. Atala), 64/2011 zk., irailak 30koa.

132. Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaiak (6. Atala), 78/2011 zk., azaroak 9koa.

ren bizilekuan burutu izana biktimaren bakardadea aprobetxatuz<sup>133</sup>, eta “akusatua hildakoarekiko nagusitasun-egoeran jartzen zuen familia-indarkeriako testuinguru<sup>134</sup> baten baitan burutu izana.

Beste epai zaharrago batzuetan, ordea, inguruabar berberetatik ondorio guztiz kontrakoak ateratzen dira, genero-ikuspegia kontuan hartzen ez delako, honako hau ezartzen delarik Epaietako batean: “udaltzainen lekukotzaren arabera biktimak antzeko beste gertakari batzuk pairatu zituela kontuan hartuz, erraza da pentsatzea erasoak biktima ez zuela guztiz ustekabez harrapatu<sup>135</sup>.

19 Epaietatik 3tan, bestalde, akusatuaren jokabidean **ankerkeriaren** inguruabarra hauteman da, bi Epaitetan inguruabar hau maltzurkeriarekin batera aurreikusi delarik<sup>136</sup>. Egitateak ankerkeriaz burutzen dira, heriotza eragiteko orduan, egileak nahita eta gizatasunik gabe biktimaren mina areagotzen denean.

Ankerkeria antzeman da, akusatuak biktimari lepoan heriotza eragin aurretik 8 ebaki txiki eragin zizkion kasu batean<sup>137</sup>, egileak biktima arma zuriz hiltzerako orduan berrogeita bi zauri egin zizkion kasu batean, zeinetatik lauk baino ez zioten heriotza eragin<sup>138</sup>; eta akusatuak heriotza eragin aurretik biktima behin eta berriz gorputz osoan jo zuen kasu batean<sup>139</sup>.

Zuhurtziagabekeriako giza hilketaren kalifikazioari dagokionez, Gipuzkoako Probintzia Auzitegiaren azaroaren 3ko 420/2011 Epaiak halakotzat jotzen ditu gertakariak, honakoa argudiatuta: “akusatuak kolpea (lepoaren ezker aldean emandako sastakada) ez zuen *Alejandra andrea*ren heriotza eragiteko asmoz eman, ez aukera moduan aurreikusi (ezta onartu ere)<sup>140</sup>.

133. Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaiak (2. Atala), 336/2016 zk., Zinpeko Epaimahaia, abenduak 27koa.

134. Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaiak (2. Atala), 336/2016 zk., Zinpeko Epaimahaia, abenduak 27koa.

135. Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaiak (1. Atala), 18/2010 zk., Zinpeko Epaimahaia, martxoak 19koa.

136. Arabako Probintzia Entzutegiaren Epaiak (2. Atala), 342/2014 zk., Zinpeko Epaimahaia, urriak 1koa; Gipuzkoako Probintzia Entzutegiaren Epaiak (1. Atala),

191/2014 zk., Zinpeko Epaimahaia, ekainak 26koa.

137. Gipuzkoako Probintzia Entzutegiaren Epaiak (1. Atala), 191/2014 zk., Zinpeko Epaimahaia, ekainak 26koa.

138. Arabako Probintzia Entzutegiaren Epaiak (2. Atala), 342/2014 zk., Zinpeko Epaimahaia, urriak 1koa.


139. Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaiak (6. Atala), 78/2011 zk., azaroak 9koa.

140. Gipuzkoako Probintzia Entzutegiaren Epaiak (1. Atala), 420/2011 zk., Zinpeko Epaimahaia, azaroak 3koa.



**4.6.2.****BIKOTEKIDEAREN EDO BIKOTEKIDE OHIAREN  
AURKA BURUTUTAKO BESTE DELITU BATZUK**


11 Epaietan, eragindako giza hilketaren edo erailketaz gain, pertsona bera-  
ren aurka eragindako beste delitu batzuentatik kondenatzen da akusatua:

**68. IRD BESTE DELITU BATZUENGATIK KONDENA DUTEN KASUAK  
(2021, EPAIAK=11, N=17)**


Ohiko tratu txarren delituari dagokionez, alde handia dago Ertzaintzak egindako hasierako kalifikazioen eta bide judizialean egindakoen artean; izan ere, Ertzaintzak delitu hori 11 kasutan antzeman zuen hasieran, bide judizialean 5 Epaitan soilik frogatutzat eman den arren.

**4.6.3.****BIKTIMA ANITZEKO KASUAK**

Egileak bere bikotekidearen edo bikotekide ohiaren heriotza eragin zuen 9 kasutan, beste delitu batzuk burutu zituen ondorengo pertsona hauen aurka gertaera berdinen baitan:

69. IRD **BESTE BIKTIMA BATZUK DITUZTEN KASUAK (2021, EPAIAK=9, N=10)**

Burututako delituak honako hauek izan ziren:

70. IRD **BESTE BIKTIMA BATZUK DITUZTEN KASUAK DELITUAREN ARABERA (2021, EPAIAK=9, N=10)**

3 kasutan akusatuar biktimaren semearen edo alabaren aurka giza hilketasaiakerak burutu zituen<sup>141</sup>, hauek 16, 19 eta 30 urte zituztela. Gertakarien uenean 30 urte zituen semeak %40ko desgaitasun-maila zuen.

141. Gipuzkoako Probintzia Entzutegiaren Epaia (1. Atala), 187/2014 zk., ekainak 12koa; Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaia (6. Atala), 64/2011 zk., irailak 30ekoa; Gipuzkoako Probintzia Entzutegiaren Epaia

(1. Atala), 234/2012 zk., Zinpeko Epaimahaia, maiatzak 22koa.

Epaietako batean, akusatua biktimaren alabari eragindako lesio psikikoen delitu bategatik zigortzen da, bi urte zituela giza hilketa bere aurrean burutu izanak sortutako kalteengatik<sup>142</sup>.

#### 4.6.4.

#### KONDENATUTAKO BESTE PERTSONA BATZUK

Epaietako batean, erailketa burutu duen pertsonaz gain, haren ama eta anaia ere kondenatzen dira **delituak eragozteko betebeharra** ez betetzeagatik, haiek egitateen unean etxe berean egonda, akusatuak bere bikotekidea heriotza eragin arte etengabe jotzea ekidin ez zutelako<sup>143</sup>.

Beste kasu batean, kondenatuak izan ez arren, **testigantza faltsuaren delituagatik** akusatuaren lagunen aurka prozedura penal bat irekitzeko aukera jasotzen da, laguna estaltzeko deklarazioan benetan gertatutakoa ez azaltzeagatik<sup>144</sup>.

142. Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaia (1. Atala), 18/2010 zk., Zinpeko Epaimahaia, martxoak 19koa.

143. Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaia (6. Atala), 78/2011 zk., azaroak 9koa.

144. Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaia (1. Atala), 48/2012 zk., Zinpeko Epaimahaia, ekainak 11koa.


# 4.7

## ERANTZUKIZUN KRIMINALA ALDATZEN DUTEN INGURUABARRAK

### 4.7.1. INGURUABAR ARINGARRIAK

Egilearen erantzukizun kriminala arindu duten 8 inguruabar aldarazle hautesman dira aztertutako 24 kondena-epaietan. Buru nahasmenaren aringarria eta aitormenaren aringarria izan dira gehien aplikatu direnak, bakoitza 3 epaitan atzeman delarik.

#### 71. IRD INGURUABAR ARINGARRIEN APLIKAZIOA (2021, EPAIAK=24, N=8)



**Buru nahasmenaren inguruabarrari** dagokionez, akusatua erreakzio deliroide bat jasan zuen kasu batean aplikatzen da, pairatzen zuen ezaugarri eskizoparanoideko pertsonalitatearen trastornoak eragin ziona, eta zeinak *“beraren aurka bi eskolakide ohik sortutako konplot bat imajinatzerara eraman zuen, hauen aurkako gorroto, etsaitasun, mendeku polarizatu sentimenduak*

garatuz, gertakarien garaian konplotean bere bikote Emma sartu zuelarik<sup>145</sup>.

Arabako Probintzia Auzitegiaren 2009ko apirilaren 22ko 155/2010 Epaian akusatuak “*pertsonalitate-trastorno paranoidea, zelopatia*” zuela argudiatuta aringarri bera aplikatu zen, giza hilketa delituagatik ezarritako zigorra gradu bat jaitsiz. Horrez gain, aringarriaren aplikazioa tratu txarren delitura zabaldu zen, “*denborari erreparatuta, tratu txarrek 10 urte iraun zuten, beraz biak (gaixotasun mentala eta indarkeria psikikoa) lotuta ageri dira*” kontuan hartuz.

Azkenik Arabako Probintzia Auzitegiaren apirilaren 20ko 117/2009 Epaian aringarri bera aintzat hartzen da “*akusatuak gertakarien unean alkoholaren eta estupefazianteen eraginpean zegoela*” erakusten duten frogak daudela argudiatuz.

**Aitorpenaren aringarriari** dagokionez, bi Epaitan aplikatu da, akusatuak bere borondatez polizia-agenteei delitua aitortu zien kasu batean<sup>146</sup>, eta akusatuak gertatutakoa bere ahizpari kontatu eta honek akusatuaren oposiziorik gabe autoritateei abisua eman zien beste kasu batean<sup>147</sup>, akusatuak etxean itxaron zuelarik Polizia Indarrak iritsi arte, heldu zirenean egindakoa aitortu eta arma entregatu zuelarik. Hala ere, aringarriaren aplikazioa ez zen aitorpena zeharka aurrera eraman zen beste bi kasutan onartu, non beste pertsona batek Polizia Indarrei akusatuak kontatutakoa jakinarazi zien, honen oposiziorik gabe<sup>148</sup>.

**Kaltearen konponketaren** aringarriari dagokionez, Epai bakar batean aplikatu da, non akusatuak 36.000 euro kontsignatu zituen judizialki adingabeentzako kalte-galeren ordain gisa<sup>149</sup>. Hala ere, antzeko kasu batean, non akusatuak 26.000 euro kontsignazio-kontuan sartu eta zegokion familiako etxebizitzaren zatia adingabeentzat eman zuen kasu batean, hipotekaren zatia berak ordainduz, ez zen aringarria aurreikusi, “*seme-alaba adingabe batzuentzat amaren erailketaren eta hortik eratortzen diren beste ondorioen aurrean konponketa posiblerik ez dagoela*”<sup>150</sup> argudiatuta.

Gipuzkoako Probintzia Auzitegiaren azaroaren 3ko 420/2011 Epaian, **edari alkoholadunen kontsumoarekiko mendekotasun larriaren inguruabar aringarria** aplikatzen da, mendekotasun horrek gertakarien unean akusatuak

145. Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaia (1. Atala), 80/2016 zk., Zinpeko Epaimahaia, abenduak 9koa.

146. Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaia (6. Atala), 64/2011 zk., irailak 30ekoa; Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaia (2. Atala), 336/2016 zk., Zinpeko Epaimahaia, abenduak 27koa.

147. Arabako Probintzia Entzutegiaren Epaia (2. Atala), 342/2014 zk., Zinpeko Epaimahaia, urriak 1ekoa

148. Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaia (1. Atala), 48/2012 zk., Zinpeko Epaimahaia, ekainak 11koa; Gipuzkoako Probintzia Entzutegiaren Epaia (1. Atala), 191/2014 zk., Zinpeko Epaimahaia, ekainak 26koa.

149. Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaia (6. Atala), 107/2006 zk., azaroak 13koa.

150. Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaia (1. Atala), 34/2018 zk., Zinpeko Epaimahaia, apirilak 26koa.


errealitatea ulertzeko eta jarduteko zuen gaitasuna arinki kaltetu zuela ondorioztatzen baita.

Defentsek **beste aringarri mota batzuen aplikazioa** eskatu badute ere, hala nola “haserrealdia, itsukeria edo beste pasio-egoera bat eragin duten kausa eta estimuluengatik jardun izana”, edo “akusatuaren ekintzak arrazoi kulturelek eraginda egon izana”, horietako bat bera ere ez da onartu Epaietan, ondorio aringarriak izateko haserrealdia “nolabaiteko zentzu etikoz aurrera eramane behar baita, izan ere, haien jokabidea eta estimuluak ezin ditu Zuzenbideak babestu, nagusi den gizarte-kontzientziak gaitzetsitako jarrera antisozialean oinarritzen direnean”<sup>151</sup> eta “Familia edo arraza baten ohiturak edozein direla ere, bizitzeko eskubidea, berdintasuna eta sexuagatiko diskriminaziorik eza Konstituzioak gizaki orori aitortzen dizkion eskubideak dira, gizaki izate hutsagatik, erasorik edo urraketarik onartu ezin delarik, “kultura” berezi batean oinarrituta”<sup>152</sup>.

#### 4.7.2. INGURUABAR ASTUNGARRIAK

19 Epaietan gertakarien giza erailketa kalifikazioa eragin duten maltzurkeria eta ankerkeria inguruabarrez gain, akusatuaren erantzukizun penala larriagotu duten beste inguruabar batzuk aurreikusi dira aztertutako Epaietan. Ahaidetasunaren inguruabar mistoa, astungarri moduan, 21 Epaitan aplikatu da, eta genero-diskriminazio arrazoiegatik jardutearen astungarria eta nagusitasun-abusuaren astungarria Epai bakar batean aplikatu dira, hurrenez hurren.

#### 72. IRD INGURUABAR ASTUNGARRIEN APLIKAZIOA (2021, EPAIAK=24, N=23)



151. Gipuzkoako Probintzia Entzutejiaren Epaiak (1. Atala), 65/2012 zk., Zinpeko Epaimahaia, otsailak 15koa.

152. Bizkaiko Probintzia Entzutejiaren Epaiak (2. Atala), 336/2016 zk., Zinpeko Epaimahaia, abenduak 27koa.

**Ahaidetasunaren astungarria**, biktimaren eta biktimarioaren artean harreman afektiboa zegoen edo iraganean egona zen kasu orotan aplikatu da, horietako batean, akusatuaren aldetik harremana ezkontzaz kanpoko zelarik<sup>153</sup>. Bi Epaietan inguruabarra ez da aplikatu, biktima eta biktimarioa lotzen zituen harreman afektiboaren sendotasun eta intentsitate faltagatik<sup>154</sup>. Epaietako batean gainera, biktimaren eta biktimarioaren artean ezkontza-harremana egon arren, inguruabarra ez da kontuan hartu<sup>155</sup>.

Bizkaiko Probintzia Auzitegiak, 34/2018 Epaietan, Zigor Kodean 1/2015 Lege Organikoari<sup>156</sup> jarraiki egindako erreformaren bidez sartutako **genero-diskriminazio arrazoiegatik jardutearen astungarria** aplikatzen du. Astungarria aplikatzerako orduan frogatutzat ematen du *“Jesús Carlos akusatuaren egitateak Inocenciak zuen emakume-izaerarekin lotuta daudela, hau da, gizonak dominazioa, kontrola eta emakumearen menpekotasuna adierazteko joera duen egoera baten barruan”* kokatzen direla.

**Sexu-diskriminazio arrazoiegatik jardutearen inguruabar astungarria** Zigor Kodean 1995ean aldarrikatu zenetik aurreikusita egon den arren, ez da Epai bakar batean aplikatu. Bizkaiko Probintzia Auzitegiakaren 64/2011 Epaietan akusazioak honen aplikazioa eskatu zuen, akusatuak biktima hil ondoren *“hau da emakume bat gizon baten gainetik pasatzen saiatzen denean gertatzen dena”* ozenki esan izanari eutsiz. Hala ere, ez zen onartu kontuan hartuz *“inguruabar astungarri honek eskusiboki arrazoi sexistetan oinarritutako borondate edo motibazioaren adierazpen argi, zehatz eta nahitakoa eskatzen duela, eta kasu honetan motibazio sexista eskusibo hori ez zen existitu, eraso akusatuaren eta Hortensiaren arteko eztabaida baten baitan gertatu baitzen. Eztabaida hori alde aurretik hasi zen akusatuaren eta Hortensia artean familia-arrazoiegatik, zehatzago esanda, akusatuak Hortensia sastakatu zuenean, eztabaida Paulino izeneko seme gazteenarekin lotutako gaiei buruzkoa zen”*.

Azkenik, Bizkaiko Probintzia Auzitegiak, azaroaren 9ko 78/2011 Epaietan, **nagusitasun-abusuaren astungarria** aplikatzen da, akusatuaren nagusitasun fisikoa eta biktima, etxean bakarrik egon izana aintzat hartuz, inork defendatzeko aukerarik gabe. Horrez gain, maltzurkeriaren astungarria aplikatzeko baldintzak ematen ez direla gaineratzen da, ustegabeko portaera izan ez zen aldetik.

153. Arabako Probintzia Entzutegiaren Epaiak (2. Atala), 333/2017 zk., Zinpeko Epaimahaia, abenduak 21ekoa.

154. Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaiak (6. Atala), 47/2007 zk., maiatzak 10ekoa.

155. Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaiak (6. Atala), 68/2006 zk., ekainak 29koa.

156. 1/2015 Lege Organikoa, martxoaren 30ekoa, Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzen duena.

### 4.7.3.

#### INGURUABAR SALBUESLEAK

---

Ez da inguruabar salbueslerik aplikatu.

## 4.8 EZARRITAKO ZIGORRAK

Delitu bakoitzak **zigor nagusi** bat du aurreikusita, zeina, delituaren arabera, zigor askatasun-gabetezailerik bat, beste eskubide batzuek gabetezailerik bat edo isun bat izan daitekeen. Horrez gain, zigorrak marko penologiko ireki bat ere ezartzen du, zeinak gutxieneko eta gehieneko zigorra zehazten duen haren iraupenari edo kuantifikazioari dagokionean. Ondorioz, zigor baten zehaztapenak, exekuzio eta partaidetza gradua, erantzukizunaren inguruabar aldarazleak (aringarriak, astungarriak, salbuesleak edo salbuesle ez osoak) eta egitateetako gainerako inguruabarrak balioestea eskatzen du, zigor zehatza kalkulatu edo indibidualizatu ahal izateko, larritasunaren arabera.

Giza hilketa edo erailketa delituaren kasuan, ezarritako zigor nagusia **espetxe-zigorra** da. Zigor horren marko penologikoa, giza hilketaren kasuan, 10 urtetik 15 urtera bitartekoa da, eta erailketaren kasuan, oinarrizko modalitatean, 15 urtetik 25 urtera bitartekoa. Hala ere, kontuan izan behar da erailketa-delituaren oinarrizko modalitatea 15 urtetik 20 arteko espetxealdiarekin zigortzen zela 2015ean Zigor Kodea aldatu zen arte<sup>157</sup>.

---

157. 1/2015 Lege Organikoa, martxoaren 30ekoa, Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzen duena.



Horrez gain, 2015eko Zigor Kodearen erreforman erailketa-delituaren modalitate astundu berri bat sartu zen (Zigor Kodearen 140. artikulua), besteak beste kasu hauetarako: “1. *Biktima hamasei urtetik beherakoa izatea, edo adinagatik, gaixotasunagatik edo desgaitasunagatik bereziki zaugarria den pertsona izatea. 2. Egitatea biktimaren aurka aurrera eramandako sexu-askatasunaren aurkako delitu baten ondoren burutzea*”<sup>158</sup>.


Erailketa-modalitate astundu honentzat azken erreforma honen bidez sartu den espetxealdi iraunkor berrikusgarria ezarri da zigor bezala, zeinak iraupen zehaztugabeko espetxe-zigorra ezartzen duen, berrikusteko aukerarekin, zigor hontara kondenatutako pertsona aske geratu daitekeelarik zenbait baldintza eta epe betetzen direnean.

Horrez gain, Zigor Kodeak **zigor erantsiak** aurreikusten ditu, Epaille edo Auzitegiarentzat derrigorrezkoa edo aukerakoa izango delarik beraien ezarpena, kasuaren arabera.

#### 4.8.1. GIZA HILKETAGATIK EZARRITAKO ESPETXE-ZIGORRAK

Egitateak giza hilketa moduan kalifikatu dituzten 4 Epaietan, delitu horretatik ezarritako espetxe-zigorren batez besteko iraupena 11,4 urtekoa delarik, hau da, 11 urte eta 5 hilabetekoa.

##### 73. IRD GIZA HILKETAGATIK EZARRITAKO ESPETXE-ZIGORRAK (2021, EPAIAK=4)



Gertakariak zehaztugabekeriako giza hilketa gisa kalifikatzen dituen Epaietan, ezarritako espetxe-zigorra 3 urte eta 6 hilabetekoa da.

158. Halaber, espetxealdi iraunkor berrikusgarriarekin zigortzen da, erailketa-delitua talde edo erakunde kriminal bateko kide denak egin duenean; edo hilketaren


erruduna bi pertsona baino gehiago hiltzeagatik kondenatzen denean.

#### 4.8.2.

#### ERAILKETAGATIK EZARRITAKO ESPETXE-ZIGORRAK

Egilea giza erailketa-delitu batengatik kondenatzen den 19 Epaietan, ezarritako espetxe-zigorren batez besteko iraupena 18,4 urtekoa da, hau da, 18 urte eta 5 hilabetekoa.

#### 74. IRD GIZA ERAILKETAGATIK EZARRITAKO ESPETXE-ZIGORRAK (2021, EPAIAK=4)



Epai bakar batean ere ez da **espetxealdi iraunkor berrikusgarriko** zigorra aplikatu. Kasu batzuetan aplikatu ahal izateko inguruabarrak eman badira ere, egitateak erreforma baino lehenagokoak izan dira, adibidez maiatzaren 10eko Bizkaiko Probintzia Auzitegiaren 47/2007 Epaian jasotzen den kasuan, zeinetan akusatuak biktimaren aurka sexu-eraso bat burutu zuen giza hilketa aurretik, edo 2016ko urriaren 28ko Bizkaiko Probintzia Auzitegiaren 56/2016 Epaian jasotzen den kasuan, zeinetan hiltzaileak momentu berean biktimaren 88 urteko ama hil zuen.

#### 4.8.3.

#### ZIGORRAREN ZEHAZTAPENA

Exekuzio- eta partaidetza-graduei edo erantzukizunaren inguruabar aldarazleei dagokienean zigorra zehazteko arau orokorrak aplikatu ondoren (Zigor Kodearen 61-72 artikulua), Auzitegiek zigor zehatza ezarri behar dute, modu arrazoituan, delitugilearen inguruabar pertsonalak eta egitatearen larritasuna kontuan hartuta (Zigor Kodearen 66.1.6 artikulua).

Inguruabar horiei erreparatuz, Bizkaiko Probintzia Auzitegiaren apirilaren 26ko 34/2018 Epaian, Auzitegiak zigor maximoaren alde egiten du, egileak erabilitako “indarkeria, ankerkeria eta basakeria” kontuan hartuz egitateek “krudelkeria berezia” izan dutela argudiatuta, bai eta “akusatuak jokabide horrekin eragindako kaltea ere, bereziki seme-alaba adingabeei... zeinak beren amaren giza hilketa zein baldintzatan eragin zen ezagutuko duten, bai eta hura egin zuen pertsona bere aita bera izan zela ere”<sup>159</sup>.

Ildo horretan, egileak erabilitako basakeria eta biktimari eragindako sufrimendua hainbat Epaitan errepikatu diren arrazoiak izan dira delituarentzat ezarritako gutxienekoa baino zigor altuago baten ezarpena justifikatzeko<sup>160</sup>.

Ildo beretik, beste Epai batzuetan, ez da egokitzen jo zigor minimoa ezartzea, giza hilketa seme-alaba adingabeen aurrean burutu denean, edo akusatuak biktimarekiko enpatia gutxi erakutsi duenean, bere jardura justifikatzeari utzi gabe<sup>161</sup>.

Bestalde, Bizkaiko Probintzia Auzitegiaren urriaren 28ko 56/2016 Epaian eta Gipuzkoako Probintzia Auzitegiaren maiatzaren 22ko 234/2012 Epaian besteak beste, eraso “genero-indarkeriaren esparruan” burutzea izan da akusatuaren portaerari gaitzespen penal handiago bat aitortzeko arrazoietako bat, azken Epaiak indarkeria mota hau “gure gizartean dagoen desberdintasunaren sinbolorik basatiena da”<sup>162</sup> gaineratzen duelarik. Zentzu berean, Bizkaiko Probintzia Auzitegiak, ekainaren 11ko 48/2012 Epaian, honako hau ezartzen du: “Gertakaria bikotekide ohien testuinguruan burutzen da, non aurretik salaketak eragin zituzten beste jazarpenteta eraso-gertakari batzuk egon ziren. Egora honek gertakarien larritasun handiago batera garamatza, erasoak gure gizartean gaundituta egon behar luketen emakumearen jabetzaren eta menderatzearen inguruko ikuskera okerre erantzuten dien aldetik, portaeraren gaitzespen soziala areagotzen delarik”.

Beste Epai batzuek heriotza eragiteko orduan erabilitako maltzurkerian oinarritzen dute portaeraren gaitzespen penal handiago bat<sup>163</sup>.

Gipuzkoako Probintzia Auzitegiaren ekainaren 26ko 191/2014 Epaian, gertakariak argitzen lagundu izanagatik zigor minimoa ezartzen zaio egileari. Horrela Auzitegiak argudiatzen du: “Testu-mezu hori bidaltzeak, egi-

159. Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaia (1. Atala), 34/2018 zk., Zinpeko Epaimahaia, apirilak 26koa.

160. Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaia (1. Atala), 48/2012 zk., Zinpeko Epaimahaia, ekainak 11koa; Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaia (6. Atala), 78/2011 zk., azaroak 9koa.

161. Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaia (2. Atala), 336/2016 zk., Zinpeko Epaimahaia, abenduak

27koa; Arabako Probintzia Entzutegiaren Epaia (2. Atala), 342/2014 zk., Zinpeko Epaimahaia, urriak 1ekoa; Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaia (6. Atala), 64/2011 zk., irailak 30ekoa.

162. Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaia (2. Atala), 56/2016 zk., Zinpeko Epaimahaia, urriak 28koa.

163. Arabako Probintzia Entzutegiaren Epaia (2. Atala), 117/2009 zk., apirilak 20koa.

tateak aitortzearen inguruabar aringarriaren aplikazioa ez badakar ere (ez baitzen autoritatearen aurrean gauzatu) kontuan hartuko da zigorraren indibidualizazioaren ondorioetarako”<sup>164</sup>. Zentzu berean, Bizkaiko Probintzia Auzitegiak martxoaren 19ko 18/2010 Epaian, kontuan hartzen da zigorra indibidualizatzeko orduan “Gertakariak hasiera-hasieratik onartu ez bazituen ere, neurri batean lagundu zuen gertakariak argitzen”.

Era berean, edari alkoholodunen edo beste sustantzia estupefaziante batzuen aurretiazko kontsumoa kontuan hartu da zenbait Epaitan zigor minimoaren ezarpena justifikatzeko<sup>165</sup>, hala nola ekainaren 12ko Gipuzko Probintzia Auzitegiaren 187/2014 Epaian, non honakoa ezarri zen: “akusatuak alkohola hartzeagatik bere borondate edo adimen-gaitasunak nahikoa murriztuta zituenik frogatu ez bada ere, aurreko orduetako kontsumo hori kontuan hartu daiteke zigorra indibidualizatzeko orduan”. Apirilaren 20ko Arabako Probintzia Auzitegiaren 117/2009 Epaiaren arabera, “egilearen gaitasun psikikoen afekzioa ezin da gutxietsi, krimenaren aurreko orduetan alkoholaren eta hainbat estupefazienteren kontsumoan izandako abusu nabarmenaren ondorioz sortu denean, afekzioak zalantzarik gabe, eragina izan zuen bere jokabidean”.

#### 4.8.4. GIZA HILKETA ETA ERAILKETA DELITUEN ZIGOR ERANTSIAK


Zigortuari ezarri zaizkio, bere bikotekidearen edo bikotekide izandakoaren aurka buruturiko giza hilketa eta erailketa delituengatik, ondorengo zigor erantsiak<sup>166</sup>:

164. Gipuzkoako Probintzia Entzutegiaren Epaia (1. Atala), 191/2014 zk., Zinpeko Epaimahaia, ekainak 26koa.

165. Gipuzkoako Probintzia Entzutegiaren Epaia (1. Atala), 191/2014 zk., Zinpeko Epaimahaia, ekainak 26koa; Gipuzkoako Probintzia Entzutegiaren Epaia (1. Atala), 187/2014 zk., ekainak 12koa; Arabako Probintzia Entzutegiaren Epaia (2. Atala), 117/2009 zk., apirilak 20koa; Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaia (6. Atala), 107/2006 zk., azaroak 13koa.

166. Kontuan izan behar da kasu bakoitzean zigor nagusiari erantsitako zigor bat baino gehiago ezartzeko aukera dagoela.

### 75. IRD ZIGOR ERANTSIAK EZARRI DIREN KASUAK (2021, EPAIAK=24, N=67)



Kondenaren sartzeari nahitaezkoa denez, 24 epaietatik 23tan desgaikuntza ezarri da, giza hilketa eta erailketa delituengatik ezarritako zigorren zigor erantsi gisa.

Zigor Kodearen arabera, 10 urte edo gehiagoko espetxealdi-zigorrek kondenatuaren **erabateko desgaikuntza** ekarri behar du kondenak irauten duen bitartean, eta horregatik ezarri da orotara 19 epaitan (kondena-epaia izan duten kasuen %79). 3 epaitan, ezarritako espetxe-zigorrek 10 urte baino gehiago iraun arren, erabateko desgaikuntza ez da kondenan sartu.

**Sufragio pasiborako eskubiderako desgaikuntza berezia** orotara 4 epaitan ezarri da. Horietatik, bi epaitan zigor nagusia 10 urtetik beherako espetxealdi-zigorra da eta beste bi epaitan zigor nagusia 10 urtetik gorakoa izanik, erabateko desgaikuntza ez da sartu. Horietako batean, sufragio pasiborako eskubiderako desgaikuntza bereziarekin batera, **enplegu edo kargu publiko oro etetea** ezarri da.

Zigor Kodearen 48. artikuluan jasotako **biktimarengana edo haren senideengana eta haien egoitzara hurbiltzeko debekuari** dagokionez, nahitaez aplikatu beharrekoa da delituok “egin badira ezkontidea den edo izan denaren aurka, edo antzeko maitasun-harremanez kondenatuarekin egonkor loturik dagoen edo egon izan den pertsonaren aurka, elkarrekin bizi ez arren”. 14 epaitan ezarri da debekua, bikotekidea edo bikotekide ohia hiltzeagatik edo hiltzeagatik ezarritako espetxe-zigorrari dagokionez.

**Biktimarekin edo haren senideekin komunikatzeko debekua** 13 epaitan sartu da, eta **leku jakin batzuetan bizitzeko edo haietara joateko eskubideaz gabetzea** 9 epaitan.

Kondenatuari **guraso-ahala egikaritzeko desgaintza edo kentzearen** zigor osagarriari dagokionez<sup>167</sup>, 5 epaitan ezarri da, nahiz eta 9 epaitan erasotzailea amarik gabe geratu diren adingabeen aita izan.

Kondenatua guraso-ahalaren egikaritzaz gabetzeko erabakia hartu da, bai egitateen unean adingabeak egitateen tokian egon ziren kasuetan (Arabako Probintzia Entzutegia, 342/2014 Epaia), bai inguruabar hori ematen ez zen kasuetan (Bizkaiko Probintzia Entzutegia, 34/2018 Epaia, 2018ko apirilaren 26koa), ondorengo argudiatuz: *“beren seme-alabei eragin ziezaiokeen kalte horrekiko guztiz axolagabea izan zela, eta, ondorioz, beren ongizateari lehentasuna emanaz beren seme-alabei sortutako sufrimenduaren aurretik, eta horrek guraso-ahalaren gabetzea dakar nahitaez”*.

Hala ere, Arabako Probintzia Entzutegiaren abenduaren 21eko 333/2017 Epaian, desegokitzat jo zen urruntze-neurriak hartzea eta guraso-ahalaz gabetzea, egitateen unean adingabeak aurrean ez zeuden kasu batean, ondorengo argudioekin: *“aipatutako uzia ez da inola ere justifikatu aipatutako jurisprudenzia-doktrinak eskatzen duen balizko arrisku batean. Are gehiago, bien alaba den Virginiaren kasuan, gertatutakoak alde batera utzita, auzipetuak harenganako maitasuna erakutsi du”*.

Azkenik, giza hilketa eta hilketa delituengatik ezarritako zigorrei dagokionez, **armak eduki eta eramateko eskubideaz gabetzea** ezarri da 2 epaitan.

---

167. Guraso-ahala egikaritzeko desgaintzaren eta guraso-ahala gabetzearen arteko aldea Zigor Kodearen 46. artikuluan ezartzen da. Guraso-ahalaren desgaintzak kondenak irauten duen bitartean berau etetea suposatzen du (aldi baterako izaera),

eta gabetzeak, berriz, haren titulartasuna galtzea (izaera iraunkorra). Bi kasuetan, semeak edo alabak kondenatuarekiko dituen eskubideak bere horretan mantetzen dira.

## 4.9

# EZARRITAKO SEGURTASUN- NEURRIAK

Segurtasun-neurriak dira delituaren beste ondorio juridiko bat, praktikan zigorren osagarriak edo ordezkoak izan daitezkeenak. Segurtasun-neurriak subjektuaren arriskugarritasunaren arabera ezartzen dira, betiere ez-zilegi penal baten bidez adierazten dena.

### 4.9.1.

#### **ASKATASUNAZ GABETZEN DUTEN SEGURTASUN-NEURRIAK**

Zigor Kodeak askatasunaz gabetzen duten segurtasun-neurriak ezartzeko aukera aurreikusten du 20.1. artikulutik 20.3. artikulura bitartean aurreikusitako inguruabar salbuesleen arabera erantzukizun kriminaletik salbuetsita adierazi diren akusatuentzat. Hau da, akusatuak gaixotasun (ez-iragankor) edo alterazio (iragankor) psikiko bat duenean, edo edari alkoholduak, droga toxikoak edo antzeko ondorioak eragiten dituzten beste substantzia batzuk kontsumitzeagatik erabateko mendekotasuna edo intoxikazioa duen kasuetan.

Inguruabar horiek salbuesle osatugabea dakarten kasuetan, akusatuak gaitasun kognitibo eta bolitiboak urrituta dituelako, baina ez deuseztatuta, askatasunaz gabetzen duen segurtasun-neurria ezarri ahal izango da ezarritako espetxealdi-zigorrarekin batera.

Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren abenduaren 9ko 80/2016 Epaian, zeinean ezartzen baita alterazio psikikoaren salbuesle osatugabea frogatutzat jotzen baita akusatuak deliriozko erreakzioa izan zuela egitateen datan, 12 urteko espetxealdi-zigorraz eta dagozkion gehigarriez gain, tratamendu psikiatrikorako **zentro psikiatrikoan barneratzea** ezartzen zaio, erregimen itxian, 15 urtez.

Zigor Kodearen 99. artikulua arabera, askatasunaz gabetzen duten zigorrak eta segurtasun-neurriak batera ezartzen diren kasuetan, epaile edo auzitegiak neurria betetzeko aginduko du, eta segurtasun-neurria betetzen egon den denbora zigorra betetzeko denboratik kenduko da.

#### **4.9.2.**

#### **ASKATASUNAZ GABETZEN EZ DUTEN SEGURTASUN-NEURRIAK**

---

1/2015 Lege Organikoaren arabera egindako Zigor Kodearen erreformaren bidez, 140 bis artikulua sartu zen, eta giza hilketa edo erailketa delitu bat edo gehiago egiteagatik kondenatutakoei zaintzapeko askatasunaren neurria ezartzeko aukera eman zen.

**Zaintzapeko askatasunaren** neurria aztertutako epailetako 2tan ezarri da (Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren 2018ko apirilaren 26ko 34/2018 Epaia eta abenduaren 9ko 80/2016 Epaia), espetxe-zigorra amaitutakoan bete beharreko 10 urteko aldirako.



# 4.10

## ERANTZUKIZUN ZIBILA

Aztertutako 24 kondena-epaiek erantzukizun zibilaren inguruko erabakiak hartzen dituzte. 16 epaik kalte-ordaina aitortzen diete biktimen seme-alabei, 11k gurasoei, 6k anai-arrebei eta bakar batean kalte-ordaina aitortzen zaio hildakoaren bikotekideari.

Delitutik jaiotako erantzukizun zibil gisa aitortutako zenbatekoak aldakorrak izan dira. Horiek zehazteko erabili diren irizpideei dagokienez, aztertutako epaietako 9tan, irizpide orientagarri gisa, zirkulazio-istripuetan pertsoneri eragindako kalte eta galerak balioztatzeko baremo edo sistema erabili da. Hori bai, hasieran ezarritako zenbatekoen aldean nolabaiteko igoera erabaki da, zirkulazio-istripuak bezalako ezbeharrak pairatzea baino min (kalte moral) handiagoa oinarri hartuta. Epaietako batean adierazten denez, kasu horietan hazkundera % 10 eta % 30 artekoa izan behar da. Gainerako epaietan, jasandako kalte morala balioztatu da, irizpide orientagarrikerik erabili gabe.

Jasandako kalte morala balioztatzeko kontuan hartu diren inguruabarrak, seme-alabei esleitutako zenbatekoari dagokionez, honako hauek izan dira: biktimaren adina, seme-alabaren biktimarekiko mendekotasuna (adingabea izateagatik, adin txikikoa izateagatik edo desgaitasuna izateagatik<sup>168</sup>), bizikidetzarik dagoen ala ez, biktimak lan ordaindua izatea, heriotza aitak berak eragin izana, bestelako ondorio psikologikoak pairatu izana, gertakariak sortutako bestelako ondorioak (lekualdaketa geografikoa familiako beste kide batzuekin bizitzera joateko<sup>169</sup>, harrera-zentroetan bizi behar izatea, jasandako ondorio psikologikoak, etab).

Gurasoen eta anai-arreben kasuan, honako aldagai hauek izan dute eragina: biktimaren adina, bizikidetza, afektu-loturak, biktimarekiko mendekotasuna (ekonomikoa, fisikoa, etab.), umezurtzak bere gain hartu izana, jasandako ondorio psikologikoak, etab.

168. Gipuzkoako Probintzia Entzutegiaren Epaia (1. Atala) 187/2014 zk., ekainaren 12koa.

169. Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaia (2. Atala), Zinpeko Epaimahaia, 336/2016 zk., abenduaren 27koa.

Halaber, “ex delicto” ekintza zibilaren gaia arautzen duen erregutze-printzipioa aplikatu da. Printzipio horren arabera, esleitutako zenbatekoa ezin izango da alderdiek eskatutakoa baino handiagoa izan.

## SEME-ALABEI DAGOZKIEN KALTE-ORDAINAK

Onuradunak, guztira	37
Batezbestekoa	101.189,19
Kalte-ordainik altuena	300.000
Kalte-ordainik baxuena	20.000

## GURASOEI DAGOZKIEN KALTE-ORDAINAK

Onuradunak, guztira	16
Batezbestekoa	67.112,87
Kalte-ordainik altuena	200.000
Kalte-ordainik baxuena	8.806

## NEBA-ARREBEI DAGOZKIEN KALTE-ORDAINAK

Onuradunak, guztira	13
Batezbestekoa	26.923
Kalte-ordainik altuena	60.000
Kalte-ordainik baxuena	10.000

## BESTELAKOENTZAT KALTE-ORDAINAK

Onuradunak, guztira	1
Batezbestekoa	92.000
Kalte-ordainik altuena	92.000
Kalte-ordainik baxuena	92.000

# 4.11

## ONDORIOAK

### A. EZ DAGO ZIGORGABETASUNIK

la epai guztiak kondenatzaileak izan dira, eta espetxe-zigor garrantzitsuak ezarri dizkiote egileari. Delituaren berezko ezaugarriek laguntzen dute egitateak kasu gehienetan erraz argitzen.

### B. ESTATU-MAILAN LORTUTAKO DATUEKIKO ANTZEKOTASUNA

Biktimen eta biktimarioen profilei buruz lortutako datuak eta giza hilketen eta erailketen ezaugarriak **Estatuan lortutako oso antzekoak dira.**

KONPARATUTAKO DATUA	EAE 2002 - gaur egun	ESTATUA <sup>171</sup> 2003 - gaur egun
Eratsotzaileen adina, batezbestekoa	39	46,4
Nazionalitatea. Espainiar erasotzaileak	%50	%66,2
Nazionalitatea. Atzerriko erasotzaileak	%50	%33,8
Elkarbizitza zegoen kasuen batezbestekoa	%62	%60,7
Ezkontza-lotura egotea	%42	%48,2
Adingabeak zurtasun-egoeran uzten dituzten biktimen ehunekoa	%52	%56
Erasoaren tokirik ohikoena	Bizilekua	Bizilekua
Erabilitako metodarik ohikoena	Arma Zuria	Arma Zuria
Erasoa burutzen den hilabeterik ohikoena	Uztaila-Abuztua	Uztaila
Erasoa burutzen den asteko egunik ohikoena	Larunbata	Igandea
Aurretiaz salaketa egon den kasuen ehunekoa	%29	%24,7

170. CONSEJO GENERAL DEL PODER JUDICIAL, Informe sobre víctimas mortales de la violencia de

género y doméstica en el ámbito de la pareja o expareja. Año 2019, 2020ko abendua.

### C. ARRISKU-ZANTZUAK ZITUZTEN BIKTIMEN EHUNEKO GARRANTZITSUA

Oro har, bikote-harreman baten barruan gertatzen diren genero-indarkeriako gertakariak ez dira gertakari isolatuak, baizik eta kontrol eta menderatze-prozesu baten barruan kokatzen dira, eta prozesu horretan emakumeak indarkeria fisikoa, psikologikoa, sexuala edo ekonomikoa jasaten du era jarraituan. Horrek ahalbidetzen du arrisku-egoeran dauden edo indarkeria horren biktima diren emakumeak detektatu eta erasotzaileengandik babestea.

Horrenbestez, funtsezkoa da detekzio eta babes-mekanismo eraginkorrak eta egokiak izatea, ahalik eta gertakari gehien saihesteko. Ildo horretan, arreta berezia eskaini behar zaie biktimen aurretiazko salaketei eta mota horretako aurretiko gertakarien egiaztapenari, adierazle oso esanguratsuak baitira, 4. atalean agerian geratu den bezala.

Era berean, Ertzaintzaren datuei erreparatuta, ikusten da edari alkoholduen edo bestelako substantzien kontsumoa ere esanguratsua dela, giza hilketa edo erailketen egileetako 4 mota horretako profilekin bat datozelako.

Helburu horrekin berarekin, arrisku-egoera identifikatuta zuten hildakoen kopuru handia kontuan hartuta –4. atalean egiaztatuta dena–, agerian geratzen da indarrean dagoen sisteman dauden babes-mekanismoak hobetu behar direla.

### D. GENERO-IKUSPEGIAREN ERABILERA AZKENALDIKO JURISPRUDENTZIAN

2018. urteaz geroztik, arau penalen interpretazioan genero-ikuspegia erabiltzeko beharra ezarri du Auzitegi Gorenak<sup>171</sup>.

Alebosiaren elementuari dagokionez, genero-ikuspegia erabiltzeak aukera eman du kontuan hartzeko emakumeak oro har bizi duen mendetasun-egoera eta, bereziki, emakume batek jasan dezakeen ohiko tratatu txarren egoera, balioesteko zer neurritan murriztu zaizkion bere defentsa-aukerak bikotekideak edo bikotekide ohiak jasandako eraso baten testuinguruan.

Interpretazio-korronte horrek eragina izan du EAE-ko probintzia entzutegien jurisprudentzian. Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren (2. Atala)

171. AGE 247/2018, maiatzaren 24koa; AGE 119/2019, martxoaren 6koa.

abenduaren 27ko 336/2016 Epaian (Zinpeko Epaimahaia), esaterako, genero-ikuspegia erabili da alebosiaren elementu hori interpretatzeko, 6.1 atalean aztertu den bezala.

Genero-ikuspegiak eragina izan du Zigor Kodean ere, eta horren erakusgarri da genero-diskriminazioagatiko arrazoia berriki txertatu izana Zigor Kodeko 22.4 artikuluan, “gorroto-delituak” eratzen dituen inguruabar astungarria<sup>172</sup>. Istanbulgo Hitzarmenean ezarritako genero-indarkeria kontzeptutik abiatuta<sup>173</sup>, astungarri horren funtsa portaeraren kaltegarritasuna areagotzean kokatu da, indarkeria hori emakume baten aurka ematen denean emakume izateagatik edo gizonak emakumearen aurrean duen nagusitasunaren adierazpen gisa gertatzen denean.

Zigor Kodean, era berean, badira zentzu hertsian genero-indarkeriako delitu gisa karakterizatutako delituak. Delitu horien elementuen artean, biktimaren eta egilearen artean ezkontza-harreman bat edo antzeko maitasun harreman bat egotea aurreikusten da, nahiz eta elkarbizitarik ez izan, 148.4, 153.1, 171.4 eta 172.2 artikuluetan jasotako delituekin gertatzen den bezala. Genero astungarria ez da bateragarria delitu-figura horiekin, izan ere, delitu hauek jada funts berarekin izan dira astunduak.

Hala ere, genero-indarkeriako delitu berezi horiek tipifikatzeko orduan, alde batera utzi ziren indarkeria horren gertakari larrienak, hala nola bizitzaren aurkako delituak, hauei genero-astungarria aplikatu dakiekeelako, delitu arrunten bidez zigortuta daudelako.

Horrela, 2015. urteaz geroz, Auzitegi Gorenak genero-astungarria aplikatu die harreman sentimental baten (edo izandako baten) esparruan buruturiko giza hilketa eta erailketa delituei, genero-indarkeriaren adierazpen gisa. Are gehiago, zentzu hertsian genero-indarkeria delitu direnen inguruan orain arte mantendu den interpretazioan ez bezala, genero-astungarri hori aplikagarritzat jotzen da bikotekidearen edo bikotekide ohiaren esparrutik kanpo gertatutako erasoen kasuetan ere. Horrek, izatez, genero-indarkeriaren kontzeptua zabaltzea eragin du, haren egokitasunari buruzko balorazioak alde batera utzita. Kontzeptu zabal honek barne-hartzen du objektiboki diskriminazio eta mendekotasun egoera baten adierazle den indarkeria oro genero-indarkeria horren barruan sartuta objektiboki adierazten duen

172. 2015ean Genero-arrazoiengatiko diskriminazio-arrazoia Zigor Kodearen 22.4 artikuluko inguruabar astungarriari gehitu zitzaionetik (gorroto-delituak osatzen dituen astungarritzat jotzen dena) jokabide kriminal matxistak, genero-indarkeriako delituen ikuspegitik ez ezik, gorroto-delituen ikuspegitik ere aztertu behar dira. Hala, orain arte modu independentean tratatu eta identifikatu diren bi kategoria hauek orain elkarri lotuta

edo erlazioatuta daude.

173. Emakumeen aurkako indarkeriari eta etxeko indarkeria aurreikusi eta aurre egiteko Europako Kontseiluaren Hitzarmena, Istanbulen egina 2011ko maiatzaren 11n.

indarkeria oro, berau gizonezko batek emakumezko baten aurka erabili duenean “genero-arraioengatik”.

Ikerketa honetan aztertutako epaiei dagokienez, Zigor Kodean figura duela gutxi sartu delako, genero-astungarria epai bakarrean aplikatu da. Kontuan izan behar da egitateak soilik epaietako 3tan direla 2015etik aurrerakoak (astungarria indarrean sartu zen urtea)<sup>174</sup>. Gainerako 2 epai horietan ez da aplikatu; izan ere, absoluzio-epaia ematen da horietako batean, eta bestean, giza hilketa erasotzailearen deliriozko erreakzio baten ondorioz gertatu zen.

Hala ere, indarrean dagoen arauketa eta jurisprudentzia kontuan hartuta, genero-astungarria aplikatu ahal izango zen aztertutako kasu gehienetan, baldin eta gertatutako eraso gizonak emakumearen aurrean duen menderatze-egoeraren adierazgarria balitz – 3.8 paragrafoan, aztertutako epaietatik 22tan egiaztatu da inguruabar hori–, baldin eta gertakariak astungarri hori indarrean jarri ondoren gertatu balira.

Illo horretan, aipatu behar da genero-astungarria txertatu aurretik ere hasi zirela kontuan hartzen, genero-indarkeriaren esparruan gertatutako giza hilketa eta erailketei dagokienez, emakumearen jabetzaren eta menderatzearen ikuskera okerren esparruan egindako erasoak gaitzespen penal handiagoa merezi zutela, eta aztertutako epai batzuetan, 8.3 atalean aztertu den moduan, arrazoi horregatik zigor astunagoak ezartzera iritsi direla.

1995. urtean Zigor Kodea aldarrikatu zenetik, sexuari lotutako diskriminazio-arraioengatik jardutea inguruabar astungarria zen, baina Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren 64/2011 Epaian islatzen den bezala (9.5 atalean aztertua), sexu astungarri hori interpretatu da soilik aplikagarritzat jotzen delarik akusatua jokabidean mugikor misoginoa edo sexista hutsa hauteman den kasuetan, eta hori ez da gertatzen zentzu hertsian krimen matxisten gehiengoetan.

Azkenik, positiboa da aztertutako epaietan egitate horien egileak legiti-matu edo errugabetu dituzten inguruabar salbuesle edo aringarriak inoiz ez hautematea, “arrazoi kulturalengatik” edo “zoroaldia, itsualdia edo horien antzekoa den beste grinaldi bat eragin duten estimuluengatik jardun izanagatik”, kasu batzuetan gertatu den bezala.

---

174. 1/2015 Lege Organikoa, martxoaren 30ekoa, zeinaren bidez aldatzen baiten 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodearena.

## E. GERO ETA JOERA HANDIAGOA DAGO AKUSATUARI HURBILTZEKO ETA KOMUNIKATZEKO DEBEKUAK EZARTZEKO, BAI ETA SEME-ALABEKIKO GURASO-AHALAZ GABETZEKO ERE, EMAITZA HILGARRIA DUTEN GENERO-INDARKERIAKO KASUETAN

Guraso-ahala, kuradoretza, tutoretza, zaintza edo harrera egikaritzeko **desgaikuntza berezia** eta **guraso-ahalaz gabetzea** zigor nagusi gisa, delituen zerrenda itxi baten kasuan; edo zigor erantsi gisa, edozein delituren kasuan, betiere guraso-ahalari buruzko eskubideek zuzeneko lotura badute egindako delituarekin.

Epaietan aztertutako egitateak gertatu diren denboran (2002-2016), guraso-ahalaz gabetzea edo desgaitzea ez da Zigor Kodean aurreikusita egon giza hilketa edo erailketa delituaren zigor nagusi gisa. Ondorioz, horietako batean ere ez da ezarri zigor nagusi gisa.

Zigor erantsi gisa 5 epaitan aplikatu da, nahiz eta 9 epaitan erasotzailea amarik gabe umezurtz geratu diren adingabeen aita izan. Horren arrazoia da zigor erantsi honen ezarpena aukerakoa delako eta epailearen esku dagoelako balioztatzea guraso-ahalaren eskubideen eta buruturiko delituaren arteko harremana eta, ondorioz, zigor erantsia ezartzea ala ez.

Aipatu behar da 2010. urtera arte ez zela berariaz aurreikusten guraso-ahalaz desgaitzea edo gabetzea zigor erantsi gisa Zigor Kodearen 55. eta 56. artikuluetan –ezar daitezkeen zigor erantsien katalogoa arautzen dute artikuluko horiek–, eta zigor erantsiaren ezarpena eztabaidatzen zen epaian ezarritako zigor nagusia 10 urtetik gorako espetxe-zigorra zen kasuetan. Hala ere, 5/2010 Lege Organikoaren bidez, berariaz zigor erantsi gisa ezarri zen, edozein zigor nagusirekin batera ezartzeko aukera eman, betiere aipatutako lotura hori egonez gero. Horren ondorioz, zigor erantsi horien ezarpenak protagonismo handiagoa hartu zuen zigor-arloko prozesuan, eta atzean utzi zen alderdiek ia ezinbestean jurisdikzio zibilera jo behar zuten garaia<sup>175</sup>.

Guraso-ahalaz gabetzeak edo desgaitzeak ez die eragiten gurasoek eta adingabeek beren artean egoteko eta komunikatzeko dituzten eskubideei. Eskubide horiek mugatzeko, Zigor Kodearen 48. artikuluan jasotako hurbiltzeko eta komunikatzeko debekuetara jo behar da, 57. artikuluan aurreikusten baita debeku horien ezarpenerako araubidea.

57. artikulua araber, *“ezkontidea den edo izan denaren aurka, edota antzeko maitasun-harremanez kondenatuarekin loturik egon den pertsonaren*

175. VALEIJE ÁLVAREZ, Inma, “Las penas de privación e inhabilitación de patria potestad desde la perspectiva de la jurisprudencia del TEDH 1391”, ABEL SOUTO, Miguel; BRAGE CENDÁN, Santiago B.; GUINARTE

CABADA Gumersindo, Estudios Penales en Homenaje al Profesor José Manuel Lorenzo Salgado, Tirant Lo Blanch, Valencia, 2021, 1394. or.

*aurka, nahiz eta bizikidetzarik ez izan*” buruturiko giza hilketa edo erailketa delituetan nahitaezkoa da biktimarengana eta bere bizileku eta lantokira hurbiltzeko debekua ezartzea, baita epaitegi edo auzitegiak epaian zehazten dituen senide edo pertsonengana hurbiltzekoa ere. Hurbiltzeko debeku horrek, gainera, berariaz jasotzen du, seme-alabei dagokienez, “*epai zibilean aitortutako bisita, komunikazio eta egonaldi-erregimena etetea, kondenatuak zigor hori erabat bete arte*”, eta aplikatu ahal izango da, genero-indarkeriako kasuetan seme-alabak erasoaren biktima zuzenak izan ez diren arren.

Ilido horretan, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 2/2004 Zirkularrak ezartzen duenez, epaileak ahalmena duela erabakitzeko kondenatuak bere seme-alabei egiten dizkien bisitak edo komunikazioa etetea, “*egilearen inguruabarrak eta egitatea*” kontuan hartuta, eta adingabearen “*interes gorenaren*” printzipioa errespetatuz. Zirkularrak zehazten du etetea agintzea ez dela derrigorrezkoa epailearentzat, araudiaren literaltasunetik interpreta litekeen moduan.

Horrenbestez, guraso-ahala desgaitzeko edo gabetzeko, eta bisitak eta komunikazioa eteteko, epaile eta auzitegien ahalmena aukerako erabakia izanik, euskal auzitegiak zigor horiek ezartzearen inguruan jarrera desberdinak dituztela ikusi da. Hori hertsiki lotuta dago Auzitegi Gorenak gai horretan duen jurisprudentzian izandako irizpide-aldaketekin.

Auzitegi Gorenak, 2015. urtera arte, ez zuen begi onez ikusten guraso-ahalaren desgaitzea edo gabetzea genero-indarkeriako kasuetan zigor erantsi gisa. 2010eko erreformaren aurretik sortzen ziren legezko-tasun-arazoez gain, adingabearen interes gorenaren mesedetan, amaren umezurtz adingabeek beste gurasoarengandik aldentzean jasan zitzaizketen kalteak kontuan hartzen ziren. Ondorioz, guraso-ahalarik datzekion bete-beharrei jaramonik ez egitearen portaera bat jasota uzten zuten frogak gehigarriak eskatzen ziren, aitzak amaren aurka egindako delituak aitarekiko harremanarekin lotura zuzena zuela ulertzeko.

Hala ere, irailaren 30eko 568/2015 Epaian, Auzitegi Gorenak aipatutako zigor erantsia aplikatzearen aldeko jarrera hartu zuen hamar urteko edo gehiagoko zigorra duten genero-indarkeriako kasuetan (ZK-ko 55. artikularen arabera), ondorengo arrazoituz: “*adingabearen presentziak aitzak amari egindako erasoan, ondorio negatibo luzea izango du adingabearen garapenean, guraso-ahala mantentzekotan, eta horregatik da bateraezina eta ez du zentzuzko justifikaziorik instantzia-uzitegiak guraso-ahala ez kentzeko hartutako erabakia*”<sup>176</sup>.

---

176. AGE (Zigor Sala, 1. Atala) 568/2015 zk., irailak 30ekoa.



Era berean, Auzitegi Gorena guraso-ahalaz gabetzeko zigorra ezartzearen alde agertu da, baita egitateak adingabeen aurrean gertatu ez diren kasuetan ere, horiek delitu larriak izan direnean: “ez da beharrezkoa adingabeari zuzenean eraso egitea zigor hori ezar dadin, baizik eta adingabearen amari erasotzea haren aitak, eta amaren bizitzarekin bukatzeko asmo argiarekin. Honek eskatutako guraso-ahalaz gabetzeko zigorra ezartzea dakar”. Auzitegiak gaineratu duenez, “nekez da bateragarria alabaren ama hiltzen saiatu den pertsona adingabeari heziketa integrala emateko gai izatearekin”<sup>177</sup>.

Epai horietan, abiapuntutzat hartzen da genero-indarkeriako kasu larrietan -hala nola aztertutako giza hilketak eta erailketak- egitateetan adingabeak dauden ala ez kontuan hartu gabe, haien osotasun moralaren aurkako eraso konponezinak ematen direla. Eta horrek aurrez aurre talka egiten duela gurasoen eta seme-alaben ongizatea eta prestakuntza integrala zaintzeko betebeharrarekin. Ondorioz, adingabearen interes gorenaren mesedetan, egokitzat jotzen da horrelako neurriak prozesu penalean hartzea, prozedura zibilean eskatu arte itxaron gabe.

Ilido beretik jarraituz, EAEko probintzia entzutegiek gero eta joera handiagoa dute akusatuari hurbiltzeko eta komunikatzeko debekuak ezartzeko, bai eta biktimen seme-alabekiko guraso-ahalaz gabetzeko ere, emaitza hilgarria duten genero-indarkeriako kasuetan. Hala ere, oraindik ere aurki daitezke neurri horiek hartu ez dituzten orain dela gutxi epaiak (Arabako Probintzia Entzutegiaren Epaia (2. Atala), 333/2017 zk., Zinpeko Epaimahaia, abenduak 21ekoa).

Duela gutxi, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurka babesteari buruzko 8/2021 Lege Organikoaren arabera, aldatu egin da Zigor Kodearen 140 bis artikulua, eta guraso-ahalaz gabetzeko zigorra nahitaez ezarri da dolozko giza hilketagatik edo erailketagatik zigortutakoentzat, delitugileak eta biktimak elkarrekin seme edo alaba bat dutenean eta biktima egilearen semea edo alaba denean. Zigor bera ezarriko da biktima delitugilearen semea edo alaba denean delitugilearen bestelako seme-alabei dagokienez, halakorik badago.

Zigor Kodeak guraso-ahalaz desgaitzea edo gabetzea zigor nagusi gisa ezartzen duen kasu gehienetan, epailearen ahalmen moduan ezartzen da hori, epaile edo auzitegiak erabakia hartu behar duelarik adingabearen interes gorenaren kontuan hartuta. Ondorioz, erreforma honek aldaketa handia dakar, lehen aldiz ezartzen baita epaile edo auzitegiak nahitaez aplikatu beharreko guraso-ahalaren desgaitzea edo gabetzea.

---

177. AGE (Zigor Sala, 1. Atala) 452/2019 zk., urriak 8koa.

Azkenik, aipatu behar da guraso-ahala egikaritzeko etetea eta bisita, egonaldi, harreman edo komunikazio-erregimena etetea kautelazko neurri gisa ere erabaki daitekeela zigor prozeduran (Genero Indarkeriaren aurkako neurriei buruzko Lege Organikoaren 65. eta 66. artikulua)<sup>178</sup>. Zigor Kodea aldatu zenetik (2015. urtea), gainera, epaileak edo auzitegiak genero-indarkeriagatiko erruztatuaren egonaldi, harreman edo komunikazio-araubidea gauzatzeko moduari buruz erabakitzeko betebeharra ezartzen du, haren mendeko adingabeei dagokienez, bai eta adingabeen eta emakumearen segurtasuna, osotasuna eta errekupeazioa bermatzeko beharrezko neurriak hartzekoa ere, haien bilakaeraren aldizkako jarraipena eginez.

Ikerketa honetan ezin izan da kautelazko neurri horiei buruzko azterketarik egin, informazio hori ez baitago jasota eskura dauden ebazpen judizialetan.

## **F. ERANTZUKIZUN ZIBIL GISA EMANDAKO KALTE-ORDAINAK ZEHAZTEKO IRIZPIDEAK BATERATZEKO BEHARRA**

12. atalean aztertu den bezala, aitortutako erantzukizun zibilaren zenbatekoak heterogeneoak dira, eta horiek zehazteko erabilitako irizpideak aldatu egin dira denboran zehar.

Zenbatekoak baremo orientagarria erabiliz finkatu diren eta hori erabili gabe finkatu den epai-taldearen artean alde kuantitatibo argirik antzeman ez den arren, segurtasun juridikoko arrazoiengatik eta desberdintasunak saihesteko, delitu ez den erantzukizun zibila zehazteko erabilitako irizpideak bateratu beharko lirateke.

---

178. 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurka Osoko Babesa emateko Neurriei buruzkoa.

# 4.12

## AZTERTUTAKO EPAIAK

Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaia (2. Atala), 28/2018 zk., Zinpeko Epaimahaia, maiatzak 31koa.

Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaia (1. Atala), 80/2016 zk., Zinpeko Epaimahaia, abenduak 9koa.

Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaia (1. Atala), 34/2018 zk., Zinpeko Epaimahaia, apirilak 26koa.

Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaia (2. Atala), 336/2016 zk., Zinpeko Epaimahaia, abenduak 27koa.

Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaia (2. Atala), 56/2016 zk., Zinpeko Epaimahaia, urriak 28koa.

Arabako Probintzia Entzutegiaren Epaia (2. Atala), 333/2017 zk., Zinpeko Epaimahaia, abenduak 21ekoa.

Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaia (6. Atala), 28/2016 zk., Zinpeko Epaimahaia, apirilak 14koa.

Arabako Probintzia Entzutegiaren Epaia (2. Atala), 342/2014 zk., Zinpeko Epaimahaia, urriak 1ekoa.

Gipuzkoako Probintzia Entzutegiaren Epaia (1. Atala), 191/2014 zk., Zinpeko Epaimahaia, ekainak 26koa.

Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaia (6. Atala), 34/2013 zk., ekainak 7koa.

Gipuzkoako Probintzia Entzutegiaren Epaia (1. Atala), 187/2014 zk., ekainak 12koa.

Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaia (1. Atala), 48/2012 zk., Zinpeko Epaimahaia, ekainak 11koa.

Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaia (6. Atala), 78/2011 zk., azaroak 9koa.

Gipuzkoako Probintzia Entzutegiaren Epaia (1. Atala), 420/2011 zk., Zinpeko Epaimahaia, azaroak 3koa.

Gipuzkoako Probintzia Entzutegiaren Epaia (1. Atala), 65/2012 zk., Zinpeko Epaimahaia, otsailak 15ekoa.

Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaia (6. Atala), 64/2011 zk., irailak 30ekoa.

Gipuzkoako Probintzia Entzutegiaren Epaia (1. Atala), 234/2012 zk., Zinpeko Epaimahaia, maiatzak 22koa.

Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaia (1. Atala), 18/2010 zk., Zinpeko Epaimahaia, martxoak 19koa.

Arabako Probintzia Entzutegiaren Epaia (2. Atala), 155/2010 zk., apirilak 22koa.

Arabako Probintzia Entzutegiaren Epaia (2. Atala), 117/2009 zk., apirilak 20koa.

Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaia (6. Atala), 108/2008 zk., urriak 15ekoa.

Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaia (6. Atala), 47/2007 zk., maiatzak 10ekoa.

Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaia (6. Atala), 107/2006 zk., azaroak 13koa.

Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaia (6. Atala), 68/2006 zk., ekainak 29koa.

Bizkaiko Probintzia Entzutegiaren Epaia (2. Atala), Zinpeko Epaimahaia, maiatzak 14koa.

**AZKEN OHARRA:**

Eskaera formal bat egin zitzaion Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiari (2021eko irailean), atal honetako espediente judizialei buruzko informazioa zabaldu ahal izateko, baina dokumentu honen idazketaren azken unean ez da erantzunik jaso.

# 05



**Azken sintesia eta  
konklusioak**

